




bizitzaren aukerak

J o s e b a
K o l d o
O r t e g a

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JOSEBA KOLDO ORTEGA

bizitzaren aukerak

Narrazioak

AURKIBIDEA

Galdutakoak

Bi eguzki zero batean

Mira, La Flaca. Zirt edo zart

Oporretako lagunak

Bizitzaren aukerak: Elena arriskuan

A aukeraren araberako istorioa

B aukeraren araberako istorioa

Galdutakoak

Musu goxoa sentitu nuen ezpain haragitsuek nireak ukitu zituztenean. Aldi berean marrubi zaporea eta bainila usaina nabartu nituen. Nitaz kontzientzia berezia izan arren, bikoiztuta sentitzen ari nintzen. Arraroa zen: ni ez nintzen ni eta ni baino gehiago nintzen; ni eta dena momentu berean. Kandelen argitan larru gorri-hori beroek ukitu zuten elkar. Haize leunak dardarazten zituen kandelen sugar goxoak, kanpai batzuen danbateko luzeak giroa sorgintzen zuen bitartean. Danbek belarri barnetik oihartzun egiten zuten. Pixkana, gero eta nabarmenagoak izanda, intentsuago sentitu nituen, desatsegin bihurtzeraino.

Bat-batean, min sarkor batek zeharkatu zidan burua, burdin gori-gori batek zulatu izan balu bezala. Begiak irekitzen saiatu nintzen. Argitasun itsugarriak mindu ninduen, artean nitaz erabat jakitun izan ez arren. Burura eraman nuen eskua. Kontuz ukitu nuenean, minak jauzi bat egin zuen eta desagertu bezain laster plazer bihurtu zen. Hodei batean banintz bezala, argitasunera zuzendu nintzen eta ezinezkoa gertatu zitzaidan eskua gehiago luzatzea. Bestearekin egiten saiatu nintzen.

Erabat kontziente, minak gidatuta, librea nuen eskua burura eraman nuen. Ez nintzen gehiegi harritu bendatuta neukala konturatzean. Ziurrenez, durbante itxura izango zuen. Kaskezurrean ikaragarriko kolpea edo jaso omen nuen. Nola, ordea, ez nekien. Ez nuen istripurik ezta ebakuntzarik oroitzen. Ez gogoratzeagatik ez nekien nor nintzen.

Gela ez zen oso handia. Ohetik, ia-ia eskuineko horma osoa betetzen zuen leiho zabalak. Hutsik zegoen beste oheak eta sabai zabalak nire ikusmira bete zuten. Atzealdera begiratu nuen: ohe ondoan mahaitxo altu-estuan pakete batzuk eta besoan iltzatuta, amaiera zuten goteroen plastikozko tutu gardenak ikusi nituen. Atea itxita zegoen. Kanpotik jendearen joan-etorriak eta solasen oihartzunak heltzen ziren. Usain kitzikagarria sudurrean, aseptikoa ere bai. Garbi zegoen erietxe bateko gela zela, baina... Baina ez nekien zer gertatu zitzaidan. Orduan, erizain gazte bat sartu zen goteroen mailak begiratzeraz.

–Hara! Lotia esnatu zaigu! Nola zaude? Minik sentitzen al duzu? –ez nuen txintik ere esan. Ez nuen berehalakoan erantzuten asmatu. Ahoa lehor neukan.

–Min handia dut, bai. Zer gertatu zait?

–Duela lau egun ekarri zintuzten. Ordutik koman egon zara, konortea galduta.

–Oroitzen al duzu zerbait? Nola hartu zenuen kolpe ikaragarri hori? –galdetu zidan.

–Ez dakit, ba! Ez dut ezertxo ere gogoratzen. Nor naizen ere ez dakit.

–Lasai! Kolpe handia duzu buruan. Normala da ez gogoratzea. Sendagileari deitu behar diot. –Goteroari lotutako poltsak begiratu eta maneiatu zituen. Joan behar zuenean bere laguntza eskaini zidan.

–Lore nauzu. Zerbait behar baduzu sakatu mahaitxoaren ondoko botoi gorria. –Ateratzean, erizain batek galdetu zion Loreri nor zen gelan zegoena.

–Oroimena galdu duen gizon bat –erantzun zion honek.

–Beste gizon ahanzkor bat –aipatu zuen txantxetan besteak. Horra nor nintzen ni! Oroimengabe bat nintzen.

Sendagile talde bat agertu zen. Berriro galdetu zidaten zerbait oroitzen ote nuen. Alferrik. Buruko kolpe eta zauriak miatu ondoren, zera esan zidaten: ongi sendatzen ari zirela eta eskanerrek erakusten zuten buru-hezurraren barneko kolpearen ondorioak desagertzen ari zirela. Zirudienez geratu zitzaidan ondoriorik txarrena oroimen falta zen, behin behinekoa izan ala betikoa. Handik gutxira komunera joaten lagundu zidaten eta lasaitua hartu nuen. Ispiluan, hogeita hamabost bat urteko gizon altu eta beltzaran bat ikusi nuen, egunetako bizarra zuena. Gotoeroak kendu zizkidaten eta botikak agindu, mina kentzekoak izango zirenak.

Eguerdia zen eta zerbait ekarri zidaten jateko: salda, Jogurta eta fruta bat. Ordura arte ez nuen goserik sentitu. Hala ere, behin jaten hasi ezker, gustura hartu nituen jakiak. Hala ere, urduri nengoen. Lore agertu zen ea ongi nengoen segurtatzeko. Buruko min sarkorragatik izan ez balitz ongi egongo nintzen. Botikak harrarazi zizkidan eta ni lasaitzea lortu zuen erizain atseginak.

Jende arrotzarekin egin nuen amets, urruneko herrialdeetakoak zirenak. Lotan geratu omen nintzen. Konturatzerako, gizon batzuk sartu ziren gelan. Poliziak zirela zioten. Beraien izenak eman zituzten eta galdetzen hasi zitzaizkidan. Manuel izenaz aurkeztu zena hasi zen itaunketa egiten.

–Ezer gogoratzen al duzu?

–Ez. Konortea galdu aurreko ezer ez dut gogoratzen. –Gizonak atsekabea adierazi zuen. Begiratzen zidan moduatik ni erruduna nintzela edo nahita isildu nahi nuela pentsatzen zuen. Nik saiakera eginda ere, ez nuen ezer gogoratzen.

–Sentitzen dut, baina ez dakit nor naizen eta zer egiten nuen. Ez al nuen dokumentaziorik edota inork ez al zizuen nitaz ezer aipatu?

–Ez. Udaltzainei deitu zietenek aipatu zuten zu atari batean bakarrik eta buruan kolpatuta topatu zintuztela eta ez zenuen ezer aldean. Desagertutako gizonen artean ez dago zu bezalako gizonik. Zure ahoskera eta hizkeraz ingurukoa zara, baina ez dugu ezer topatu –lehenengoz hasi nintzen benetan kezkatzen.

–Eta oroimena berreskuratzen ez badut, zer gertatuko zait?

–Ez dakigu. Zerbitzu sozialekoek esango dizute zer egin. Zurekin harremanetan jarraituko dugu. Orain utzi behar zaitugu.

Han utzi ninduten bakarrik. Arratsaldean eta gauean noizean behin agertzen zen erizain bat edo beste zaintzak egiteko, askari-afariak edota botikak emateko. Bendarik gabeko argazki batzuk ere egin zizkidaten. Lorek arratsean agurtu ninduen txanda bukatu zuenean. Dena den, bere jarrera eta izaeragatik asko lagundu zidan.

–Lasai, Juan. Ongi ari zara sendatzen eta oroimena berreskuratu ala ez, bihar edo etzi zerbitzu sozialak laguntzera agertuko dira. –Juan? Harrituta nengoen eta horrela deitzeko arrazoiaz galdetu nion.

–Donibane bezperan gauerdia pasa topatu zintuztenez, izen horrekin bataiatu zaituzte eta gainera, Martin Azpilkueta kalean izan zenez, abizen horiek jarri dizkizute. Beraz, Juan Martin Azpilkueta deitu dizute, izen bat eman behar zizutelako. Anima zaitetz lagun. Orain joan behar dut. Ikusiko zaitut bihar.

–Bai. Bihar arte eta milesker.

Gaua ongi pasa nuen, ezertaz konturatu gabe. Goizean, minez esnatu nintzen. Denbora pasatu zen eta botikek beren eragina egin zuten. Komunean garbituak egin eta gosalduek ondoren hobeki sentitu nintzen. Erizainek eta laguntzaileek zainketak egin zituzten eta Lorek berak adierazi zidan oso ongi ikusten ninduela. Bendak betiko kendu zizkidaten.

–Juanito, azken proben emaitzak heldu dira eta kolpearen ondorioak ez dira kezkatzeko. Zure kaskezurraren barneko zauria sendatzen ari da. Proba batzuk egingo dizkizute eta ongi zaudela erabakitz gero, bihar edo etzi alta emango dizute. Zu nola zaude? Zerbait gogoratzen al duzu? –galderak gogogabetu ninduen neurri batean, nire egoera tamalgarria agerian uzten baitzuen.

–Ez. Esnatu naizenetik zerbait gogoratzen saiatu naiz eta ez dut ezer lortu.

–Ez itsutu eta obsesionatu oroimen faltagatik. Hiltzetik libratu eta onik atera zara. Agian ez duzu ezer oroituko, baina oraindik gaztea zara eta bizitza oso bat duzu aurrean –hura entzuteak arrazoia zuela pentsarazi zidan.

–Arrazoi duzu. Milesker lagundu eta animatzeagatik.

–Hara, hara! Lasai lagun, bizitza edonola ere gogorra da. Momentu zailak ere pasatuko dituzula gogoratu behar dizut.

Erizain hark ongi zaintzeaz gainera, maitagarri batek bezala, bazekien arrazoia, gogoa eta animoak berpizten. Handik gutxira, psikologoa eta ospitaleko gizarte zerbitzuko langilea agertu ziren. Eduardo izeneko psikologoak galderen bidez ezer ez nuela gogoratzen jakin zuen. Ondoren ongi nengoen ala ez egiaztatu zuen. Maikak, zerbitzu sozialetako emakume gazte batek galdetu zidan alta emanez gero pisu batean bizitzeko prest ote nengoen. Ni prest nintzen, nahiz eta Lore bistatik galtzea ez gustatu. Dokumenturik gabe nengoen eta poliziaren paper batzuk eskuratu bitartean erietxean geratu behar nuen. Maikak azaldu zidan denbora batez pisu batean bizitzen jarriko nindutela. Betebehar batzuk izango nituen eta egunero tutore batek egiaztatuko zuen ni ongi nengoela. Garbi utzi zuen bere ikuspuntutik zein zen nire egoera eta zer espero ahal nuen ondorengo egun edo asteetan:

–Hala eta guztiz ere, libre ibili ahalko zara urrutiratzen ez bazara. Ezin zara Iruñetik atera eta prest egon behar duzu poliziarengana astean behin joateko. Denbora batez gurekin egongo zara, zure bizitza berreskuratu arte edo berri bat egiteko prest izan arte. Ahoskeraz eta hizkeraz ez zara atzerritarra eta

zutaz jakingo dugu laster batean. Bestalde ere, poliziak esan digu zu bezalako gizonik ez dela desagertu, ez azken egunetan behintzat. Beraz, lasai hartu eta presta zaitetz gurekin denboraldi batean egoteko.

Bazkari legea egin nuen. Handik gutxira poliziek dokumentu bat eta medikuek alta eman zizkidaten. Txukundu ondoren, arropak jantzi nituen eta erizaintzatik pasa nintzen agurtzeko. Lorek irribarrez agurtu zidan.

–Ongi ibili Juantxo. Hoberena opa dizut –esan zidan euskaraz. Hizkuntza ez zitzaidan arrotza egin. Orduan konturatu nintzen eta baita besteak ere hizkuntza ulertu egiten nuela. Gehiago kostatu zitzaidan erantzutea, saiatu arren. Horrek adierazten zuen ni ere euskalduna nintzela, nahiz eta asko ez erabili.

–“Eskerrik asko... Berdin...!”

Maikak harrera-etxera eraman ninduen. Oliva monasterio etorbidean zuten pisua, Donibane auzoan eta konorterik gabe topatu ninduten Martin Azpilkueta kaletik hurbil. Arratsaldea zen eta ez zen inor pisuan. Denak kalean ziren derrigorrezkoa zen bezala. Goizean ere atera behar zuten eta pisuan egon behar zuten gaueko bederatzietatik goiza arte eta otorduetarako.

Pisuak hiru logela zituen, haietako bakoitzak armairu bat eta bi ohe zituenak; sukalde handia, egongela eta bi komuna, bat handia eta bestea txikia. Balkoi txikia zuten eta sukalde ondoan, patiora jotzen zuen galeria ere, arropak lehortzeko erabiltzen zutena. Nire gelakidearekin konpartitu behar nuen gela ez zen handiegia. Gelan justu sartzen ziren bi ohe estuak eta armairua, baina gortina irekiz gero kaleko bizitza ikusi ahal zen. Maikak nire ohea seinalatu zidan eta armairuaren nire erdian eman zizkidaten arropa gutxi haiek utzi ahal izan nituen, baita eskuoihala eta nezeserra ere. Maikak azaldu zidan nire gelakidea Alain zela, Frantziarra eta drogazale izandakoa.

–Gizonak aspaldian utzi du droga eta pertsona ona da, burugogorra bada ere. Ongi ezagutuko duzu, berak beti norbaitekin atera behar duelako eta hori izango da zure betebeharrerako bat, bera laguntzea kanpora ateratzen denean. –Larritu nintzen hura entzutean eta ihesbidea bilatu nuen.

–Bera gabe, ez al dut ibiltzeko aukerarik izango?

–Bai, beste batekin egoten denean.

Maika edo beste laguntzaile sozial bat pasatuko zen noizean behin eta Boni izeneko emakume bat agertuko zen egunero itzuli bat egiteko. Ez zen garbitzailea, guk egin behar baikenuen garbiketara, baina berak zeukan dirua erosketak egiteko eta segurtatzen zuen pisua bizitzeko moduan zegoela. Maika edo beste laguntzaile bat edozein momentutan ager zitezkeen, nahiz eta normalean asteen bitan baino ez agertu. Harrigarriki, emakumeak hamar euro eman zizkidan, badaezpadako paga bat bezala, baita hiriko plano bat ere bai. Ondoren nire betebeharrak adierazi zizkidan. Denok denetatik egin behar genuen lan-plagintza batean. Dena den, babestutako batzuk ez ziren gauza edo gaizki egiten zituzten lanak eta horregatik garbiketarako txandaka egin behar genituen eta nik hasteko Alaineekin egon behar nuen. Horretaz gain, bazkariak eta afariak prestatzea egokituko zitzaidan.

Hozkailuan ez zegoen gauza handirik, baina bai dozena bat arrautza, gaztatxoak eta esnea. Armairuetan galletak, kakao-boteak, sardina-lata batzuk, arroza eta tomate frijitu bote batzuk. Saski batean frutak zeuden eta telazko poltsa batean ogia. Artean, goiz zen, baina afaltzeko aski zegoela pentsatu nuen. Maika eta biok inguruan itzuli bat egin genuen. Planoan hurbileko kaleak, dendak eta parkeen kokapena eta norabideak egiaztatu genituen. Parke batean egon ginen, pisukideen gorabeherak azaltzen zizkidan bitartean.

Alain, nire gelakideaz gain, beste lau pisukide zeuden. Mamadou eta Bakary, Senegal eta Maliko bi subsahariar ziren, lan-istripu batean zaurituta eta kale gorrian utzita. Beraien herrikideek ezin zituzten lagundu eta han, babes-pisuan biziko ziren denbora labur batez. Eulogio, zahar alkoholiko eta gaixo bat zen eta Atanase buruko gaixotasunen bat zuen atzerritar bat zen. Baztertutako jendea zen.

Gustura egon nintzen Maikarekin. Emakume atsegina zen eta hurbil sentitu nuen, laguntzeko prest. Berandutzen ari zenez pisura itzuli ginen. Giltzak eman zizkidan eta afariarekin lagundu zidan, pisukideak agertu eta aurkeztuko zizkidan arte. Arroz Kubako erara edo antzekoa prestatu behar genuen. Arroza eta arrautzak egosten jarri genituen eta tomatea frijitzen. Arrautzak egosi genituen oliorik gelditzen ez zelako. Bigarrenerako sardina lata handia irekiko genuen. Arrautzak zuritutakoan dena prest zegoen.

Bederatzietan, puntualki agertu ziren pisukideak, atarian elkartu izan balira bezala. Maikak aurkezpenak egin zituen eta joan zen. Alain begira geratu zitzaidan, baina Eulogiok eta Atanasek agurtu ninduten eta bi beltzek eskua luzatu zidaten, irribarre eginez. Afaldu egin genuen. Gehienetan frantsesez egiten zuten afrikarrek; Alaine, Eulogiok, Atanasek eta laurok gaztelaniaz egiten genuen bitartean. Eulogiok han egoteko arrazoiaz galdetu zidan eta nik kontatu nion. Gizonak animoak eman zizkidan eta besteek oihartzun egin zioten, baita Alaine ere. Ondoren, Atanasek harrikoa egin zuen eta telebistan film bat ikusi genuen. Hurrengo eguna arte agurtu genuen elkar eta lotara joan ginen. Alain oheratu eta lotan geratu zen berehala.

Ekainaren 24an, ostiralean, buruan kolpatuta topatu ninduten eta sei egun pasata, ekainaren 30a zen, osteguna. Ongi egin nuen lo. Goizean garbituak egin eta gosalduta egin genuen, bakoitza bere martxan ibiliz. Nik oso goiz gosalduta nuen Mamadou eta Bakaryekin. Biak oso atseginak ziren. Eraikin batean istripua izan zuten pisu handiko zerbait gainera erori zitzairenean, bati hanka eta besoa besteari hautsi zitzaizkien. Bien artean nola edo hala garbiketa orokorra egiten hasi ziren. Beste pisukideak beranduxeago mugitu ziren eta gosalduta ondoren Alain gelara itzuli zen goizeko paseora atera arte.

Boni agertu zenean hozkailu eta armairuetan begiratu bat egin ondoren zerrenda egin genuen elkarrekin. Gero, erosketak egitera joan ginen. Lixiba, azaloreak, patatak, oilasko bat, entsalada egiteko barazkiak, dilistak, olioak, ozpina, eta amuarrain batzuk erosi genituen. Elikagaien bankutik gauza batzuk ekarriko zizkiguten, garbiketa pertsonalerako produktuak eta esne botila batzuk, besteak beste.

Hamarretan denak atera ginen kalera, eguerdira arte. Binaka banatu ginen, afrikarrak batetik, Eulogio eta Atanase bestetik eta Alain eta biok hiri erdigunera abiatu ginen. Alaine berrogei bat urte zituen. Gizona altua, meharra, eta ilez eta larruz gorritzat zen. Sudur eta kokots luze-zorrotzak zituen, belarriak handiak. Aho mehe-zabala eta bekain gorri-ilun haien azpian begi urdin argi handiek haserrea

adierazten zuten. Alainek bere bizitzaz zerbait kontatu zidan. Baiona ondoko herri batekoa zen eta harro zegoen droga utzi izanaz, sei hilabetetan probatu gabe baitzebilen. Iruñean azkeneko urtean ibili zen eta zerbitzu sozialen laguntza jaso zuen azken hiru hilabeteetan, desintoxikazio etxetik atera ondoren.

Hiri-erdigunera joan ginen isilik. Etxe-sail handi batera helduta, planoan Edificio Singular jartzen zuela egiaztatu nuen. Plano turistiko hartan eraikin batzuk nabarmentzen ziren eta Alde Zaharrea sartu ginen parkea saihestuz. Kaleetan jendetza zebilen eta entzun nuenez Sanfermin aurreko giroa festaren aurrekari bat zen. Eguraldi ederra genuen.

Kale haietatik ibili ginen isilik eta noraezean. Redin inguru politean izan ginen eta jarraitu baino lehen Gaztelu Plazan deitutakoan eseri ginen banku batean. Alain erdi lo geratu zen ia bi orduz. Nik, jendeari begira nengoela, ikusten nuenak nitaz zer adierazten zuen galdetzen nion neure buruari. Jendea mota guztietakoa zen. Baziren zaharrak eta gazteagoak; lasai eta presaka zebiltzanak; Poza edota kezka adierazten zutenak. Batzuek esaten zutenagatik, eztabaidan ala txantxetan ari zirela pentsatu nuen. Bat-batean Alainek hipokritak eta gezurtiak zirela aipatu zuen. Azaldu zuen gauza batzuek esan eta beste batzuk desberdinak egiten zituztela. Bere esperientzia halakoxea izan omen zen, lagunak uste zituenak ez baitziren hain lagunak. Iruñekoaz ari ote zen galdetzean, guztiez esaten ari zela erantzun zidan zakar, berriro isildu baino lehen. Nik bazkaria egin behar nuenez, pisura itzuli ginen. Alain gelara sartu zenean nik oilasko puskek frijitu eta entsalada prest utzi nuen garbituta, ordu bietan denak agertu arte.

Arratsaldean, lo-kuluxka egin ondoren, berriro atera ginen paseatzera, orduan Sanduzelai eta Arga errekaraino eta itzuleran Ermitagaña eta Yamaguchi parkeetan geldialdiak egin genituen. Azken honetan, bizitokitik hurbil, pisukideekin topatu ginen. Itzal batean, banku batean ziren pisukideak, ondoko bankuko emakume batzuekin hizketan edo.

Gure zaharra, Eulogio, ez dakit noren aurka ari zen oihuka eta haserre. Edanda zegoen. Atanase esaten ari zen Eulogio une batean lasterka joan zitziola eta konturatzerako kopa pare bat edanda zegoela. Eulogiok zioen tabernariak hiru euroengatik hiru kopa agindu zitziola eta azken kopa ez ziola jarri. Beste taldeko emakume batek lasaitu nahi zuen. Eskuetatik hartuz goxo hitz egiten zion. Alainek esan zidan emakume hura Eva zela, gurearen ondoko beste harrera-etxe batekoa. Nire adinekoa zen Eva, erakargarria eta atsegina. Ezagutzeko gogo sortu zitzaidan. Beste pisu batean errekurtsorik gabeko eta gehienetan bortizkeriagatik babesa behar zuten emakume batzuk omen ziren.

Nik afaria prestatu behar nuen eta Alainek joan nintzen pisura. Ez nekien zergatik baina gogoz geratu nintzen Eva ezagutzeko. Ziur asko ordura arte ezer eta inorekin harreman librerik izan ez nuenez, berez erakartzen edo interesatzen zitzaidan jendearekin izan nahi nuen harremana. Nire izaera eta bizitzaz jakiteko beste zentzu bat topatu nuen. Zein interes, zaletasun eta izaera ote nituen?

Barazkiak zuritu, garbitu eta egosten jarri nituen. Alainek ez zuen ezertan lagundu, gaizki sentitzen zelako aitzakian. Amuarrainak frijitu nituenerako han ziren pisukideak, gosetuta nonbait. Alain gaizki zegoen eta ia ezer afaldu gabe sartu zen gelara. Afalondoan galdetu egin nion Atanaseri Eulogioz, zernolako ohiturak zituen. Gizon hark buruko arazoak izateaz aparte, onkotea eta lasaia zen eta bazekien zertan zen. Berak zioenez Eulogio ez zen problematikoa. Noizean behin nahi edo nahiez edateko premia

handia zuen eta ez zen horretan geldituko zuenik. Bestela ere, aski zuen kopa pare batekin bi egunetan behin.

Lotara joan nintzenean, pentsatzen geratu nintzen. Harrigarria zen oroimenenik ez izatea, nik bezala oroimena galdu zuen batentzat, behinik behin. Txikitako oroitzapenik ez nuen. Ez nituen ez nirea ezta inoren izenik gogoratzen, lankide, familiakoenak edo lagunak. Ikasketak, ibilitako lekuak eta egindako lanak ez nituen gogoan. Dena den, nolabaiteko oroimenik banuen. Izan..., banuen. Zeren eta hizkuntzak, ezagutza praktiko asko, janaria prestatzea adibidez; jendearekin tratuan aritzeko ohitura eta abar luzea bainuen... Bizitzan aritzeko ez nuen arazorik, ez gehiegi behintzat.

Hurrengo egunean Alain gaizki zegoen. Gibela gaizki omen zeukan eta abisuak eman ondoren sendagile baten zain geratu zen pisuan. Bonirekin erosketak egin ondoren atera nintzen kalera. Mamadou eta Bakaryekin hitz egin nuen atarian. Kontatu egin zidaten aste gutxitan berriro kalean eta lanean izango zirela. Harreman ona egin genuenez emakumeen pisuaz galdetu nien. Bakaryk irribarrez erantzun zidan.

–Batzuk oso ederrak dira ezta? Ba, ez espero haiekin laguntasunik lortzea. Oso erreta daude gizonekin!
–nire jarrera eta galderaren zentzua argitu nien.

–Ez. Ez da ligatzeko. Atzo nabaritu nuen oso elkartuta zeudela. Garbi daude pisuan egoteko gure arrazoiak. Beraienak zein dira? –Mamadouk erantzun zidan.

–Gureak bezalakoak askotan, errekurtsorik gabeak dira.. Baina gehienetan bortizkeria-tratuen ondorioz daude horrela. Ondoko atarian bi pisutan daude.

–Eskerrik asko erantzuteagatik, Mama...

–Niri Madou deitu eta honi Kary.

–Niri... Badakizue ez dakidala nor naizen, baina Juan deitu.

Hiriaren erdigunera abiatu nintzen, bakarrik ibiltzearen askatasunaz gozatuz. Eguraldia zoragarri zegoen. Hamarrak izateko ez zuen gehiegi berotzen eta gustura ibiltzen ahal zen goizeko freskura dastatuz. Kaleak zabalak eta txukunak ziren. Inguru haietan itxura desberdinetako eraikin altuak zeuden, hamar bat solairutakoak gehienak. Eraikin artean plazatxoak zeuden eta plazetan eta bide ondoan zuhaitz ederrak. Auto zirkulazioa ez zen gehiegizkoa eta arazorik gabe ibiltzen ziren oinezkoak semaforoak errespetatuz. Mediana batzuetan eta errotonda erdietan, berdeguneak zeuden eta ongi antolatu eta diseinatutako landare loreak ikusten ziren. Tabernek terrazak zituzten arren, jendea pasatzeko beharrezko lekua uzten zuten. Espaloien ondoan autoak aparkatuta eta tarteka zabor eta birziklagaien edukiontziak izaten ziren. Kaleko leku pare batean linea desberdinetako bus geltokiak zeuden, hiri sare zabala osatuz.

Etorbideetatik jarraituz erdigunera heldu nintzen. Pisutik hamar bat minutura, erdialdean, gaztelu itxurazko hura zegoen. Planoan begiratuta gogoratu nuen Gotorleku edo Ziadela deitzen zutela eta bertan parke bat izateaz gainera arte-erakusketak antolatzen zirela. Beste baterako utzi nuen bisita. Aurre-aurrean, beste gotorleku garaikide bat zegoen, harri beltzez egina, Baluarte deitua eta balio

anitzetarako aretoa omen zena. Aurrera jarraituta, bi gune desberdin zeuden maparen arabera: hiriko zabalgunek kale zuzen eta zabalekin eta Alde Zaharra. Urbanismo garbia zen hura. Zabalgunek utzita, etxe zahar eta kale estuetatik ehunka urte zituen erdigunera sartu nintzen.

Hiri zaharra berezia zen. Oinezkoentzako kaleak ziren gehienak, gainerakoetan auto zirkulazioa ongi antolatuta izanda. Kaleak estuak ziren, bost-sei metrokoak. Beheko solairuetan, mota guztietako dendak, tailerrak, baina gehienetan aisialdirako tabernak eta elkarte asko ikusten ziren; goikoetan, ordea, pisu estu eta luzeetan lau-bost solairu kontu zitezkeen. Kanpoaldean, leiho eta balkoi txiki txukunetan, landare berdeen ondoan gorri gama guztiko eta zuri koloreko lore lerroak ziren nagusi. Alde berri eta zaharraren artean Sarasate pasealekua zegoen, bi guneen ardatz. Lorategi eta bankuen artean ibili nintzen, tonbola handi batera heldu arte. Jostailu, etxetresna eta mota guztietako sariak apaletan lerratzen ziren. Jendetza ari zen boletoa erosten eta sariak jasotzen. Atzean Foru-monumentua deitua ageri zen polit eta lirain inguru apain batean. Haruntzago, Foru-Diputazioa eta hiriko egongela bezala ezaguna zen Gaztelu Enparantza topatu nituen. Aurreko egunean bisitatutako enparantza zen hura, hiriko plazarik ezagunena eta txukun-politena.

Jauregi neoklasikotik, lehengo Foru-Diputazioa oraingo Nafarroako Gobernuaren egoitza nagusitik, Carlos III etorbide zabal dotorea, hau ere oinezkoentzako etorbidea, alde berrira barneratzen zen, hiriko denda-erakusleihoa izaki. Gaztelu Enparantzara itzuli eta Estafeta kale famatua ikuskatu nuen. Jende-piloa zegoen kalea animatuz. Taberna kanpoaldeetan upel handi eta banketetan, lagun kuadrillek edariak gertu, hizketan eta umore onez kale erdiko pasabide estuegi bat uzten zuten. Kale famatutik jarraitu nuen Merkaderes eta Udal plazaraino. Bisitari mordo bat zebilen, eguerdia eta momenturik jendetsuena izan gabe. Lasaitasun pixka bat bilatu nuen. Kale lasaixeago batean sartu nintzenean, zerbait hartzeko gogo sortu zitzaidan.

Taberna batean kafe bat eskatu nuen. Nire jarreragatik kanpotarra nintzela igarri zuen gizon batek galdetu zidan festetara agertu nintzen. Nik esan nion ezagun baten etxean nengoela, baina bakarrik nengoela. Bere burua aurkeztu zidan. Valentin Sarasa, jubilatua eta Iruñarra zen. Hiriaz eta jendeaz aritu zitzaidan, baita historiaz ere. Nafarroa aspaldiko erresuma zen eta Espainian egonda ere, foruak zituen, gaur egunean autonomia ekonomiko handia mantenduz. Nik pertsona batzuk euskaraz mintzatzen entzun nituen horretaz galdetu nion gizontxoari.

–Barkatu, baina ez al da hau Euskadi? Nik euskaraz entzun ditut kuadrilla eta lagun batzuk. Egunkarietan ere euskaltasuna aldarrikatzen da eta gobernua horren alde dagoela dirudi. Ez ditut arazoak ulertzen, baina... –orduan eten zidan jarduna.

–Hori ez da horrela. Nafarroako zonalde batean euskaraz egiten da, baina hau ez da Euskadi. Nafarroa berezko autonomia erkidegoa da eta gehienok horrela jarraitu nahi dugu, Euskadin sartu gabe. Hau ez da Euskal Herria, Espainia baizik. Probarik onena ni neu naiz.

–Zergatik diozu zu zeu zarela probarik onena? Ez dut ulertzen.

–Begira... Nire gurasoak mendialdekoak ziren, euskaldunak eta beraien artean bascuencez egiten bazuten ere, pentsatzen zuten lanerako eta bizitzarako gaztelaniaz egin behar zutela. Euskara horrekin milaka batzuekin baino ezin da harremanik izan; espainieraz ehunka milioiekin egin daitekeen bitartean.

Batzuek hizkuntza zaharrear egin nahi badute ongi dago. Nik neuk zerbait ulertzen dut. Hala ere, gauza bat da ohitura batzuk mantentzea eta beste gauza desberdin bat Euskadi batean mundutik apartatu nahi izatea. Gu Espainian ongi gaude, Nafarroa zaharrear eta autonomiarik handienean.

–Nola daude nazionalistak Nafarroako gobernuan? –izan zen nire galdera. Egin orduko damutu nintzen, ez ote zen erantzun luzeegia eta aldrebestua izango!

–Begira gaztea, nazionalistak ez dira herena baizik, baina ezkertiarrek lagundu diete eta badirudi gehiago direla. Ez dago dudarik, eta edonon aurki ditzakezu inkesten frogak, nafar gehienok gure autonomian eta Espainian jarraitu nahi dugula.

–Milesker erantzuteagatik.

Kontaketa astunetik libratu nahi nuen. Eskua eskaini eta beso osoa eramateko arrisku bizioan izan nintzen. Ondoko beste gizon bat, adin bertsukoa eta ziur asko haren ezaguna zena tartekatu zen solasean erretolika luzatuz.

–Barkatu, baina ezin naiz isilik geratu. Mariano naiz eta entzun dut dena. Ez egin kasu handirik Valentini. Berak horrela pentsatzen du, baina denok ez dugu berdin pentsatzen. Gure artean euskaltzale asko dago. Iruditu zait hemengo jendeaz eta hiriaz interesatzen ari zinela. Jakingo duzu Sanferminetako festa hemendik egun gutxitara izango direla. Sanferminak festa herrikoiak dira. Jende asko etortzen da kanpotik, baina hemengook, zahar, heldu, gazte eta umeez kalean bizi ditugu. Adin guztietako kuadrillek eta peñek parte hartze handia dute hainbat eginkizunetan. –Interes gehiago nuen festa giroan. Jendeak zer egiten zuen galdetu nion.

–Dantza, musika eta kantuek dira gazte kuadrillen ekintzak, edatea eta jatearekin batera, besteekin ongi pasatzea. Hala ere, badakizu zer?

–Zer?

–Zaharrekin horretaz hizketan baino hobe zaudela karrketan festa nolakoa izango den ikusten eta bizitzen. Gaur “Peñen Eguna” da eta zoaz libertitzera, gazte! –Agurtu ondoren, hala egin nuen. Uztailaren 2a zen, larunbata.

Sanfermin giroa zen nagusi kaleetan. Kafea hartutako tabernatik kale batera, San Nikolas plazan hain zuzen, bi peñek zabaldu zituzten beraien pankartak plazako muturretan. Musika-bandek aire desberdinak jotzen zituzten, zuriz jantzitako gazteek kantuan eta dantzan jarraitzen zuten bitartean. Pankartetan, politikoen ustelkeria eta bertako alderdi politikoen arteko borrorak adierazten ziren, besteak beste, boterean aurreko alderdiko espainiartasuna eta orduko “Aldaketa” deitutako berrien garbizaletasuna. Musika alaia zen. Hogeita bat musikariz osatutako fanfarreek kalejirak jo zituzten martxan ziren bitartean. Hala ere, plazara helduta, trago bat edateko atseden txiki bat egin zuten. Musika-taldeak Danubio urdina baltsa jo zuen bikoteen pozerako. Bikote asko mistoak ziren, beste batzuk neskez edo mutilez osatuta izanik. Beti ez, baina askotan mutilez osatuta zeuden kuadrilla batzuk, lerroka beso batekin sorbaldeetatik hartuta eta beste eskutik plastikozko edalontziak zituztelarik, kulunkatzen ari ziren musikaren erritmoan. Danborren eta txunden gainetik klarineteak, tronpeta,

trobon eta saxoen soinuak ongi heltzen ziren. Musika modernoa ere jo zuten ondoren. Orleanseko doinu batzuen ondoren, Rockeko pieza ezagun batzuk jo zituzten, maisutasunez. Hiri zaharrea zehar beste peña batzuk eta txarangak aurkitu nituen. Jendeak betetzen zituen kaleak, batzuk erosketetan ibiliz, gehienak denbora pasan giroaz gozatuz. Inoiz gutxitan ikusten zen horrelako festa-girorik. Benetan jai herrikoiak Iruñean ospatzen zirenak! Kaleak bizitasunez beterik ziren, lekuak, dendak eta tabernak gainezka. Esan zidaten bezala, edonon musika, dantza eta kantua ziren nagusi.

Harrigarriena izan zen kale nagusian bertan, festaren erdian, erakusleiho baten atzean hutsik zegoen liburu-denda bat ikustea. Sartzera nindoanean konturatu nintzen liburuez gain leku hura taberna-jatetxea ere bazela. Taberna aldeko jendea eta giroa gaintu eta liburu-denda aldera sartu nintzen. Liburuen gaiak anitzak ziren, baina literatura, saiakera eta gizarte-gaiak ziren nagusi. Guneari kartelek eta errotulazioek kutsu ezkertiar eta alternatiboa ematen zioten. Liburu batzuk hartu eta begiratu nituen. Bertako langile batek esan zidan giro zaratsutik isolatu eta zerbait irakurri nahi banuen, ondoko aretora eramateko eta lasai irakurtzeko. Mahai batean gainbegiratu nituen liburuok. Kazetaritza eta herrialde desberdinetako egoera sozioekonomikoko gaietan nire interesa kontuan izanda, ni kazetaria izango ote nintzen galdetu nion neure buruari. Konturatu nintzen berandu zela, bazkaria prestatzera joan behar bainuen.

la ordu biak ziren eta entsalada atontzea falta zitzaidan. Platerak eta zerbitzua jartzen ari nintzelarik, telefonoak jo zuen. Maika zen. Gehiegi luzatu gabe nire oroimenaz galdetu zidan. Egia esan nion. Ez nuen ezer gogoratzen. Jarraian, Alain sendatu bitartean Eulogio eta Atanaserekin ateratzeko eskatu zidan. Ez omen zen ona bakarrik ibiltzea.

Pisukideak agertu ziren eta entsaladarekin lagundu ondoren bazkaltzen jarri ziren. Gehienak Iruñeko alde zaharrea ibilia ziren eta festa giroaz eta Sanferminez mintzatu ziren. Kontatu zituzten istorio guztiak berdintsuak ziren. Festan oso gustura ibili ziren edaten eta dantzatzen kanpotar eta bertakoekin.

Arratsaldean, atsedena ondoren Eulogio eta Atanaserekin atera nintzen. Donibane auzotik hiriko zabalgunera joan ginen. Hiriaren txukuntasuna galdu gabe, nabari zen eraikin batzuk zaharragoak zirela. "Damero"-tan, erregularrak eta koadrotan eginak ziren kaleak eta espaloiak ez ziren zabalegiak. Zuhaitzak gehienetan plaza bakanetan topatzen ziren. Eulogiok ezagutzen zituen tabernetara hurbildu ginen. Batean edo bestean gizon kalekumeak, ezagun batzuek ardo batera gonbidatzea lortu zuen. Eulogiok hirurogeita sei urte zituen eta kalean pasatutako hamar bat urteetatik bi edo hiru kale eta taberna haietan pasa zituen. Atanasek berrogeita hamar bat urte zituen eta pastillak behar zituen bere buruko gaixotasuna kontrolatzeko. Bere herrian, Rumanian, ezin zioten tratamendurik eman eta kondenatuta zegoen instituzio batean edo bestean izatera ongi artatua izanez gero.

Aurreko eguneko parkera joan ginen. Yamaguchi leku atsegina zen. Urruneko banku batean emakume batzuk begiztatu genituen. Hurbildu ginenean, beste pisuko emakume-taldekoak zirela konturatu nintzen. Momentu batean gizon gazte astun batzuk haiekin sartzen hasi zirenean uxatu nahi izan zituzten. Defendatzera hurbildu ginelako edo emakumeengatik beraiengatik, gazteak joan ziren ezaxolarena eginez. Hogeitabat urteko beste bi neska gazteen ondoan Eva zegoen. Nire bi pisukideak gazteekin mintzatzen ziren bitartean Evarengana hurbildu nintzen. Ez nekien nola hasi eta emakumeak berak egin zuen bere buruaren aurkezpena.

–Eva naiz, Kolombiakoa. Senarrarekin etorri ginen ezkondu berritan, orain dela zortzi urte. Senarrak askotan lan gutxirekin ibili da eta azken aldian jotzen ninduen. Nik uste dut botatzen nauela umeak ez izatearen errua. Egia esanda... Baina gehiegi hitz egiten ari naiz. Zu nor zara? –Lelotuta geratu nintzen emakumeari begira. Hogeita hamar bat urte zituen eta erdi mulatoa zen, polita eta irribarretsua. Erantzuten saiatu nintzen.

–Barkatu. Ni.. Fernando naiz. Duela egun batzuk buruan kolpatuta topatu ninduten eta oroimena galdu nuen erabat. Lehenengoz gogoratu dut Fernando naizela, baina ez dut gogoratzen ezer gehiagorik. – Evaren irribarrea oso polita zen. Pikardiazko begirada batekin erantzun zidan.

–Nik esan ahal dizut ingurukoa zarela, hemengoa edo hurbileko probintzia batekoa. Duzun azentua baskoa dela esango nuke. –Aipatzen zuena zentzuzkoa zela adierazi nion.

–Bai. Uste dut arrazoi duzula. Ez naiz euskaraz mintzatzen, baina konturatu naiz ulertzen dudala. Ea pixkana oroimena berreskuratzen dudan!

–Ea denok bizitza duina berreskuratzen dugun!

Gustura nengoen lagun berriarekin. Tamalez pisuetara itzuli behar genuen eta hara abiatu ginen. Denon ahotan festak ziren. Dena den, eguneko bizitzaz aparte emakume haiek bestelako historiak bizi izan zituzten. Oso egoera gogorak. Evak kontatu ahal izan zidan beste emakume gazteak ekuatoriarrak zirela eta emakume-salmentatik eta prostituziotik ihesean, pisura azken hilabetean sartu zirela. Evak azkeneko bi hilabeteak pasa zituen haien artean.

Afaldu eta gero telebista ikusten geratzen ginen, baina batzuetan, une aspergarrietan edo iragarkiak bitartean bestelako solasak sortzen ziren. Alainek aprobeztatzen zuen afrikarrekin frantsesez hitz egiteko. Alain frantsesa zen berak esaten zuen bezala. Berez Baiona ingurukoa zen eta beti prest zegoen esateko ez zela ez euskalduna, ezta baskoa ere, gaskoia baizik eta edozeren gainetik frantziarra. Gainera, tematzen zen Nafarroa ez zela Euskal Herria eta gizonak edonor konbentzitu behar zuen. Oraingoan ere antzeko aipamenak egin ondoren, Frantziako leku desberdinei buruz ari ziren mintzatzen bera eta afrikarrak. Zirudienez frantsesa ere ulertzen nuen. Ez nintzen saiatu beraien solasean sartzen, baina ongi jarraitzen nuen haria. Ingelesa ere ezagutzen nuen. Pixkana nire bizitzaz gehiago ezagutuko nuen.

Besteak logeletara mugitu zirenean bi afrikarrekin geratu nintzen. Mamadou eta Bakaryrekin hitz egiteko aukera izan nuen. Beren abenturez eta bizimodu gogorraz mintzatu ziren. Madouk hitz egiten zuen gehien, besteak baieztatu baino ez zuen egiten.

–Kary-k eta biok berdintsu egin genuen etortzeko. Patera batean Ceuta ingurutik Aljecirasera egin nuen ongi ordaindu ondoren. Erdi ezkutuan pasa nuen denboraldi bat. Lana obra desberdinetan egin dut azken hamar urteetan Frantziako leku desberdinetan eta hemen; baina istripua gertatu zenean erietxean artatu ondoren ez nuen non geratu, Bakaryk bezala, eta hona ekarri gintuzten –penaz baino etsipenez esaten zuen gizonak.

–Ez al zenuten dirurik?

–Ez. Dirua etxekoei bidaltzen diegu eta ezin gintuen inork zaindu.

Kontatu zidaten nola bizi izan ziren denbora luzez eta zer nolako egoerak jasan izan zituzten lanean. Ez zuten erraz izan. Lan egin ahal izateko soldata txarrak eta baldintza eskasetan ibili behar izaten zuten.

Hurrengo egunean, uztailak 3a, igandea zen. Alainek gaixo jarraitzen zuenez pisuan geratu zen Alain. Eulogio eta Atanasekin joan nintzen hiriko erdigunera. Aurreko egunean ezagutu nuen taberna-liburudenda itxita zegoen. Alde Zaharrea giro handia eta jende andana zebilen. Ez zen peñen arrastorik, aurreko egunekoa ia festen lagina, erakusgarri izan zelako. Hala ere, baziren ikuskizunak. Musikariak, pailazoak, antzezleak eta txaranga batzuk beren ikuskizuna ematen ari ziren hirian. Gure zaharrak, Eulogiok, beste gizon zahar batek trago batera gonbidatzea lortu zuen arren, Atanasek, guardiako aingerua hark gehiago ez hartzera lerratu zuen eta, gainera, niri pasa zidan garagardo bat. Eguerdian ez nuen pisura joateko beharrik, behingoz bazkaririk prestatu behar ez nuelako.

Egun hartan, Sanfermin festen aurreko igandean, babes-etxeetako eta egoitzetako jendea elkartu egiten zen festa batean. Bazkari berezi bat ospatzen zen Paris 365 jantoki sozialean. Laurogei bat bazkaltiar baino gehiagok, harrera-etxeetakoak gehienak, eta babes-egoitzetako batzuek, babespekoak eta zaindari-arduradunak zirenekin batera, egun berezia antolatzen zuten Sanferminak baino lehenago.

Maikak aurreko egunean azaldu zidanez, Paris 365 egitasmoa elkartasun jantoki bezala ezagutzen zen gehien bat. Hala ere, gizarte elkartasun alderdi asko lantzen zuten. Gizakia Herritar fundazioak proiektu anitz eramaten zuen aurrera, baztertuak integratzeko eta boluntario eta bazkide batzuen bidez antolatzen zituzten ekintza eta proiektu desberdinak.

Eulogio eta Atanaserekin jantokira heldu nintzenean, San Lorenzo karrikan, aurreko txanda bateko otorduko nahasmena jasotzen lagundu genien boluntario batzuei. Handik gutxira, babespeko harrera-pisuetako beste lagun batzuk agertu ziren. Haien artean hobeki egonda, aukera galdu nahi ez zuen Alain eta beste pisukideak. Baina baita Maika, Eva eta beste emakumeak ere. Giroa ezin hobea zen. Aspaldiko lagun asko elkartu zen.

Otordua berezia izan zen, ohikoak baino pixka bat exotikoagoa. Plater goxo desberdinak dastatu ahal izan genituen: zainzuriak, fritoak, entsaladilla, solomo, arrain irin-arrautzeztatuak, frutak, jogurtak, flan eta tarta aukeran. Edateko ez zegoen alkoholezko edaririk, baina freskagarriak eta beste edari goxo batzuk bazeuden. Aukera izan nuen pertsona askorekin hitz egiteko eta haietako batzuk ezagutzeko. Kamila izeneko arduradun batekin mintzatu ahal izan nintzen. Jantoki hari buruz eta zituzten harremanez galdetu nion. Erantzuna uste baino luzeagoa izan zen.

–Gizakia Herritar egitasmokoek elkartasun soziala gauzatzeko ekinbide batzuk dituzte. Udal, gobernu eta ospitaleko zerbitzu sozialekin osatzen dugun sarea... –Bazirudien hitzaldi aspergarri bat hasi behar zuela eta gelditu nahi izan nuen.

–Barkatu baina ez dut propaganda entzun nahi, bakarrik zuen arteko harremana zein den jakin.

–Barkatu. Esan dizudan bezala helburu bereko sarean gaude. Guk, erietxean agertu eta ateratzean oraindik zaintza behar duten eta inolako babesik ez duten pertsonak behin behineko pisuetan artatzen ditugu, zure kasuan bezala.

–Eta Paris 365ean zer egiten dute?

–Egunero hiru otordu eskaintzen dizkiegu ehun pertsonari eta zerbitzu batzuk eskaintzen zaizkie.

–Edonor etortzen ahal da?

–Ez. Larrialdian norbait agertuz gero laguntzen zaio, baina hona etortzen direnak benetan beharrenda dauden ezagunak dira. Otordua, hiru platerekin euroan ematen zaio lagun bakoitzari. –Informazioa eskertu nion. Beste batzuekin hitz egin nuen, baina gehienak harrera pisuetan guk bezala laguntza behar zutenak ziren, gehienak familiarik gabeko baztertuak.

Arratsaldean Evarekin egon ahal izan nintzen. Bazkalondo luzea izan zen eta handik atera ginenerako zazpiak ziren. Egun hartan soberako janaria eraman ahal izan genuen eta baimena genuen hamarrak arte kalean ibiltzeko. Gure pisuetakoak Takonera parketik paseatzen ibili ginen eta Ezkaba mendiaren aldeko ikusmirak gozatzen pasa genituen ordu haiek. Lasai mintzatu nintzaion lagun berriari eta berdin egin zuen berak.

–Juan, edo Fernando... –barre egin zuen joko batean ibili bagina bezala–. Zer moduz zure oroimena?

–Poliki berreskuratzen ari naiz, baina ez uste, oraindik ez dakit nor naizen –Evak sorbaldan jarri zidan eskua.

–Ziur naiz zure bizitza berreskuratuko duzula. Zerbait gehiago jakin al duzu?

–Zeharka eta kasualitatez konturatzen ari naiz atzerrian ibili naizela. Frantsesa eta ingelesa ezagutzen ditut eta ziur asko lana munduan zehar egiten dudala. Horrek azaltzen du inon nire desagerpenaren berri ez izatea. Bestetik, zuk komentatu zenidana ere kontuan izatekoa da. Badirudi ingurukoa naizela, euskara ere ongi ulertzen dudala, baina ez dudala normalean erabiltzen. –Ziur asko etsipenez esaten ari nintzela, zeren eta animoak eman behar zizkidala uste baitzuen.

–Ikusten! Ikusten nola berreskuratzen ari zaren oroimena?

Lagunak, gure pisukideak, handik ez urrun ziren eta ligatzen ari ginela pentsatzean barre egiten zuten. Guk biok bakoitzak ulertzen zuen bestearen egoera eta gustura sentitzen ginen elkarrekin. Lagunak ginen. Handik gutxira pisuetara joan ginen, nor berera. Soberakin goxoak afaldu genituen eta telebista ikusi bitartean eguneko gorabeherak komentatu zituzten pisukideek. Egun berezia eta polita izan zen guztiontzat, festa egun handi bat. Gauean amestu nuen Afrikako herrixketan erreportajeak egiten nituela. Haur alaiz inguratuta, emakume eta gizonei elkarrizketak egiten nizkien. Goseteaz eta laguntza faltaz galdetu egiten nien eta jende beltz irribarretsu haiek ur edangarri eta janaririk ez zutela esaten zidaten.

Hurrengo egunean, astelehenean, Alaineekin goiz-pasa egitera atera nintzenean konbentzitu nuen liburudenda-tabernara joateko. Kafe bat hartzera gonbidatu nuen, nik liburuak aztertzen nituen bitartean. Liburuen artean kazetaritza sozialari buruzko liburuak miatzen aritu nintzen. Senegali buruzko erreportaje eta argazki liburu bat hartu nuen esku artean. Zerbaitengatik egiten zitzaizkidan ezagun herrialdea eta jendea. Kontrazalean ezagun egiten zitzaidan beste baten ondoan nire argazkia ikusi nuen. Nik egindako liburua zen hura. Argazki oinetan ageri ziren egileen izenak: Tomas Blanco Tobar eta Fernando Lopez Txabarri. Horra nor nintzen ni. Erreportari eta kazetari ezagun bat. Liburua hartu nuen eta galdetu nion langileari mesedez eraman nezakeen, dirurik ez nuelako. Laburki kontatu nion oroimena galdu nuela eta liburua behar nuela neure burua ezagutzeko. Gazteak egoera ulertu zuenez, esan zidan liburua ahal nuenean ordainduko nuela.

Liburua eraman nuen beste momentu batean lasai aztertzeke asmoz. Hala ere, Alain konbentzitu nuen parke batera joateko ikustaldi bat bota ahal izateko. Alaine kafearengatik eskertuta edo, ezagutzen ez nuen parke batera eraman ninduen. Redinetik paseo ederrean, inguru eder bat erakutsi zidan. Medialuna beraren gustuko parkea zen. Banku batean eseri ginenean Alain erdi lotan geratu zenez, liburua ikuskatzeko parada probestu nuen. Argazkiei begira egonaldia eta lana gogoratzen hasi nintzen. Ez dena. Ez normalean egiten den bezala, irregularki eta kolpeka baizik, ametsetan bezala. Argazkiko pertsonetako batzuk aurrez aurre ezagutzen eta beren historiak kontatzen ekarri nituen gogora.

Gero eta gehiago oroitzen nuen. Bat-batean gauza asko gogoratu nuen, ez dena hala ere. Kazetari autonomia nintzen, freelance bat. Bilboko nire familia eta lagunekin izan omen nintzen oporretan. Dirudienez Madrilera lanera itzuli baino lehen lagun batekin geratu nintzen Iruñean. Orduantxe ez nekien norekin, ordea.

Pisura bidean Maikari deitu behar nion berarekin mintzatzeko. Pisuko telefonotik ezin genuen kanpora deitu, deiak jasotzeko baitzen soilik. Kabina batetik egin nuen, baina emakumea ez zegoen, zerbitzuko beste batek jaso zuen nire premiazko deia.

Otordua prestatzen ari nintzela jaso nuen Maikaren deia. Dena kontatu nion eta esan zidan berak poliziei jakinarazpena kontatuko ziela. Nortasun agiria lortu behar nuen eta poliziekin azken adierazpenak izan behar nituen, alta eman baino lehen. Zerbitzu sozialetako langile hark hurrengo goizean zehar dena konpondu eta nire bizitza berreskuratzen lagunduko zidan. Jendea agurtzen hasi behar nuen. Alaine zekiena eta azkenekoak kontatu nizkien pisukideei. Poztu ziren nire oroimena eta bizitza normala berreskuratuko baintuen. Beraiek denbora gehiago beharko zuten edo adina kontuan izanda, sendagileen gainbegiradaz aparte, betiko egongo ziren instituzio baten menpe, Eulogio kasu. Madou eta Bakary laster ibiliko ziren kalean eta lanean, eta Alaine eta Atanasek menpekotasuna kontrolatu behar zuten ateratzeko. Tamalez, gutxi ziren instituzioek bultzatuta, arazo larriak zituzten pertsonentzako lanak. Bestalde, Eva bezalako emakumeek bortizkeriaz babesteko segizioa eta laguntza psikologikoa behar zituzten bizitza normala izateko. Beste pisu batean, haurrak zituzten emakumeak bizi ziren.

Arratsaldeko paseoan ibili ginen bitartean, pisukideek, nire agurra zela eta, beren ezintasunak eta itxaropenak adierazi zituzten. Afrikarrek klandestinitatearen ondoriozko arazoak kontatu eta aukera berdintasuna aldarrikatu zuten; drogamenpekotasunean bizi zirenak zerbitzuen eskasia eta laguntza

berantiarra; eta guztiek jendartearen sentikortasun falta eta haiek bezalako gaixoen duintasunez bizitzeko zailtasuna adierazi zuten, kontradikzioak aparte.

Beranduago, Evarekin elkartu ahal izan nintzen. Berak bere bizitzaren xehetasunak kontatu ez zizkidan arren, banekien bizitza gogorra pasa zuela. Gure harremana pertsonen arteko kidetasunean oinarritzen zen. Beste pisukideak gaixo eta arazoan menpekotasunean bizi ziren bitartean, Evak beste laguntasuna eta maitasuna ematen zizkien. Ikusi bezain pronto lasaiago sentitzen ginen guztiok, ni ere bai.

Gezurra bazirudien ere, azken orduetan oroituko gauza asko berreskuratu nuen. Nire bizitza nolakoa zen adierazi nion: Afrika, Amerika eta Asiako leku askotan ibilia nintzen lanean, hirugarren mundua deitutako jendearen arazoak eta egoera sozialak jasotzen eta kontatzen. Telebista handi batentzat egiten nuen lan. Atsedendaldi batean, oportetan, Bilbora itzuli nintzen familia eta lagunak bisitatzera. Autoa hartu eta Madrilera itzuli baino lehen, ekainaren 23an lankide izandako Iruñeko lagun batekin geratu nintzen gauean. Elkartu baino lehen lapurtu eta kolpe bat emanez utzi ninduten konorterik gabe. Horra gertatu zitzaizkidan. Banekien Madrilan ez zirela nire esperoan uztailearen 4a arte behintzat.

Gogoratzen nituenak kontatu ondoren, despeditzen, elkar agurtzen hasi ginen. Nik sentitzen nuen berriki lagun egindako bat hain azkar utzi behar izatea.

–Eva, hemen biziko banintz lagunduko nizuke bizitza berri bat antolatzen. Zoritxarrez, Madrilera joan behar dut lan egitera... –Irribarre eginez garrantzia kentzen saiatu zen emakumea.

–Lasai Fernando, nire bizitza berregiten ari naiz dagoeneko. Pozten naiz zurea berreskuratu duzulako.

–Bai, milesker. Hala ere, kontaktuan egongo gara. Deituko dizut nola zauden jakiteko...

–Lagun..., ez kezkatu nigatik. Gustura jakingo dut zure berri, baina ez da beharrezkoa zure laguntza. Aski dut zure laguntasunarekin.

–Nik ere bai Eva. Hala ere, zure bizitzaz jakitun izateaz gain, ahal badut lagundu nahi dizut.

–Ez naiz zutaz hain erraz libratuko ezta? –Umore ona zuen emakumeak.

Hurrengo egunean poliziaren egoitzara joan ginen Maika eta biok. Aurreko egunetako poliziek berriro egin zidaten galdeketa. Nik oroituko guztia kontatu nien eta liburua erakutsi. Maikak esan zidan liburua ordainduko zuela eta ahal izanez gero beste bat erosiko zuela, ni gogoratzeko. Poliziek lan ikaragarria egin zuten niri laguntzeko. Hasteko, nire nortasun agiria eta gida-baimena eman zizkidaten. Ez nuen uste egun bakar batean egingo zutenik. Are gehiago egin zuten: familiako etxeko telefonoa, Madrileko nire laneko eta etxeko telefono-helbideak, nire autoaren matrikula, orduko galdutakoa, eta banku batean aurrezkiak nitueneko informazioa eman zidaten. Polizia haiek azkar eta oso ongi egin zuten lan.

Maikak lagunduta, bankura joan eta dirua lortu nuen. Poltsa handi bat eta arropa erosi nituen. Hotel batean gela bat hartu nuen. Gero, nire telefono konpainiako denda batean mugikorra erositako, lapurtutako telefonoaren klonazioa egin zidaten. Etxekoekin eta ordurako gogoratu nuen lagun batekin

mintzatu nintzen. Madrilerako bidaia 8rako utzi nuen. Egun haietan egindako lagunekin egon nahi nuen Sanferminetako egun batzuetan. Iruñeko lagunarekin mintzatzea lortu nuen. Lankidea izandakoa Iruñean bizi, baina ni bezala Bilbokoa zen. Bat-batean berataz gogoratu nintzen. Rafa Murgia zuen izena. Desagertu nintzen egunekoa kontatu zidan: lagunak ez ninduen topatu. Ez zuen lortzen mugikorraren bidez kontaktatzerik eta arraroa izanda ere, uste zuen ezusteren bat izango nuela eta Madrilen egongo nintzela.

Hurrengo egunean, uztailak 6, Iruñeko festen hasiera izango zen eguerdian. Pare bat edo hiru egunetan txikitako lagunarekin, Evarekin eta egun haietan egindako lagun berriein momentu gogoangarriak pasatuko nituen. Nik bizitza berreskuratuko nuen; hala ere, ziur asko, den-dena gogoratu gabe itzuli beharko nuen Madrilerara eta eguneroko bizitzara.

Edozein modutan ere, bizitzan galdutako pertsona haiek betiko izango nituen gogoan. Egun gutxi batzuetan ni galduta ibili nintzen, nire bizitzaren lema galduta. Are gehiago..., pentsatu nuen arrazoi desberdinengatik bizitzan galduta egotea gutako edonori gertatu ahal zitzaiola. Gainera..., ez al gara donok galduta ibiltzen bizitzako momentu batean edo bestean?

Bi eguzki zero batean

Gazteak koadernoan idatzi zuen gertatu zitzaiona aspaldiko kontua izan balitz bezala:

“Bart gaizki egin nuen lo. Gauerdiko hamabiak pasa, loak hartu ezinik nengoen eta bostak aldera mugitu behar izan nuen, seiak eta hogeita bostean trena hartzeko. Seiak baino lehen geltokian nengoen taxia hartu nuelako. Trenaren leihotik begira nengoela, bi eguzki ikusi nituen urrunean, ortzemugatik ateratzeko prest. Hitz ematen dut egunsenti arraro hura, Tuterako geltokira heltzen ari ginela ikusi nuela. Une bat lehenago, gaixo eta goragale nintzen. Logale eta era berean ezin loak hartuz, ezohiko irudipen haren ondoren esna ote nintzen zalantzan nengoen. Pasaiariok Bartzelonarako trena ordu bat lehenago hartu genuen Iruñean. 66 minutu beranduago, zazpi eta erdietan sortu zen eguzkia astelehen hartan, abuztuaren 20an.”

“Efektu optikoa izan ote zen hura? Izan ere, bazirudien eguzkiaren lehen zirrintak, puntatik izan ezik mendixka baten bi alboetatik ikusteak bi eguzki zirela. Kasualitatea ote? Ez nekien bi eguzki begiztatzeak zerbait esan nahi zuen. Kasualitate hutsa ala nolabaiteko iragarpena izan zitekeen; baita lo faltagatik nekeak eraginda bikoitz ikustea. Ez nekien, baina edonola ere, berezizat hartu nuen ikusitakoa, bizitzen ari nintzen momentuaren adierazpen berezi bat bezala. Une hartan uste eta pentsatu nuen bi mailatan mugitzen ari nintzela. Errealitatearen mailan, betiko bizitokitik Bartzelonara nindoan aste edo agian urte batzuk pasatzera. Irudipenezko mailan, aldiz, sinbolikoki, desberdina zen. Bizitzaren bidegurutze batean nengoela sentitzen nuen. Momentu hark betiko alda zezakeen nire bizitza; bestalde, ordura artekoarekin jarraitzea zen seguruena. Arte-historian gradua Gasteizen ikasten ahal nuen euskaraz; baina, bestelako gogoia eta bizi-itxaropenak nituen. Nolanahi ere, atzean uzten nuena nola edo hala berriro aztertu eta erabakia hartu behar nuen.”

Garazik hemezortzi urte zituen eta arte-historia ikasi nahi zuen. Margoen ederra! Eskultura, arkitektura eta Arte Ederrak maite zituen, musika ere bai, baina ez zen artista. Artelanak aztertzea eta sentitzea zen gehien gustatzen zitzaiona. Margoetan espresionismoa, inpresionismo eta abstraktuak maite zituen; baina, Antzina, erdi-aro, eta berpizkundeko adierazpenek ere margoetan bezala eskulturan eta arkitekturan erakartzen zuten. Besteak beste Bartzelonako arte modernista berezia egiten zitzaion.

Ordura arte gustura bizi izan zen Iruñean, etxekoekin. Alaba bakarra izaki, gurasoek maite zuten eta lagundu zioten gauza guztietan. Haurtzaro eta nerabezaro zoriontsuak pasa zituen ikasten eta lagunekin jolasten. Helduaroaren atarian, bizitzaz gozatzeaz gain, arte adierazpenak aztertzea, ikastea eta sakontzea izanzen zen bere gogoko eginkizuna.

Arte-historia ikastea zuen helburu, ez zuen dudarik. Non ikasi ordea? Gasteizen gustura eginen zuen; leku irekiagoa behar zuen, ordea. Italia zeukan gogoan, baina hizkuntza zuen muga, eta galga. Hizkuntzak ikastea gustatzen bazitzaion ere, garbi zuen urte pare bat kostatuko zitzaiola horretan barneratzea. Italian ikastea garestia zen gainera. Estatuan, Bartzelona baino leku aproposagorik ez zuen ezagutzen.

Edonola ere, aste batzuetan aztertuko zuen Bartzelonan ongi ibiliko zen ala hangoa gaizki aterako zelakoan beste nonbaitera joanen zen. Hala ere, aurrematrikulazioa egina zuen Bartzelonako UNEDen.

Asmoa zuen arte-historiako gradua egitea eta fakultatean ikasi baino lehen, katalaneraz moldatu arte behintzat, libreki eginen zuen, lan egiten zuen bitartean.

Raval auzoan, fakultatetik hurbil, unibertsitatean ikasitako lagun batzuen lagunak bizi ziren. Haietako batek, Katik, aurretik Bartzelonara egindako egonaldi batean ezagutu zuena eta Arte Ederrak ikasia, abuztuan utziko zuen hiria eta lana. Emakumea atsegina zen eta gustura ibiliko zen berarekin, bere ordeztu izan nahi zuen erabaki bitartean. Kati baikorra iruditu zitzaion: pertsonalitate onekoa, lasaia, irekia, atsegina eta argia; llehoria, begi urdin, potxoloa, aurpegi ederrekia eta nahiko altua zen itxura aldetik; Garazik haren negatiboa zela uste zuen: beltzarana eta baxuagoa, aurpegi zorrotzagoa eta pertsonalitatean kontrakoa. Kostatzen zitzaion jendearekin irekitzea, urduria zen eta uste zuen ez zela oso argia.

Treanean, hainbat burutazio izan zituen bidaia egin artean, geltoki eta paisaietan erreparatu gabe. WhatsApp bidali zion lagun taldeari. Laster elkarrekin egonen zirela eta etorkizuna egitera zihoala adierazten zien. Mireni aparte idatzi zion, berak ezagutzen baitzituen zeuzkan zalantzak, ez kezkatzeko, eta laster ongi egonen zela ziurtatzeko. Gauean lasai hitz eginen zuten. Beste lagunekin mintzatuko zen handik gutxira, etxekoekin ere bai. Ikerrekin... itun bat egin zuen, denbora behar zuen bere ideia eta nahiak argitzeko.

Bartzelona. Garazi goizeko hamarretan heldu zen Santsera eta ordu erdian zen Ravalen. Katik baimena lortu zuen lanean berari harrera egiteko. Emakumeak giltzak eman, gela erakutsi eta arratsaldera arte agurtu zuen lanera itzuli behar zuelako. Garazik amarekin hitz egin zuen une batez ongi heldu zela esateko. Arropak armairuetan antolatu zituen eta inguruan itzuli txikian paseatzera eta pentsatzera ateratu zen. Nahiko ongi ezagutzen zuen hiria eta inguruak. Familiakoak txikitatik Paskua Astean Saloura eta Portaventurara joaten ziren guztietan Bartzelonara joaten ziren eta azken urteetan maiz izan ziren beste momentu batzuetan. Agian horregatik aukeratu zuen hiri hura ikasteko eta bizitzeko.

Ordu pare bat pasa zuen jendez betetako toki haietatik paseatzen: Rambletatik, Kataluniako Plaza, Portal de l'Angel, Katedrala, San Jaume Plaza, Boqueriaraino eta buelta. Pisutik hurbil zegoen Bartzelonako Arte Garaikide Museoan sartu zen azkenean. Ezin izan zion irrikari eutsi, laburra izanda ere.

Ikasle karnetarekin Garazik dohainik zuen sarrera. Handik ibiliko zen bazkaltzera joan arte. MACBAN, museo minimalista hartan, ikustaldi azkar bat egin nahi zuen aspaldiko partez. Betiko selekzioa behin baino gehiagotan ikusia zuenez, gain-gainetik begiztatu zuen. Ez zuen bake egoera bilatzen, arte mota hura pentsatzeko eta sentiarazteko zela uste baitzuen. Domenec-en hiriaren maketak eta argazkiak ikusi zituen. Garai desberdinetako Bartzelona hiriko argazkiak oso interesgarriak iruditu zitzaizkion. Erakusketak, ehun urte baino gehiagotako argazki zuri-beltz anitz, XX. mende osoko kale-argazkiak, eta eraikin-maketak erakusten zituen. Argazkietan maila sozial desberdinetako pertsonak jantzen zuten paisaia eta bizitasuna ematen zioten kaleari. Emakume dotoreek edertzen zituzten bilera sozialak, burges serio engomatuek gobernatzen zituzten eremu haiek eta emakume eta gizon langileak lantegietara mugitzen ziren. Arkitektura industrialak eta eraikin zatar edota ederrak ziren orduko jendartearen lantoki eta bizitokiak. Aspaldiko Bartzelonako erdialdea eta auzoak ziren protagonistak, jendea gonbidatua.

Beste areto batean, Bartzelonan bizi izandako artista batek, berrogei urte lehenago, artista argentinar on batek egiten duen bezala, artearen inguruan psikoanalisi eta teoriak egin zituen, bere marrazki, margo txikien bidez eta idazki mordoean adierazita. Interesgarria izanen zen, baina ez zuen sakontzeko denbora eta gogorik. Ondoko gela handi batean artelan handi eta koloristak ikusten ziren. Melanie Smithen colage-puzzle karratu moduko konposizioak gustukoak izan zituen. Artistak Mexikoko margolari eta errealitatearen gainean hausnartzen zuen.

Konturatu gabe bazkaltzeko ordua heldu zen. Gazteak beste batean jarraitu eta sakonduko zuen bisitaldia. Hala ere, joan baino lehen beste aukera batzuk topatu zituen. "Departamento Esoterico" izeneko proiektu bat zegoela jakin zuen. Hemezortzi urtetik aurrerako ikasleekin urtean zehar proiektu kolektibo irekia antolatzen ari ziren. Interesgarria izanda ere, proiektuak artistentzat egina zirudien. Umeentzako tailerretatik pasa zen. APP baten bidez museoan nabigatzeko aukera zegoen eta pentsatu zuen hurrengoan erabiliko zuela. Museo asko zituen helburu hurrengo asteetarako: MUHBA Bartzelonako Historia-Museoa, Kataluniako Arte-Museo Nazionala, Picassoren Museoa, Caixaforum, Mapfre Fundazioa, Gaudiren eraikinak... Zenbat bisita egin behar zituen! MACBAn bisita egin ondoren, selfia egin zuen kanpoan, lagun eta etxekoei bidaltzeko. Bi saltotan pisuan zen berriro. Entsalada ilustratua prestatu eta bazkaldu zuen. Ondoren, bere gelara joan zen behar zuen lo-kuluxka egitera. Gaez oso lo kamutsa egin zuen eta behar zuen.

Arratsaldeko seietan agertu zen Kati. Harrigarria zen, baina emakumeak bere gela utziko zion Garaziri, aste hartan berak Mertxerena erabiliko baitzuen.

—Aste bete barru ni joanen naiz eta Mertxe izanen da zure pisukidea. Gela utziko dizut atzo garbiketa ikaragarria egin bainuen eta gauzak eramateko erdi prestatuta utzi nituen. Gogoa dut aste betez bada ere Mertxeren gela zabal eta argiaz gozatzeko... A, ahaztu baino lehen, ezagutzen al duzu Raval auzo hau?

—Ez gehiegi. Zergatik diozu?

—Gaez, egunez bestela iruditu arren, arriskutsua delako —Garazik harridura erakutsi zuen. Begiradaz azalpena eskatu zion Katiri. Honek berehala luzatu zion.

—Raval auzoan, azken aldian areagotuta gainera, lapurreta asko gertatzen ari da. Jakinen duzu "Barrio Txino" deitua izan zela duela urte asko. Hemen zentratzen zen prostituziorik gordinena. Hemen saltzen eta erosten ziren drogak eta delinkuentzia handia zegoen. Denbora batez auzoa berpiztu zuten, instituzioak eta zerbitzuak jarriz, Liburutegi Nagusia eta Museo Garaikidea besteak beste. Baina, azken aldian berriro sartu dute heroina eta lapurretak izan dira aspaldiko partez. Azken boladan modan jarri da tiroia, bizikleten bidez poltsak eta mobilak harrapatzeko. Beraz, kontuz ibili eta mugitu beti norbaitekin. Denok eramaten dugu piper-espraia. Ni joatean utziko dizut nirea —etorri berriak ez zuen azalpen eta oharpen hura espero eta ezuste txarra izan zen berarentzat. Hala ere, ongi hartu zuen.

—Mila esker esateagatik. Espero dut gauetan, egun hauetan, zuk laguntzea.

—Bai noski. Gaur edo bihar aurkeztuko dizkizut lagun batzuk.

–Oso atsegin eta lagunkoia izan zara nirekin. Bartzelona ezagutzen nuen pixka batean. Zuek ezagutu zintuztedan aurreko Gabonetan; baina bizileku berrian, lagunak, pisua eta lana eskaintzea ez da nolana hiko erraztasuna. Eskerrik asko zuri eta zuen lagunei –Katik barre egin zuen.

–Ez uste, niri ere lagundu zidaten. Niri, zuk ezagutzen duzun Maiak lagundu zidan.

–Bai. Berarekin etorri nintzen eguberrietan. Arte Ederrak ikasi zituen lehengusina da Maia.

Edozein modutan, Katik azaldu zuenez, plaza hartan ez zen arrisku handirik, behin ordutegi batzuk errespetatu eta talde batzuk saihestuz gero. Denek zekiten nor bizi zen han edo nor zen turista edo despistatua. Arte-fakultatea, museo garaikidea eta Bartzelonako leku interesgarrienak gehienez handik hoge minutura zeuden oinez eta metro bidez berehala heltzen zen edozein tokitara ordu erdi batean.

Kontatutakoaz aparte, Garaziri gustatu egin zitzaizkion pisua, gela eta bereziki Katik egin zion harrera. Egindako paseoan, gaintekoa izanda ere, baieztatu zuen Bartzelona bizitzeko leku aproposa zela. Bi emakumeek hizketan eman zuten arratsaldea. Itzuli txiki bat egin zuten inguruan. Katik erakutsi zizkion inguruko leku batzuk, taberna bat, erosketak egiteko arrandegia eta supermerkatu txikia, ogi goxoa egiten zuen forn bat eta ixten ari baziren ere arropa erosteko leku pare bat. Berriki irekitako denda alternatibo asko zegoen: bigarren eskuko bizikleta-dendak, traste eta arropa-dendak, artisten eta artisau-tailer eta dendatxoak... Bazegoen etxeko janari prestatua eramateko eskaintzen zuen denda eta jatetxea. Batzuek, self-service moduan plateretan aukeratzen zuten nahi zutena eta ordaindutakoan esertzen ziren mahaietan. Beraiek kartoizko kutxetan wokean egin berritan, pasta plater goxo bana eta postreak aukeratu zituzten. Merkea zen, gainera. Diru gutxigatik jaki goxo eta naturalak erosi, paperezko poltsetan sartu eta etxera abiatu ziren. Gustura afaldu zuten giro onean.

Beranduago, bere gelan lasai, Garazik etxekoei eta Mireni deitu zion. Beste lagunei hurrengo egunean deitu edota bidaliko zion mezu bat. Ikerri deitzeko tentaldia izan zuen; ez zuen egin, ordea. Loak hartu baino lehen, Garazik etorkizun hurbila izan zuen buruan. Aste hartan Katik eta Garazik elkarrekin egiten zuten lan. Mertxe oporretan izan bitartean, Garazik egiten zuen haren partez eta gainera Katik asko lagunduko zion. Mertxe Donostiarra zen eta oso emakume atsegina. Berarekin ongi egonen zela uste zuen. Astea pasata, Katik utziko zituen lana eta pisua eta ongi bidean Garazik ordezkatzeko zuen.

Asteartean, goiz mugitu ziren lanean aritzeko. Bien artean zortzietatik gosariak eta hamaiketakoak, kafeak eta ogitartekoak zerbitzatu behar zituzten. Beraien lanaldia laurak arte bete behar zuten; baina, ordu bata aldean beraiek bazkaltzen zuten, lan gutxi izaten zela aprobeztatuz. Ordu bietarako beste bi zerbitzari etortzen ziren bazkarietan haiei zerbitzatzeko laguntzeko, bi sukaldariak jo eta ke aritzen ziren bitartean. Arratsaldeko txandakoek meriendak zerbitzatzeko zituzten eta bederatzietan bukatzen zuten lana. Ez zuten afaririk ematen, gauean han behintzat mugimendu gutxi izaten zen-eta.

Kafetegia ez zen oso handia, baina bai ongi antolatua. Barneko eta terrazako mahaietan berrogeita hamar pertsona baino gehiago otordua edo kafea hartzen egon ahal ziren batera. Txukun eta dena nahiko berrituta zegoen. Altzari modernoak eta dekorazio kolorista nagusi zen, elementu tradizional batzuekin: lanpara eta margo batzuk kasu. Estilo desberdinetan, baina beti kolore alaietan. Giro atsegina zuten. Lehen orduetan Katik kafeak prestatzen eta gosarietarako martxa ongi antolatzen erakutsi zion. Pare bat ordutan jo eta ke aritu ziren, baina bezero guztiekin hizketa arinean ibiliz.

Musikak, oso ozen jarri gabe, giroa atseginagoa egiten zuen. Goiz hartan orduko musika kataluniarra ezagutu zuen Garazik, gehienetan alaia: Manel-en “Al mar”; Blaumont, Catarres, Txarango... Sopa de Cabra taldeen kantak entzun zituen eta Lluís Llach-en “Que tingem sort” ere bai. Garazi, bezeroekin elkarrizketa arin eta umoretsuen artean eta Katiren laguntzarekin gustura aritu zen hasierako momentutik. Udako musika deitua ere entzuten zen. Reik taldearen “Me niego” itsaskorra entzun zuen, Rosaliaren “Malamente” eta modako beste kanta batzuk.

Goiz erdia baino lehen, azkeneko gosariekin batera lehenengo hamaiketakoak ematen lan gehiago izan zuten. Eskerrak ordu batzuetan Tonik lagundu egiten ziren eta sukaldean gogoz ari ziren bokatak, sandwichak eta tostak prestatzen. Hamabietatik aurrera, lasai eta brometan ibili ziren, lan gutxia aprobetxatuz. Konturatu gabe bazkariak zerbitzatuko zituzten eta gose gehiegirik gabe, ordu eskas bat lehenago beraien hamaiketako hartu zutelako, bazkaldu egin zuten. Hura ez zen maila goreneko jatetxea, baina entsaladetan mota pare bat zegoen, plater beganoak eta tradizionalak ere eskaintzen zituzten eta konbinatu batzuk bazituzten aukeran. Goserik gabe, Garazik entsalada eta arraina pixka bat eskatu zituen eta harritu zen zein goxo eta ongi atonduta zeuden. Ematen ziren kafeak, otartekoak eta pastak ere onak iruditu zitzaizkion, baina ez zuen espero hain jaki goxoak prezio onean izatea. Lanarekin gustura, Katirekin ez ezik, besteekin ongi moldatu zen.

Kafetegian bezero gehienak bertakoak ziren eta asko egunerokoak, inguruan lan egiten zutenak. Baziren Arte Garaikidearen Museoan, MACBAN ibilitako bisitariak ere, handik hurbil baitzen. Leku guztietako turistak ere izan zituzten. Guztiekiko harreman ona hizkuntzan ere nabari zen. Normalean katalaneraz aritzen ziren bezeroak, baina giro elebiduna eta aniztuna zen nagusi: gaztelania, frantsesa eta ingelesa pixka bat erabili behar baitzuten. Garazik pentsatu zuen katalanera azkar ikasiko zuela, hizkera arrunt eta egunerokoan behintzat. Kati ongi moldatzen zen hizkuntzekin, baita katalaneraz ere.

Garazi euskaraz aritzen zen normalean bere betiko inguruan. Ziur aski, gradua bukatzean Gasteizen osatuko zituen ikasketak euskaraz; baina, pentsatzen zuen inguru kosmopolitagoa eta arte mailan interesgarriagoa behar zuela. Bartzelona arte-historia ikasteko leku aproposa zela uste zuen eta prest zegoen urte batean katalaneraz moldatzeko. UNEDen ikasiko zuen lehenengo urtean, baina asmoa zuen UBAn ikasteko. Bartzelonako unibertsitatean ulertu behintzat ulertu behar zuen katalanera, azterketak gaztelaniaz egiten ahal baitziren.

Pisura heldu zenean, Garazi Mirenekin eta Uxuerekin mintzatu zen telefonoz. Besteei mezu laburra eta tabernako selfia bidali zizkien. Beranduago, kuluxka egin ondoren etxeko garbiketa batzuk egin zituzten bi lagunek. Lasai ibili ziren eta goiz afari-merienda eginda ateratzeko prestatu ziren. Garazik bazekien Bartzelonan kuadrilla, betiko zentzuan behintzat, ez zuela izango. Han harreman pertsonalagoak eta zuzenagoak izaten ziren, baina taldeko asko euskaldunak izaki nolabaiteko kuadrilla zentzua sartu zuten erabat itxia izan gabe. Haien artean lagunek beste lagun batzuk eramaten zituzten tarteka, talde irekia eta aldakorra osatuz. Dena den, emakumea zalantzan zegoen nola jokatu eta hain zuzen ere ez zekien arratsean ibiliko ziren pertsonekin zer espero zezakeen.

Arrats bero eta sargoria egiten zuen. Kuadrillako euskaldunak, Mertxe eta Jonan, ez zeuden hirian. Rambla ondoko tapa-taberna moderno eta garbi batean elkartu ziren, hirian izan eta libre zirenekin. Aurkezpenak egin zituzten. Pera eta Mariela ezagutu zituen Garazik. Dolors eta Andreu, kuadrillako beste kataluniarrak ere kanpoan ziren. Pera, azken urteko arte-ikaslea, Vic-ekoa zen. Mutil altu,

beltzaran eta ederra zen, erakargarria eta haren irribarreak ironia-edo adierazten zuen. Mariela Gironako herri batekoa zen, txikia, beltzarana eta irribarretsua. Arte-historia UBAn bigarren urtea egin behar zuen. Kañak eta tapak aukeratuta, mahai batean eseri ziren. Adiskidantza handia nabari zen Kati eta Marielaren artean. Elkar ezagutzen eta norberaren bizitzaz eta esperientziaz mintzatzen egon ziren, askotan Garazi protagonista izanik. Hurrengo urterako planez ere aritu ziren.

Lagun haiek, Kataluniako leku desberdinetakoak gehienak, arte-ikasketa desberdinak egiten edo ikasitakoak ziren. Gezurra bazirudien ere, ia Iruñeko poteoan bezala ibili ziren. Bazeuden Gotikoan tapak dastatzeko tokiak. Bi euroan kaña, ardoa edo beste edari bat eta jatekoa lortzen zuten. Leku bakoitzean ordu bat eman zuten gutxi gorabehera. Euskal kutsuko bi tabernatan ibili ziren; zerbitzariak, ordea, ez ziren baskoak, batzuk bertakoak eta beste batzuk Europa-ekialdekoak edo asko hegoamerikarrak.

Beranduago, hamaikak aldean, Eixamplén ibili ziren. Baziren azken urteetan ireki edo berritu zituzten taberna asko. Gehienetan denetarik zerbitzatzen zuten egunean zehar: kafetegiak, tabernak eta jantokiak ziren aldi berean, baita pub eta disko txikiak gauean lan egiten zutenean. Dantzan ibili ziren disko-musika atsegin baten erritmoan. Harrezkero alai zeuden edandako garagardoen eraginez. Bi lagunek, hurrengo eguneko lana zela eta, hamabietarako etxeratu nahi bazuten ere, ordu horretan Kati Marielarekin ari zen hizketan beraien gauzez. Musikak ez zuen uzten denak batera hizketan egoten eta egoera aprobetxatuz Pera hurbildu zitzaion Garaziri belarrietara xuxurlatzeko. Mutil katxarroa zen, begi urdin ederrak zituen eta ahots erakargarria.

—Garatxi, atsegin dut artea maite eta artista sentitzen ez den jendea.

—Garazi. Nire izena Garazi da. Nahi baduzu Garaxi edo Garasi ahoskatu... Aizu Pera, zu ez al zara artista? Gorroto al duzu zeure burua?

Mutilak begiratu eta irri ederra erakutsiz ez zion galderari erantzun. Azaldu zion berak artista-sena zuela, baina ez zuela bere inguruko jendea jasaten. Gehienak sasiartistak omen ziren. Eten baten ondoren jarraitu zuen.

—Maite ditut euskaldunak zuzenak direlako, zuzenak eta harira jotzen dutelako.

—Eta zeu, ez al zara zuzena? —Garazik ezin zion harroputzari berearekin ateratzen utzi. Erakargarria zen benetan; baina, ez zitzaion morroiaren jarrera gustatu eta nahi baino zakarrago adierazi zuen galdera.

—Zuzena izatea nahi duzu? —esan zuen gizonak ironiaz edo adarra jo nahian.

—Zergatik diozu?

—Agian zuzenegia izango naizelako. Askok gustatzen zatzaizkit! —bota zuen lasai.

—Moztu erretolika! —Harroputza gizona! Garazik ez zuen atsegin.

–Mundu miresgarri berezi bat ezagutarazi nahi dizut: hilezkortasuna. Egin dezagun esperientzia berezi bat... –Begiratu misterioetsua eman nahian, erdi itxita zituen begiak hizketa egin bitartean. Garazik hozkirria sentitu zuen. Gelditu behar zion hitz-jarioa.

–Aizu, ez dakit zer nahi duzun, baina kontu txarra ematen du horrek. Ez segitu, mesedez.

–Irribarre polita duzu; oso ongi zaude eta baduzu izaera interesgarria.

–Hoa popatik hartzera! –Perak ezentzunarena egin zuen.

–Ai zure begi berde-arreek ezkututzen duten misterioa! –Neskak ez zion erantzun. Altxatu zen eta Katiri esan zion joan behar zutela. Katik Perarekin zerbait gertatu zitzaiola ulertuta laguna agurtu eta kanpora abiatu ziren. Marielak ere keinu bat egin zien egoera ulertzen zuela adieraziz.

Behin etxera bidean, Katik galdetu zion gertatuaz.

–Hordagoa bota al dizu?

–Bai. Ez dakizu zein harroa den! Hordagoa bota ez ezik, zakar eta desatsegin jokatu du. Horrelakoa al da beti? –Katik baieztatu egin zuen buruaz.

–Barkatu lehenago kontatu ez izana. Pera harroa da bai, baina ez dut ulertzen. Inoiz ez dut hain baldar eta zakar ikusi.

–Nola onartu duzue lagun-taldean?

–Marielaren lagun mina da. Asko lagundu dio eta orain arte, harropuzkeriaz aparte, ez du arazorik sortu. Egia da berezia dela eta Marielak izan ezik, beste inork ez duela benetan atsegin. Hainbat gaitan friki samarra izan arren artista handia denez, inguru batzuetan onartzen dute... Ez uste, niri ere ez dit graziarik egiten, baina ate asko ireki die gure lagun batzuei.

–Zein gaitan interesatzen da? Ez nuke nahi ez jakiteagatik beraren jokoan sartu.

–Gotikoa da, itxuragatik ikusten denez eta parapsikologia gustuko du. Gotikoa eta neobarrokkoa da arte-jokaeran.

–Eta zergatik uste duzu interesatu dela nirekin?

–Ezin naiz bere buruan sartu, baina zu bezalako neska beltzaranek erakartzen dute.

–Bila dezala beste bat, ba! –Katik zerbait gehiago pentsatu ondoren luzatu zion lagunari.

–Dena den, gaurkoa ez dut inoiz ikusi. Kontuz ibiltzeko aholkatuko nizuke. Larrua jotzeko eskatu al dizu?

–Hori da arraroena. Ligatu nahi izateaz gain, beste zerbait gehiago eta arraroagoa nahi zuela pentsatu dut.

Gaia alde batera utzi zuten. Katik kontatu zion hirira beste bi lagun agertzekotan zirela. Dolors eta Andreu bikotekideak biharamunean helduko ziren Bartzelonara. Dolorsekin geratu zen Kati hurrengo egunerako WhatsApp bidez. Ordu bata hurbil, lagunak arin itzuli ziren etxera, isilik, gertatutakoaz hausnarrean. Handik gutxira, garbituak egin eta ohera joan ziren. Garazik ezin zuen loak hartu. Lur jota zegoen. Bizitza berria egitekotan, horrelako jendilajearekin topatu behar! Ez zion gizon ergelari aukerarik utzi behar. Horretan pentsatzen ari zela loak hartu zuen.

Asteazken goizean berrituta sentitu zen ongi esnatu eta gosaria hartu ondoren. Etxebizitza zahar haietatik kale estura atera ziren arin lanera. Kafetegia hurbil zegoen, baina Katiri gustatzen zitzaion garaiz heltzea, kafe kargatu bat hartzea eta lankideekin une batez hizketan egotea, are gehiago handik egun batzuetara Bartzelonako bizitza utzi eta herrira itzuliko zenean. Alba eta Joanekin hizketan hartu zuten berriro gosaria: tosta bat eta kafe goxoa. Alba kolonbiarra zen eta Joan bertakoa, baina gaztelaniaz eta katalaneraz egiten zuten nahasian arazorik gabe.

Goiza azkar eta ongi pasa zuten lanez gainezka, solas arinak eta musika latinoaren laguntzaz. Txarangoren “Agafant l’horitzó” kanta, erritmo ona eta poza kutsatzen zuen runba bat zen. Manu Chao, Alvaro Solerren “Mi cintura”, Aitana eta Ana Guerraren “Lo malo” asko entzuten ari ziren irratian. Tartean, ingelesezko kantaren bat entzuten zen. Garazik, Kenzazpi, Zea Mays eta Gatiburen kanta bana ere entzun zituen. Une batean Celtas Cortos taldearen “La senda del tiempo” entzutean tristura sentitu zuen. “Paseando por las calles todo tiene igual color, siento que algo echo en falta, no sé si será el amor.” Leloak gogorarazi zion bere egoera. Hala ere, gustura ibili zen lankide, giro eta jendearekin, asko, bezeroak baino gehiago zirenak. Dolors goiz erdian pasa zen kafetegitik, beraiek bazkari goiztiarra hartzen zuten bitartean. Elkar aurkeztu ondoren, Garazik Kati eta laguna hizketan utzi zituen lasai eta sukaldera sartu zen Albarekin bazkaltzera. Arratsaldean, berriro geratu ziren Kati eta Dolors, aspaldian egon gabe, banaketagatik gauza asko zuten kontatzeko, nonbait. Katik gonbidatu bazuen ere, Garazik nahiago izan zuen bi lagunak bakean utzi eta bakarrik zerbait ikustera aterako zen. MACBA bezala bazituen noizbait bisitatzeko beste museo pila haiek eta hainbat leku interesgarri. Hurbil izateagatik, Gaudiren Batlló eta La Pedrera kanpotik ikusi ahal zituen. Grazia pasealekua eta etxe eder haiek lasai eta gustura bisitatuko zituen ordu pare bateko paseoan. Kaleratzeko zegoela, atean jo zuten. Ireki zuenean Pera ezin ederrago eta irribarretsu bat topatu zuen. Ezustean, kontuz jokatzea erabaki zuen.

–Zer nahi duzu nirekin?

–Ez dakit. Benetan ez dakidala. Ahal dudana... suposatzen dut. Ezagutu nahi zaitut. Zurekin egon nahi dut –Garazik, zakarki ezer lortuko ez zuelakoan jokamoldez aldatu zuen. Lasaitu ondoren goxoago erantzun zion. Konbentzitzen saiatu zen.

–Pera, lasai zaitetz. Badugu eta elkar ezagutzeko denbora –gizona, dena den, inoiz baino ederrago ikusten zen. Une batean neskak pentsatu zuen gizon haren ondoan gustura ibiltzen ahal zela. Perak eskua luzatu zion eta suabe baino irmo erantzun zion.

–Ez dut tontakerietan ibiltzeko gogorik. Geldituko al gara bakarka? Nirekin bizitza interesgarria izango duzu. Nahi duzuna emango dizut –Gizonaren erakarri handia sentitu zuen. Erraza izanen zen eramaten uztea eta begi haiek agintzen zuten bizitza atseginean murgiltzea. Baina ez. Bera Garazi zen, bere buruaren jabe eta inork zer egin behar zuen erratea onartuko ez zuena. Morroi harekin alferrik izango zelakoan berriro jokaera gogorra hartzea erabaki zuen emakumeak. Gaixoak pentsatu zuen gizon harekin kontu gutxi izan behar zuela. Ahalik eta zuzenago jokatzeko hobe.

–Ez estutu mesedez! Horrela eginez gero, salatu eginen zaitut. –Perak bere irri faltsua erakutsi eta ezer aipatu gabe eskuarekin agurtu zuen. Poliki itzuli eta lasaitasun osoz joan zen etorritako lekutik. Bazirudien lortu arte ez zela geldituko adierazten zuela.

Garazi jota geratu zen. Gizon hark zerbait nahi zuen, zerbait ezkutua eta ikaragarria, alegia. Kontuz ibili behar zuen harekin. Ez zegoen ziur, baina asmo txarra zuela zirudien. Begiradak gaiztakeria adierazten zuten. Dena den, gizona burutik kentzeko lehengo asmoak betetzea erabaki zuen. Kalera atera, inork jarraitzen zuen ala ez egiaztatu eta lasaiago ibili zen Katalunia Plazatik pasa eta Grazia paseora. Momentu txarra ahaztu zitzaion ingurua eta Gaudiren eraikin haiek ikustean. Paseo mantsoan ibili zen etxe bakoitzean geldialdia eta argazki batzuk eginez. Itzultzean, ibilaldia bukatzeko Aingeruaren Portaletik pasa zen, baina berehala utzi zuen kale komertzialean jende gehiegi zebilelako eta Santa Ana kaletik auzora itzuli zen.

Etixeratu zenean han ziren Kati eta Dolors. Afari arina, baina goxoa hartu zuten: “patumacat” eta pernil. Solasa eta giro goxoa eta arina izan zuten. Nabari zen bi lagun haindiak zirela eta sentitzen zuten handik gutxira banatuko zirela. Dolors atsegina zen eta arte-historiako hirugarren urtean hasiko zen. Emakumeak bere laguntza eskaini zion etorri berriari. Bazirudien euskal jendea gustuko zuela, hitz eta esaldi labur batzuk zentzuz erabiltzen baitzituen. Berandu zen lotara joan zirenerako. Loak hartu baino lehen Garazik mezu eta argazki bat bidali zien lagunei eta etxeakoekin hitz egin zuen. Miren eta Uxuerekin hirurak aritu ziren konferentzian batera. Dena den, Garazik ez zien Perarena osotara kontatu, ez zituen-eta kezkatu nahi.

Osteguneari, aurreko egunetan bezala ibili ziren kafetegian, lanez lepo, baina gustura. Egun grisa eta umela izan zuten, zaparradak tarteka. Bezero batzuk bustita sartzen ziren eta gehienek biltzen zituzten aterkiak. Leku faltagatik une batean euritako-denda zirudien kafetegiaren sarrerak. Edonola ere, bero ari zuen eta terrazan ere egon zitekeen toldo azpian. Zaparrada gogorreko momentu batean izan ezik, eserita egoteko lekua lortzeko ez zuten arazorik. Orduan, barnealdea erdi-beteta, jendea pilatzen zen sarreran euritik libratzeko eta ez zieten langileei ongi lan egiten uzten. Katik eta Garazik pasabidean molestatzen zutenak barnealdera pasatzera gonbidatu zituzten, nahiz eta ezer kontsumitu. Edonola ere, ordu erdiko kontua baino ez zen izan. Musika atseginak lagundu zien lan handiko momentuetan. Egun hartan ezin izan zuten hamaiketako hartu, orduan gertatu baitzen zaparrada eta jende pilaketa. Hala ere, ordu bata aldera lasai hartu ahal izan zuten bazkari goxoa. Ordu bietatik lauretara lan jarraia izan zuten, ohikoa.

Arratsaldean bakarrik geratu zen Garazi. Hurrengo astean Katik Italiara joan nahi zuen oporretara eta gauza batzuk prestatu behar zituen. Bidaia-ajentzia batera joan zen Dolorsekin biak joanen baitziren. Hurrengo asteleheneratik beste asteko astelehenera egiteko asmoa zuten. Kati kanpoan izanen zen bitartean, Mertxe izan ezik pisuan Garazik ez zuen beste inor izanen irailaren bukaera arte, Isa eta Karla,

beste pisukideak, agertu egingo ez zirelako. Garazik lker deitzeko gogoa zuen, baina ez zuen eginen, berak hari egun batzuetan ez deitzeko eskatu baitzion, pentsatzeko astia eta askatasunaren aitzakian. Orduan damu zen, baina errespetatu behar zuen berak jarritako baldintza. Kalera paseatzera atera zen.

Alde zaharretik eta Ramblatik ibili zen bueltaka hiriaren eta askatasunaren sentsazioak dastatu nahian. Auzo Gotikoan ibili zen, turistak nonahi. Katedralaren plazatik Generalitate eta Udaleko San Jaume plaza bisitatu zuen. Plaza Realera joatekotan egon zen, baina Santa Maria del Mar elizaz gogoratu zen, nobela eta telebistako serieagatik ezaguna egin zena. Jaume I plazatik La Ribera auzoan sartu zen, artisautza eta bestelako denda eta tailer alternatiboak, jatetxeak eta arte galeriak ikusten ziren. Carrer de l'Argenteria zen auzoko karririk biziena eta jendetsuena ere bai. Kalearen bukaeran Santa Maria del Mar eliz soil eta ederra zegoen, arkitektura gotiko kataluniarraren izarra, katedrala baino ederragoa barnetik.

Nolanahi ere, Santa Mariaren ataria ez zen beste mundukoa: gotorra zen, baina bi aldeko hiru solairuko bi dorre oktagonalek arintasun ukitua ematen zioten. Hala ere, sartzeko nahiari ezin eutsiz, laster sartu zen alboko ataritik. Barnetik, bestelakoa zen eliza. Bat-batean ahaztu zituen hitz teknikoak: girola, abside, ganga, giltzarriak eta abar; izan ere, sentimenduei bidea egin behar zien. Apaindura gutxikoa eta soila zen, baina espazio garbi eta handikoa. Gora begira zutabe oktogon finek gorabidea markatzen zuten. Hiru nabeak ia ez ziren desberdintzen. Nabe nagusiak goialdera eramaten zituen beste biak espazio bakar batean. Santa Mariak zutabe arin soilekin eta beirateetako argiaren eraginez grazia eta bakea transmititzen zituen. Garazi, abside eta osotasunari begira eserita, lasai eta zoriontsu sentitu zen. Han geratu zen ordu luze batez, bakean.

Izanen zen intsentsuaren eraginez, baina erdi zorabiatuta atera zen passeig del Bornera. Kanean gora, mendialdera, Montcada kalea ikuskatu zuen, hura ere jendez gainezka. Kale berezia, jauregi ezagun asko zuena, beste batean ibiltzeko utzi zuen. Laster, Picasso Museoa eta euskal etxea behintzat bisitatzeko asmoa zuen. Borneko plaza hura bizia zen, terraza eta denda ederrekin. Itsaso aldera jo zuen, Barceloneta aldera. Tren geltoki handi eta ederrean sartu zen, Estació de França famatuko hall ederra miresten geratu zen. Novecento estiloan, marmolek eta brontzezko moldurek eder egiten zuten dena; hiru gangek, kupulek, handi. Beste mundu bat balitz bezala nasetara pasa egin zen. Hamar bat trenbideak babesten zituen egitura burdinazkoa zen. Ez edonolakoa, ordea, mende hasierako arkitektura industrialaren oso ederra, Paris-Orsay bezalakoa, batzuen arabera geltoki hura gogoratzen zuena behintzat. Berak ez zion antzematen.

Berandutzen ari zen eta portu aldera jo zuen. Ez zebilen jende askorik eta itsasuntziak begiratzen ibili zen. Urrutian Barceloneta aldera barku handiagoak nabari ziren. Gehienak, hala ere, itsasuntzi txikiak ziren, hamar-hamabost metrokoak. Urrutiago turismo egiteko itsasuntzi erraldoi bat sumatu zuen: itsasuntzi eder baten gainean hotel handi bat jarri izan balute bezalakoa zen.

Carrer Ample eta carrer Avignotik itzuli zen pisura. Garai batean, ehunka urte lehenago, besteak baino kale zabalagoak eta komertzialak izandakoak. Une batean auzo Gotikotik atera, Ramblak gurutzatu eta Ravalen sartu zen. Pisura igo aurretik, ohar batean apuntatutako jakiak erosi zituen etxe ondoko dendan. Handik gutxira, WhatsApp bat jaso zuen. Pera zen eta ez zekien nola jokatu. Edozein modutan, morboagatik izanen zen, ireki eta erantzun zuen pentsatu gabe.

–Kaixo Garazi, zer moduz? –Irribarre handia zuen emotikonoarekin bukatzen zuen, baita musuka bihotza botatzen zuena. Jarraitzen zuen bigarren lerroan adierazpen harrigarri batekin.

–Zerbait garrantzitsua kontatu nahi dizut. Eskaintza berezia egingo dizut. Erantzun nire mezua edo gera gaitezen lasai hitz egiteko –neskak erantzutea erabaki zuen.

–Konta ezazu zer nahi duzun! Ez dut jolaserako gogorik. –Haserrea adierazteko emotikonoa jarri zuen. Berehala jaso zuen erantzuna.

–Elkarrekin... gauza pila bat egiteko proposatu nahi dizut. Zuk nahi duzuna egingo duzu. Gustukoak ez badituzu, ez dituzu egin behar izango. Mundua gurea da! –Emakumeak aski zela pentsatu zuen. Ez, ez zuen egingo nahi ez zuena. Zer uste zuen morroi hark? Ederra, erakargarria eta aberatsa izateagatik nahi zuena eginen zuela? Baita zera ere! Ez zuen bera manipulatu. Haren jostailua aste batzuetan izan, eta gero popatik bidaltzea espero zuen. Ez zitzaion gizona eta bere jokaera gustatzen eta moztea erabaki zuen.

–Utzi bakean –Emotikono aproposa aurkitu ez, eta aurreko aurpegi haserretua sei aldiz errepikatu zuen. Itxi zuen elkarrizketa eta itzali zuen telefonoa. Ideia txarra izan zuen. Ez zekien zer espero zuen, imajinatu behar baitzuen gizona harroa bezain ergela zela. Tartean zerbait harrigarri eta interesgarria egiteak ez zuen gizonaren tontakeria deusezten.

Ez. Ez zuen garbi bere bizitzarekin zer egin nahi zuen. Ordura arte, ziurtatuko zuen egin nahi zuena egiten zuela. Hura zen bizitza guztian eduki zuen bere buruarekiko araua. Ez zion inork erranen zer egin behar zuen. Bertzeen aholkuak eta iritziak kontuan hartu eta onartzen zituen, baldin eta azkenean erabakia berak hartzen bazuen. Jokaera honek bazuen alde txarra. Zer egin ez zekienean oso gaizki pasatzen zuen; baina edonola ere, orduan ere mantenduko zuen jokaera. Bartzelonan Arte, Hitz larriz idatzita, ikasi nahi zuen eta momentuz ez zuen alternatiba kontuan hartu nahi. Alternatiba, Ikerrekin itzultzea eta etxetik hurbil ikastea zen.

Ikerrekin hitz egin behar zuen, baina ez zuen dependentziarik nahi. Haren laguntza ongi etorriko zitzaion arren, adostu zuten bezala ostegun arratsaldera arte ez zuten hitz egingo. Garazik berak hitz emanarazi zion maite zuen gizonari lasai hausnartzen eta pentsatzen utziko ziola. Eta osteguna zen. Sakelekoa berriro piztu zuenean ikusi zuen Ikerrek mezu bat bidali ziola. Gizonak ez zion aste osoan deitu edo mezurik bidali, berak eskatu zion bezala. Epea beteta, erantzuna eskatzen ez zuen mezu sinple bat jaso zuen:

–Kaixo Garazi. Zu gabe ez naiz ni. Hitz egin behar genuke. Nahi duzun arte. Maite zaitut.

Garazi ez zegoen Ikerrekin mintzatzeko prest. Afari arina hartu zuen eta ordu batez irakurtzen aritu zen. Edozein modutan ere, ezin zuen momentuko egoera ahaztu. Perak bere apeta guztiak beteko zituela agindu zion. Ikerrek maitasuna eta laguntasuna emanen zizkion. Ez zuen dudarik. Garbi zuen zer nahiago zuen, baina edozeren gainetik behar bat zuen: arteaz gehiago jakitea. Arte Ederretan sakondu eta ikastea zen bere helburua, orduko bere ezinbesteko beharra. Lotara joan zen pentsamendu haiek bueltaka zituela.

Ostirala konturatu gabe pasa zitzairen. Lan egin ondoren arratsaldean elkarrekin ibili ziren bi lagunak pasean eta zerbait ahoratu ondoren laster etxeratu ziren Larunbatean lan handiko eguna izaten baitzuten. Eskerrak Garazik aurreko lau egunetan lanetan ongi trebatu zen eta Alfonsek, larunbatero laguntzera joaten zen zerbitzariak, beraien lana arindu zuen. Larunbat gehienetan bezala museo garaikidera, MACBAra joaten ziren bisitariak ziren bezero gehienak. Ongi moldatu ziren lanean, trabarik egin gabe, kafe orduetan ez ezik hamaiketako eta bazkariak ematen geratu gabe ibili ziren. Ia ez zuten atsedenik hartu eta mokadurik sartu. Leher eginda bukatu zuten bi lagunek. Kati eta Garazi etxera joan ziren kuluxka egitera, nekatuta eta propinetan dirutza lortuta.

Arratsaldean Caixaforumera joan ziren bi lagunak. Kati eta biak, fundazioaren eraikin modernistan "Turbulencias" bilduma bisitatu zuten lehen lehenik: hogeita hamar bat artisten estilo desberdinetako lanak ikuskatu zituzten, munduarekiko kritika azaltzen zutenak. Lanetan ezohiko ikuspuntu sozial eta kulturalak azaltzen ziren. Adierazpen handiko lanak zirenez, ikusleek bere pentsamendu edo ikuspuntua adierazten zieten aldamenean zituztenei. Beste areto batean, "Faraón" izeneko erakusketan, British Museotik ekarritako piezek antzinako Egipto eta errege haien bizitza erakusten zuten. Oso interesgarria zen eta bisita gidatu bidez erakusten zuten, baita umeentzat bereziki prestatuak ere. Beste gela batean, "Una cierta oscuridad" titulupean, argazkietan erakusten zuten sozietate edo jendarteko hainbat egoera eta jarrera. Bi lagunak ezin hobeki ibili ziren, lagunekin geldituak zirela gogoratu ziren arte. Joseph Beuys-en lan iraunkorra ikusi gabe utzi behar izan zuten. Aretotik museoaren terrazara igo ziren. Han ziren Andreu eta Dolors haien zain.

Montjuic mendia eta inguruak ikusten ahal ziren eta haiei begira hurrengo batean elkarrekin eginen zituzten bisitaldiez mintzatu ziren. Zer eginen zuten erabaki behar zuten. Ez ziren orduan Montjuic-era joanen, berandu baitzen. Hurrengo asteburuan, igande goizean joanen ziren inguru hartako museoetara: begibistan zuten jauregi handi eta eder hartara lehen-lehenik, Kataluniako Arte Museo Nazional handia; Museo Arkeologikoa eta Miró Fundazioa ikusiko zituzten indar eta gogorik izanez gero.

Garazik, ikusi nahi zituen beste leku batzuk errepasatu zituen: Atarazanak, Colon, Barceloneta, Gaudiren artelanak, Sagrada Familia eta Güell parkea bereziki; Mapfre Fundazio modernista ere bai. Denak noizbait bisitatuko zituen.

Kanpoan, Espainia plazan, Les Arenes zezen-plaza izandako merkatalgune modernistan sartu ziren. El Terrat izeneko miradorean, mota guztietako jatetxez inguratuta, ikusmira ederrez gozatu ziren. Egunaren azken orduetan, garagardo bat hartu zuten inguruari begira. Orduantxe besteek aipatu zioten Garaziri hurrengo egunean, iluntzean, festa batera joanen zirela. Aspaldiko zezen plaza hura, merkatal zentro handia zen eta beheko lau solairuetan mota guztietako dendak topa zitezkeen. Dendetan jendetza zebilen erosten, probatzen eta begiratzen. Beheko solairuan janari azkarreko hainbat jatetxe zeuden. Haietako batean, urdaiazpiko ona zuten jangai nagusi eta merienda-afaria han egitea erabaki zuten. Iberikoen ogitarteko goxoak eta garagardo freskoak dastatu zituzten. Larunbat gaueko festa-giroa sumatzen zen eta beraiek orduko eta hurrengo egunerako planak zehaztu zituzten.

Lagunek hurrengo egunean Peraren festara joateko konbentzitu nahi zuten Garazi. Berak, azkenean, jende asko joanen zela entzun zuenean onartu zuen besteekin egoteagatik; Peraren erruz lagunarte hura ez galtzeagatik. Gaueko plana disko batera dantzatzera lerratu zen. Dantza gogoak eta

elektronikoa ez entzuteak auzo gotikoan zegoen disko-pub berezi batera bideratu zuten aukera. Leku hartan ez zen elektronikorik entzuten eta musika dantzagarria omen zen.

Lizeo metro-geltokitik hurbil, Escudillers karrikan lokal kolorista eta dotore batean sartu ziren. Sei eurogatik sarrera eta kontsumizioa ematen zuten. Konbinatuak eskatuta sofa batzuetan eseri ziren. DJ batek musika funk eta soul tartekatzen zituen. Ipar-amerikar beltzen musika zen hura. Giro ikaragarria lortu zuten. Jendea lagunkoia zen eta ez zen giro txarrik nabaritzen. Kanta ezagunak ziren denak eta gustura egon ziren kantatzen, entzuten eta dantzatzen. Lekua nahiko txukuna zen gainera. Konturatu orduko beste hiru kubata hartu zituen Garazik, besteek bezala eta leher eginda zegoen, besteak bezala. Goizeko lauretan elkar agurtu zuten arratsera arte. Kati eta biak etxeratu ziren. Eskerrak hurrengo goizean festa zuten.

Igandea zen, festa eguna, eta gaztea ohean geratu zen ordu batez. Ez zuen presarik, bazkari hotza eginen baitzuten hirurak aldera. Buruari eragin eta eragin ondoren, erabaki zuten beranduago Ikerrekin hitz egitea. Garazik garbi izan zuen hark ez ziola ezertan eragozpenik jartzen. Ordura arte uste zuten Iker ala bizitza berriaren artean aukeratu behar zuela. Baina Ikerrek inoiz ez zion baldintzatu nahi, ez ikasketa ezta bizitokia ere. Garazik berak uste zuten Ikerrekin jarraitzeko Iruñean edo Gasteizen geratu behar zuela. Hala ere, zergatik izan behar ziren inkompatibleak maite zuten gizona eta egin nahi zuten bizitza? Iruñera itzuli baino lehen, beste leku batean, kultura desberdin batean egin nahi zituen ikasketak. Ikerri nahi hori adieraziko zion eta berarekin Bartzelonara etor zedin eskatuko zion. Gizonak informatika ikasi zuen eta edonon egiten ahal zuen lan. Biak euskalzaleak ziren, baina esperientzia berriek eta beste hizkuntzek ez zituzten beldurtzen. Hala ere, Pera eta bere erasoan aurrean zalantzan jarri zuten Bartzelonako egonaldia. Zer egin behar zuten, beste leku bat aukeratu? Madril aukeratu, Gasteizera joan edo Iruñera itzuli behar zuten? Ikerren babesa bilatu behar al zuten? Inola ere ez. Inork ez zion bere aukera zapuztuko. Ikerrek ez zion ezer derrigortzen eta Perak ez zuen kikilduko.

Eguerdian bi pisukideek elkarrekin bazkaldu zuten, isilik eta nork bere kontuetan pentsatzen. Arratsaldean, lasai ibili ziren. Katik bere gauzak jaso zituen. Astelehenean hegazkina hartuko zuen Dolorsekin Erroman aste bat pasatzeko.

Kati eta Garazi Peraren festara mugitu ziren. Gracia auzoan, Peraren familia-etxea hiru solairuko txaleta zen, lorategi handia zeukana. Inguruan beste txalet asko zegoen. Sarrera irekita topatu zuten eta beste pertsona batzuk ari ziren sartzen. Haien atzetik sartu ziren. Etxearen atzealdean lorategi zabalaren mutur batean, jakiz betetako mahai luze bat zuten antolatuta. Delicatesen asko zuten aukeran: iberikoak, gaztak, pateak, kabiak, ostrak, entsalada, entsaladilla eta mariskoak. Gonbidatu gehienak zerbait zerbitzatzen ari ziren plater banatan. Hura zen hura bufet dotorea eta goxoa! Mota askotako edariak, Cava eta xanpaina errege, plastikozko edalontzietan banatzen zituzten. Lorategiaren erdiko gunea libre zegoen une hartan eta bestaldean etxeko negutegiaren ondoan oholza altu bat jarria zuten. Ospakizun berezi bat egin behar omen zuten.

Gonbidatuak janariaz hornitu ahala erretiratzen ziren eta lekua uzten zieten besteei. Han topatu zituzten Mariela, Dolors eta Andreu. Haiek beste guztiak ezagutzen zituzten. Hirurogei bat gonbidatu elkar agurtzen eta hizketan ari ziren, "delicatesen" haiek ahoratzen zituzten bitartean. Handik gutxira edariak izanen ziren denen intereseko gauzak. Zortziak ziren eta afari-merienda pil-pilean zegoen.

Garazik ez zuen beste inor ezagutzen, baina bere lagunak aurkeztu zituzten haietako batzuk, artistak edota arte gaietan zale.

Iluntzen ari zuen eta su-ziri batzuk piztu zituzten handik zebiltzan zerbitzari batzuek. Pera ez zen ikusten, baina norbaitek aipatu zuen laster izanen zela. Lagun taldea mahaira hurbildu zen. Garazik entsaladilla pixka bat eta pate kanape batzuk hartu zituen platerean. Zilarrezko sardexka txiki bat hartu zuen eta buruarekin agurrei erantzuten zebilela, janari goxoa dastatu zuen. Edarietara zuzendu ziren ondoren. Cava eta xanpaina aukeran zuten. Freskagarriak, ardoa eta garagardoak zituzten aurrean. Garazik pentsatu zuen kontuz ibili behar zuela. Buru argia behar zuen eta ura aukeratu zuen.

Musika ez zuten oso ozen jarri. Zerbitzariak Veneziako inauterietako bezalako kareta banatu zituzten aukerak eskainiz. Une hartan Garazi konturatu zen oholtzan meza baterako parafernalia antolatu zutela, aldare eta guzti. Orduantxe norbaitek hitz egin zion. Pera zen.

–Kaixo Garazi. Etorri zara!

–Hain harrigarria al da? –intimitate tonu erakargarri bat aukeratu zuen gizonak.

–Uste nuen beldurtuta zeundela.

–Zergatik diozu?

–Nigandik ihesean zabiltzalako. Geldituko al zara nirekin gaua pasatzera?

–Ez. Baina, zer uste duzu zuk? Nondik atera duzu zurekin interesatuta nagoela? Beldurrik ez izateak ez du erran nahi zurekin egon nahi dudala. –Gizonak ahotsaren tonua aldatu zuen. Bere burua animatu nahi izan balu bezala, sekretu bat kontatu zion.

–Gero, errito bat egingo dugu. Posesio bat ikusiko duzu.

Musikak ozenagoa zirudien. Garazik musika koloretan ikusten zuela pentsatu zuen. Konturatu zen edalontzietan zerbait bota zutela, LSD edo haluzinogenoren bat. Eskerrak gutxi edan zuen. Pentsatzeko gauza zen, ingurukoak haluzinazioan murgiltzen ziren bitartean. Doinu sideral eta zeharkako argitasunak lagunduta giro intimista batera pasa ziren segundo batzuetan. Bat-batean su-ziriez gain argizariak piztu zituzten eta argi artifizial bakarrak taula-gaina argizatzen zuen.

Egurrezko oholtzaren gainean Perak tunika zuri luze bat zuen jantzita. Fokuen argitan izaki dirdiratsu eta transzendente zirudien gizonak, Kristo berpiztua edo. Eskuak altxatu zituen denei dei egin nahi izan balie bezala. Ez zuen ezer erran, baina modu batean edo bestean emankizun edo adierazpenari eman zion hasiera. Danbor hotsak urrunetik hurbildu balira bezala entzun ziren. Soineko gorritz jantzitako emakume beltz altu batzuk agertu ziren. Irrintzien antzeko oihuak egin zituzten intsentsu-ontzietatik kea eta usaina zabaltzen ari ziren artean. Santeria, Brasil edo Karibeko aztikeria-saioa zen hura? Hala zirudien danborren erritmoa areagotu eta ozenagoa egin zenean. Ahotsak azentu afrikar eta karibeko doinuaz kantatzen edo erreztatzen ari ziren. Bat-batean isiltasuna egin zen. Ezerezetik oilarrari, edo

oiloa ote zen ezin jakin, matxetez lepoa moztu eta odol zorrotadak zerizkiola inguru hartan odol-euriz zoruan puntu gorriak zabaldu ziren.

Emakumeak ezin zuen sinetsi. Hura guztiaren protagonista Pera zen. Berak zeukan oiloari lepoa moztu zion matxetez. Botila batetik ura edo kolorerik gabeko isurkia ihinzatu zuen, putz eginez, ingurukoak bedeinkatuz. Hitz mordoilo eta nahasiak ziren kantuan egiten zituztenak. Berari gehiegizkoa iruditu zitzaion hura. Santeria-errito bat zen hura. Ezin zuen jasan. Zer nolako komedia edo antzerkia antolatu zuen zoro hark?

Inguruan denak lilurutzen ari ziren. Komentarioak entzun zituen: “Hau bai ikuskizun harrigarria eta ederra!”, “Mesias bera dirudi!”. Egoera surrealista zen. Garazik begiratu zien Kati eta Dolors lagunei. Ez ziruditen hain liluratuta. Katiri joanen zela adierazi zion eta poliki ateruntz jo zuen.

Meta-anfetaminaren eragina nabari zuen. Metroaren sarrerara hurbiltzean zorabio txiki bat jasan zuen. Gutxi, baina ez zuen burua erabat ongi. Ondorioak oso kezagarriak ez izatea espero zuen. Hala ere, pentsatzeko gauza zen. Zer zen Perak antolatu zuen hura? Santeria-saio edo horren simulazio bat. Horiek ziren Perak eskaintzen zituenak; ez zen haluzinazio kolektibo bat baizik. Metroan berehala zen pisutik hurbil. Argizatutako lekuetatik ibili zen arin. Pisuan giltzaz bai, baina ez zuen kisetaz barnetik itxi. Gogoratu zuen Katik esan ziola Mertxe gauean agertuko zela eta bera ere bai.

Komunetik pasa zen eta dutxa bat hartu zuen. Oheratu zenean ez zuen loak berehala hartu. Hurrengo egunean lan egin beharko zuela pentsatu zuen. Katiz gogoratu zen. Egindako lagun berria betiko joanen zen, lehenik Italiara eta Euskal Herrira gero. Damutu zen Katiren zain geratu ez izanaz, agurtu eta bere harrera eskertu nahi izango baitzion. Bera agertu bitartean bere bizitzan pentsatu zuen.

Epilogo:

Bartzelona eta bizitza berria utzi behar al zuen zoro batekin topo egin zuelako? Gaietik kenduko al zuen? Gauza izanen al zen arazoa eta oztopoa saihesteko? Tonto-ergel-babu batengatik errenuntziatu, uko egin, edo utzi behar zion bizitza berria amesteari? Eta Iker aparte eta betiko atzean utziko zuen?

Garazik, mendi eta zeruertzean bi eguzkiren imajina izan zuen buruan, mendi tontor baten bi aldeetatik ateratzen. Eguzki bakarra mendi puntadunaren atzetik bi balira bezala ikustea ez zen haluzinazioa, efektu optikoa baizik. Gogoratu zuen bi eguzkiren irudikapena, eguzki handi, bakar eta erreal bihurtu zela. Bere bizitzako bi gogoak batera eraman ahal zituen.

Bere bizitzako bi eguzkiak Ikerrekin bizitzea eta arteaz disfrutatzea ziren. Arte-historia ikasi nahi zuen leku interesgarri batean, etxetik kanpo, baina ez oso leku urrun edota arrotzegi batean. Italiara edo Parisera ez zen joango garestiak eta arrotzegiak zirelako. Ez zuen aukeratu behar maite zuen mutil eta gustuko eginkizunaren artean. Hura izan zen hilabeteetan aztoratu zuena. Uste zuen Iker, edo hobeki erranda, Ikerren ondoan bizitzea aukeratuz gero, Gasteizen, gustuko baina betiko inguruan geratu beharko zuela. Berdin edo antzera gertatuko zen, Bartzelonara, ia leku idealean, bizitzera joanez gero: lehen ez zuen ulertzen eta uste zuen Iker atzean utzi beharko zuela, ezin zuela Iker behartu bere bizitzan sartzen. Bigarren hori egia zen. Iker gustura bizi zen Euskal Herrian, inguru euskaldunean bizi nahi

zuelako. Dena den, elkarrekin, lagun batzuekin, Bartzelonako Euskal Etxean eta sare sozialen bidez euskaraz bizitzen ahal izanen ziren. Gizonak ez zuen arazorik izanen programatzaile lana bilatzeko.

Garazik, hala ere, erraza zuen: bere nahia eta egoera azaldu eta berarekin Bartzelonara joateko eskatu. Ez zekien zergatik ez zuen lehenago pentsatu. Lau, bost edo gehienez sei urtez Bartzelonan bizi izanez gero ere, Iruñetik lau ordotara egonen ziren eta urtean zenbaitetan egoten ahal ziren etxean.

Mira, La Flaca. Zirt edo zart

Zirt edo zart erabaki behar zuen bere etorkizuna. Izan ere, hilabeteetan bizitza aldatzeko aukera kontuan izan bazuen ere, ordura arte ez zuen posibletzat hartu. Ez zuen erabat sinistu. Dena den, orduantxe erabakiko zuenaren arabera aldatuko zuen bizimodua, erabat.

Askatasuna. Askotan aipatzen da askatasuna. Gehienetan abstraktua, zerbait egiteko edo maizago egin nahian ezin egin daitekeenaren erreferentzia izaten da. Balore absolutu bezala hartzen da. Praktikan, hala ere, ez da horrela. Berarentzat ere askatasuna, zerbait zehatza zen. Egun bakar batean zer egingen zuen erabakitzea zen askatasuna.

Mira, emakume, etorkin eta beste arraza batekoa zen. Beltza. Esan gabe doa pobrea ere bazela. Hau da, haiek ziren sektore ultra-kontserbadoreek sozialki okerren onartzen zituen izaera, egoera eta kualitatetik txarrenak.

Berez, Mira, La Flaca laguntzat, beltz-beltza ez zen, baina mulatoa bai. Hogeita hamahiru urteko emakumeak aipatutako egoera eta ezaugarriengatik batzuetan sufritzeaz landa, dena gainditu, arazoak alboratu eta libreago izateko asmoa zuen. Hala ere, horretarako bazuen egun batean erabaki garrantzitsu bat hartzeko beharra. Zirt edo zart. Ordura arteko bizitzarekin jarraitu, ala behar eta sentitzen zuen bezala, erabat aldatu. Hogeita lau orduko atzerako kontaketa egin behar zuen arratsaldeko zortzietan hasita. Bere bizitzako mugaeguna zela sentitu zuen.

Egun hartan, egunero bezala, goiz guztian garbiketa enpresarako egin zuen lan: goizean goiz bulego batzuetan, eskola publiko batean gero eta enpresa bateko hornitegietan bukatzeko. Sei ordutan lan eginda, erosketa batzuk egin eta bazkaria prestatu zuen bera eta senararentzat. Mirenek, hamaika urteko alaba, eskolako jantokian bazkaltzen zuen eta arratsaldeko eskolak hartzen zituen lau eta erdiak arte. Juan, senarra, lanera itzultzen zenean emakumeak etxeko lanak egiten zituen. Horrela egunero eta arratsetan afaria prestatu bitartean alabarekin izaten zen.

Emakumea, alaba eskolatik jasotzera joan zen. Batzuetan Lucreciarekin kafetxo bat hartu eta itzuli bat egiten zuen. Edonola ere, azken aldian alaba kozkorrak ez zuen bere beharrik eta emakumeak bakardade izugarria sentitzen zuen. Dormitalerian bizi zen. Bost minutuan San Frantzisko eskoletara heldu zen haurren irteerarako prest. Miren atera zenean neskak musu iheskor bat eman eta merienda eskatu zion. Lucrecia, bere laguna, ez zen agertu. Elenek, haren alabak, esan egin zion ama lanean zela eta merienda goizetik hartu zuela. Mirenek ia ez zuen beltz arrastorik. Bertako neska beltzaran bat zirudien: ile beltz-kizkurra, sudur txikia, larruazal argi samarra, begi arreak eta gorputz liraina. Batek baino gehiagok galdetzen zuen ea ijito ez ote zen. Neskak hamaika urterekin, lotsatuta edo, amari ia ez zion kasurik egin, merienda hartu bai, baina Elenerekin geratu nahi zuen eskola ondoko plazan jolasten. Biek bazekiten nola jokatu eta zer egin behar zuten inor arrarorik hurbilduz gero.

–Miren, maitea, meriendatu ondoren, jolasean ibiltzen ahal zarete Elene eta biok; baina kontuz, ez ibili jende ezezagunekin. Dena den, sei eta erdietarako etxean izan... –haurrak, haserre, jarioa moztu zion amari. Aipatu bezain laster ama konturatu zen alaba ez zela jada txikia eta astuna zela kontu horiekin, alabaren segurtasunarekin.

–Badakit. Aldiro esaten didazu. Ez naiz umemoko bat.

–Ez, ez zara jadanik. Barkatu, baina ezin naiz isilik egon. Badakizu... –alabak berriro eten zion jarduna.

–Bai, ama. Ez kezkatu. Kontuz ibiliko naiz. Elene eta biok badakigu hemendik ibiltzen. Biok ordurako itzuliko gara etxera. Orain, zoaz lasai.

–Ondo da. Gero arte maitea.

Neska argia eta ona zen Miren, estutzen ez zutenean bederen. Miraren ilusioa zen alaba. Horregatik jasan zuen eta ez zuen lehenago etxetik alde egin. Juan, aita eta senar ona zen, gehienetan. Mirak Ikasketak bukatu eta kazetaritzan aritzeko kontuan, berarekin ulerkorragoa izan balitz, behintzat...! Baina, senar burugogorrak uste zuen diru gutxiago izateaz aparte, Flacak, alaba eta bera alde batera utziko zituela, ikasten jarraituz gero.

Egun osoan lanean pasa ondoren, bakarrik sentitu zen Mira. Lagunek lana edo zeregina zuten. Denbora zuenez, Dormitaleriara mugitzeko zuzenean egin beharrean itzuli txiki bat egin zuen. San Lorentzo eliza ondotik pasa zen arin, kasurik egin gabe. Kalea pasa zuenean, ordea, Takoneran sartuta, hosto berriko udaberriaren indarra sentitu zuen. Pausoak mantsotu eta Atari Berrira hurbildu zen. Gustatzen zitzaion leku hura. Alde Zaharraren eta berriaren artean, goiko hiria eta Argaren bestaldeko beheko auzoen artean hiriko parke eta pasealekurik handi eta ederrenean ongi sentitzen zen. Leku eta paisaia haietan, bi mundu desberdintzen ziren bezala, bere bizitzako muga batean zegoela pentsatu zuen emakumeak. Alde batean geratzen zen pasatako bizitza eta egoera gogorra: etorkin eta titulazio baliagarria ez izateagatik gaizki ordaindutako lana onartu behar zuen. Okerragoa zen batzuetan jasan behar zituen irainak: nagusien tratu mesprezagarriak eta gizonen jokaera lizun, matxista eta erasokorra zen txar-txarrena. Juani, senarrari, ez zion ezer kontatzen, hasieran egoera aldatuko zelakoan eta auzo-lotsaz gero. Bestalde, uste zuen di-da dena ahaztu eta iragana atzean utziko zuela. Paseoko pasarteak bere bizitzakoa irudikatzen zuela pentsatu zuen. Lasaitzeko eta bere senera itzultzeko aukera ematen zioten paseoek.

O-ko Andre Maria birjinaren plaza ondoko balkoitik Errotxapea eta Ezkaba begizatzen ahal ziren. Egunaren ederraz eta paisaia berdetuaz gozatu zen. Lasaiago, jarraitu egin zuen Errondako pasealekutik. Hala ere, ez zuen arazoa baztertu erabat. Buruaren zoko batean sentitu zuen zirika. Errondatik jarraitu zuen paseatzen. Santo Domingo gurutzatzeak arazoa saihestea bezala izan zen. Aparkalekua zeharkatu eta harresiko bidea pasata, Nafarroako artxibategi eta Errege-jauregitik Zumalakarregiren atarira heldu zen pauso mantsoez. Redinera pasa zen. Zaldi Zuriaren ostatua ipuinetakoa iruditu zitzaion beti. Medialunara joaten zen askotan; baina bestela, egin beharrekoak egin gabe, berandutuko zelakoan etxeratu behar zuen. Arnasa hartu eta abiatu baino lehen San Jose plazan egin zuen azken geldialdia. Bizitzaz gozatu behar zuela sinistu nahi zuen.

Mugitzen ibili zen bitartean, landare, harri eta inguruari begiratzuz, xehetasunetan, betikotasunean pentsatu zuen. Aurreko momentu txarra ahaztuta, naturaren ederra eta unibertsoaren lilura sentitu zuen. Mugitzen ari zela, paisaiei eta zeruari bezala, gauza txikien edertasunean erreparatzen ari zenean ez zuen bere egoeran pentsatu: erabakia hartu egin behar zuela. Eguneroko gauza arruntan

edertasunaz ere gozaten bazekiela pentsatu zuen. Dena den, eseri zenean, emakume ezezagun bat hurbildu zitzaion.

–kaixo gazte, zer moduz zaude? Behin baino gehiagotan ikusi zaitut hemendik, zure familia eta lagunekin. Ni Amalia naiz, ondoko etxe horretan bizi dena. –Plazako izkinako ataria seinalatu zuen–. Kubatarra zara, ezta?

–Bai. Mira naiz. Kubatarra, baina duela hamabi urte bizi naiz hemen.

–Mira? Beste ezizen bat entzun dut zuri deitzeko.

–B... Lagunek aspalditik La Flaca edo Flaca deitzen zidaten eta horrela deitzen didate hemengoek. Neska luzexkei deitzen diete horrela Ameriketean.

–La Flaca. Nola ez. Liraina eta ederra zara. Deigarria... –bat-batean gaiz aldatuta zuzendu zitzaion emakume gazteari–. Oso triste eta kezkatuta ikusten zaitut. Zer duzu?

–Barkatu Amalia, baina ez zaitut ezagutzen.

–Ez, baina lagundu nahi zaitut. Gauza bat esan behar dizut orain dena beltz ikusten duzu. Lasai, larritzen ez bazara zure bidea eta zure ingurukoena topatuko duzu. –Mirak hotzikara bat sentitu zuen. Ez zirudien emakumea asmo txarrez zebilenik. Edonola ere, ez zuen ezezagunarekin jarraitu nahi.

–Barkatu, baina egitekoak ditut. Mila esker aholkuagatik. –Altxatu eta joan zen.

Errealitate krudelera itzuli behar zuen. Etxeko lanekin jarraitu eta afaria prestatu behar zuen. Bere hausnarrean jarraitu zuen. Lan hura bederen gustura egiten zuen. Lanean, ordea, esplotatuta sentitzen zen eta nagusi doilorrak ez zuen ongi hartzen, berak askotan gaizki egina isiltzen ez zuelako.

Iruñean zenetik, eten egin zuen neurri handi batean Kubako bizitzarekin, ia denak oroitzapen txarrak baitziren. Txikitako eskolaz eta laguntxoetz ez zuen oroitzapen txarririk. Hala ere, pobreak ziren, baina okerrenea zen etxeko giroa. Ama gaixorik izaten zen askotan, eta nahikoa zuen seme-alaba txikiekin eta etxea gobernatzearekin. Baina aitak gaizki pasarazten zuen.

Aita autoritarioa eta berekoia zen; gaiztoa eta matxista ere bai. Aitak txikitatik jotzen zuen Mira tontakeriengatik. Aldian behin leporatzen zion beragatik gogor lan egiten zuela. Behin eta berriz errepikatzen zion deus ez eskatzeko, ez arropa eta ez jostailurik, ordura arte Estatuak baleen bidez ia dena ematen zien bitartean. Gaizki begiratzen zion gehiegi jateagatik. Ez zuen bere etxean alabaren lagunik ikusi nahi. Aita zitala. Kubako erara, baina gaiztoa. Kubatarra izateagatik kantua eta dantza, edaria eta tabakoa gustatzen zitzaizkion eta behin pixka bat edanda, denei lagunartekoan parte hartzeko gonbita egiten zien. Bai, ezagun, lagun eta familiako festetan gizonik atsegin eta animatuena agertzen zen. Hala ere, behin baino gehiagotan erakutsi zuen bere alde iluna. Batzuetan etxera bueltan erabat mozkor eta doilor jokatzen zuen, etxekoekin fisiko eta psikologikoki tratatu txarra emanez; Mirarekin, alaba zaharrenarekin gehienetan.

Mira ikasle ona zen. Kasu egiten zuen eskolan eta gustatzen zitzaion azalpenak entzutea, gauzak ikastea eta ezagupenak praktikara eramatea. Gustura ikasten eta erabiltzen zuen matematika, baina are gehiago profitatzen zituen irakurketa eta idazketa, literatura eta gramatika. Hizkuntzak ere gustatzen zitzaizkion. Eskerrak Estatuak ikasketak guztiei segurtatzen zizkien; bestela, aitarengatik balitz ez zuen ikasketekin jarraituko. Hamar urte bete zituenean Habanatik ehun kilometrora zegoen barnetegi batean ikasi ahal izan zuen. Han ikasketak behar bezala jarraitu zituen eta pozik aritzen zen ikaskideekin aktibitate desberdinetan. Lagun handiak egin zituen. Etxera oporraldietan itzultzen zenean faltan izaten zituen.

Emakumetu zenean, oporretan, ateratzen hasi zen. Berehala, auzoko bere adineko lagunak aparte, turistekin eta "jinetero"-ekin topatu zen. Beraiekin ibili gabe ere, dirua lortzeko egiten zutena ikusi zuen. Dirua, arropa eta janaria eskuratzearen prostituitzen ziren asko. Hala ere, hango giroa ona zen parranda eta dantzarako. Hura gustura gogoratzen zuen Mirak. Hamazazpi urterekin hasi zen unibertsitatean kazetaritza ikasten. Bost urtetan antolatutako ikasketak lau urtetan burutu zituen. Udetan gida bezala egiten zuen lan.

Aitak egun batean adierazi zion "jinetero" bezala diru dezente lortu ahal zuela. Neska, hari etxeko traste bat botatzeko zorian izan zen. Aitak ez zuen jo, ausartu ez zelako. Iraina balitz bezala negra deitu zion. Aitak ahaztu egiten zuen bere ama, alabaren amona ere mulatoa zela. Aitaren familiakoak beltzaranak ziren, oso latinoak, amarenak zurbilagoak ziren bitartean. Txarrena zen aitak zerbait txar bezala leporatu ziola. Bestalde, aitaren iritziz bizitzan inportanteena diruarekin gauzak lortzea zen. Ordura arte Miamira joan ez izana arraroa zen. Izango zen itsasoaren beldur zela.

—Mira, nik ezin dudalako, bestela turisten dirua jasotzen ibiliko nintzateke. —Esaldia, umorez zebilen egun batean bota zion aitak. Mirak, burua beste gauzetan, ez zuen ongi ulertu eta erlazionatu zuen bere gida lanarekin. Aitak are gehiago azpimarratu zuen—. Bai, erraz lortuko nituzke egunero ehun bat dolar. Edonola ere, dirua sartuko nuke etxean. Zure amak eta senideek behar dute arropa erosteko. —Ulertu zuen, ederki ulertu ere. Aita manipulazalea zen, txantaje emozionala egiten maisu.

—Badakizu gida turistikook ezin dugula eskupekorik... —Aitak moztu zion.

—Kaiku alaena! Gidariok tonto hutsak zarete. —orduan, tontoarena egiten ezin zuela jarraitu konturatu zen neska.

—Dirua lortzeko jinetero-ak askotan prostituitzen dira. Ezin dut sinetsi esaten ari zarena! Nola esan dezakezu horrelakorik?

—Hara tuntuna! Dirua dirua da.

Hamahiru urte lehenago, hogeita bat urterekin ikasketak bukatu berritan, Habanako egunkaririk garrantzitsuenean praktika eta lan xumea egin arte hilabeteak pasatuko ziren. Bitartean aurreko uda batzuetan bezala gidari lanetan ibili zen Estatuako Agencia Cubana de Turismo-an. Berak turista taldeak gidatzen zituen, Habanako alde zaharrean gehienetan: Malekona, portua, monumentu garrantzitsuenak, bertako kultura-produktuak eta musika-eskaintzak; tabernak eta museoak. Jinetero-en artean mugitzen ziren. Turistak La Bodegita del Medio-n mojitoak hartzen utzi zituenean jinetero-

ak agertu ziren. Gidek ezer egin ezin zutenez, bera ondoko etxe-atari batean eseri zen. Ezagutzen zuen Lucrecia, Lulu lagunentzat, bi turistekin zegoen hizketan. Lucreciak bera ikusi zuenean hurbildu zitzaion eta aurkeztu zizkion. Esteban eta Juan ziren, Iruñekoak eta jinetero-arekin ibiltzen ari ziren. Lucrecia, Lulu, Estebanekin ari zen ateratzen eta eskaintza berezia egin zioten Mirari.

–Flaca, bisita honekin bukatuko duzu gaurko lanaldia. Etor zaitetz gurekin. Malekon ondoan festa bat antolatu dugu eta musika eta ron ona dauzkagu.

Berak ez zuen jinetero-arena egin nahi, baina Lulurekin ongi konpontzen zen eta iruindar haiek gustatu zitzaizkion. Ez ziren desatseginak eta ongi tratatzen zituzten bertakoak. Ez zuten prostitutarik bilatzen eta beraien artekoa naturala zen. Juan gustatu zitzaion Mirari. Horrela ezagutu zituen Juan eta bere lagun Esteban. Egun hartatik elkarrekin atera ziren lau lagunak. Mirak libre zuen denboran Juanen ondoan pasa zuen. Biak elkarrekin maitemindu zirenez Juanek oporraldia luzatu zuen.

Hilabete pare bat beranduago Juanek lortu zuen ezkontzeko baimena. Kuban agertu zenean epaitegian ezkondu ziren, ospakizun xumea egin zuten eta Iruñera joan ziren bizitzera. Handik gutxira, Lucrecia eta Esteban ere ezkondu eta ondoan jarri ziren bizitzen, Dormitaleria kalean bertan ere.

Mirak uste zuen Iruñean bestelako bizitza izanzen zuela. Haurdun geratuta, hurrengo hiru urteetan ia bere bizitza guztia, haurra, Juan eta etxea izan ziren. Lulu izan zen bere salbazioa. Bikotekideek ia ez zuten beste lagunik, Esteban eta Lulu izan ezik. Lau lagunak elkarrekin ateratzen ziren gauetan, alabak, Miren eta Elene, beste norbaitek zaintzea lortzen zutenean. Asteburuetan, egunez seiak ibiltzen ziren Iruñean, inguruan edo opor batzuetan mendi edo hondartza ondoko kanpinetan.

Hiru urte haiek pasatu ziren. Mira, kazetaritzako lana bilatzen hasi zenean konturatu zen ezin izango zuela. Balidazioak eginda ere, urte bat baino gehiago pasatu behar baitzuen, ikasgai batzuk gainditu ondoren bertako titulazio baliagarria lortzeko. Alaba txikia haur-eskolan utzita, momentuz, lan kontuetan garbiketekin hasi zen. Juanek zioen ez zutela askoz diru gehiago behar bizitzeko. Kazetaritza egiteko Mirak bi urte eman behar zituen eta gero lana lortuz gero, beti kanpoan eta desorduetan ibiliko zen. Hala eta guztiz ere, Mirak mugitu behar zuen. Bizimodu harekin, mundua txiki egiten zitzaion. Jendearen arazo eta inguruan gertatzen zenaren jakitun izan behar zuen. Jendearen beharren berri izan eta gertatzen zena jendeari eskaini nahi zion.

Urteak pasata, jende gutxirekin zuten harremana. Eguneroko bizitzan oso harreman zabalak ez bazituzten ere, tratu zuten batzuekin. Izeba Eli beti gainean zuen Mirak. Emakume horrek Juan hezi zuen bigarren ama balitz bezala, bera oso txikia izaki, bere ama hil zenean. Izeba Eli sarkin bat zen. Gauza guztietan sartzen zen ahal zuen guztietan. Mirenentzat amona zen eta Mirarentzat, berriz, amaginarreba, amaginarreba doilorra. Kubatarrak alferrak eta parrandazaleak zirela ez zuen esaten, baina pentsatzen zuen; emakumezkoak freskoak eta lotsagabeak zirela, alegia. Anitzetan agertzen zen beraien etxean. Beti gauzak nola egin behar ziren eta emazte on baten betebeharrak ahotan. Aldian behin Miraren huts egiteak aipatzen zituen bere hobe beharrez. Gainean zebilen gupidarik gabe. Izeba Elik, berarekin bederen misogino jokatzeko zuen. Langile, isil, meneko jokatu behar zuen Juan eta familiakoekin. Alienante eta aspergarria izan behar zuen Miraren bizitzak, etxezkoak, Juan eta Miren benetan maite bazituen.

Izebaz gain, bertako ezagun batzuk bazituen Mirak. Eskolako guraso batzuekin erlazionatzen zen arren, ez zuen harreman gehiegi, ordea. Batzuk euskaldunak ziren eta Mirak hitz egiten zuen pixka batean, Mireni laguntzeko bere kabuz hizkuntza ikasi zuenean. Hala ere, lagun gehienak dominikarrak eta kolonbiarrak ziren eta Lulu lagun minena. Biak lagunak ziren La Habanako garaitik, biek adin bereko alabak San Frantziskoko eskoletara eramaten zituzten eta Dormitalerian bizi ziren; baina, Mirak... Mirak bestelako bizitza behar zuen. Berak ikasketak zituen arren, kazetaritza ikasi baitzuen, garbiketetan egiten zuen lan.

Mirak ezin zuen bizitza aldatu eta berri bat bilatu beharrean zegoen. Zalantzatan, erabat nahasita zebilela, egun batean Ernesto agertu zen lanean. Hilabete batzuk lehenagotik emakumeak bulegoan eta eskoletan lana bukatu ondoren motor txikia hartu eta industriaguneko enpresa hartara heltzen zen bere lan eguna ez, baina lanaldiko azken geltokira. Hornitegi handi hura garbitzen hasi baino lehen, goiz erdian, beste langile batzuekin hamaiketako hartzeko ohitura zuen. Bere lankidearen esperoan, besteak agurtu eta hutsik zegoen atsedeen-gelako mahai batean eseri zen. Ogitartekoa eta termoa atera zituen. Jaten hasi baino lehen, ezin izan zion kafe-zurrutada luze bat egiteari eutsi. Orduan ezezagun bat eseri zen ondoko aulkian.

Gizona ez zen oso ederra baina bai erakargarria. Altua, gihartsua, eguzkiak beltzarandutakoa. Ile beltz luzea xingola batekin biltzen zuen lanean ez molestatzeko. Aurpegi luze samarra zuen eta ezpain lodi gorriak, baina bekain finen babesean begi berde irribarretsu batzuek bere barnea ukitu zuten.

Bere burua aurkeztu zuen esertzeko baimenik aipatu gabe. Ernesto bere bizitza kontatzen hasi zen. Lasaia, komunikatiboa eta oso atsegina zen. Hippie bat zen. Bilbon hogeita hamabost urte lehenago jaioa, antropologoa zen, baina azken urteetan Arabako herri batean bizi zen komuna txiki batean. Komuna-kideak, berrogei bat, nahi zutena egiten bizi ziren. Gehienek baratza eta granjan lana egiten bazuten ere, jangai eta artisautza produktu batzuk ere egiten zituzten. Hala ere, hura ez zen enpresa bat, askatasunean bizitzeko toki bat baizik. Beraien legea askatasuna zen.

Ondorenean, han zergatik zegoen azaldu zion. Ernestok hilabete batzuetako bidaia egin nahi zuen Ameriketara eta dirua lortzeko lana egin behar zuen enpresa hartan. Familiako lagun batek gomendatuta, bulegoan ari zen lanean. Bestalde, lan hartan aspertzen zen eta lankideak desatseginak omen ziren. Edonola ere, esan zion pertsona interesgarriak ezagutzea gustatzen zitzaioela. Bera, Mira, horrelako pertsona bat zela aipatu ondoren, galdera pertsonalak egiten hasi zitzaion.

–Nabari da ez zarela hemengoa. Nor eta nongoa zara? –emakumeak ez zekien nola jokatu. Hala ere, gizonak formak zaindu zituenez, atsegin eta heziketa onean aritu zenez, erantzutea erabaki zuen.

–Mira naiz, Flaca lagunentzat. Kuban jaioa, baina hemen bizi naiz duela hamabi urte. Ezkondua eta alaba zoragarri bat dugu –eten egin zuen azalpena. Ez zekien zer gehiago kontatu. Ernestok aprobetxatu zuen bere jardunarekin jarraitzeko.

–Flaca, garbi dago ez zarela zoriontsua. Alaba zoragarria izango da, baina nabari da ez duzula nahi duzuna egiten. Zer gertatzen da?

Emakumeak inoiz ez zion inori bere bizitza eta kezka hain zehatz kontatu. Lucreciari kontatu ez zion moduan egin zion ezezagun edo ezagutu berri hari. Bere bizitza, ezintasun eta ametsak kontatu zizkion beldurrik gabe. Ernestok adi entzun zion bere historia. Laburtuta ere, txikitan gaizki pasatzeaz gain, gizonak ulertu zuen zein bizitza estu eta alienatua bizi zuen emakume hark. Konturatzeko, jende gehiago agertu zen. Ordu erdiko atsedena pasa zen, kafea bai, baina bokata txikia bukatu gabe utzi zuen Mirak. Berandu heldu zen lankideak lanerako deia egin zion. Mirak agurtu zuen Ernesto eta lanera abiatu zen. Ernestok hurrengo eguna arte agurtu zuen, ozenki gonbidapena eginez.

Ernestok aurreko egunean “mulata” eder eta lirain hura ikusi zuen bezain laster galdetu zion bulegoko lankideari nor zen eta zertan zebilen emakumea. Gustukoa izateagatik, itxuragatik ezagutu nahi zuen emakumea. Dena den, graziaz mugitzen bazen ere, begirada triste eta kezkatua nabaritu zion. Horrek interesa piztu zion. Ezagutu eta lagundu behar zuen.

Hurrengo egunean berriro hitz egin zuten. Ernestok bere bizimodua kontatu eta pentsaera adierazi zion. Hippien utopia nolakoa zen kontatu zion hurrengo egunetan. Mirak amestu ere egin ez zuen pentsaera ezagutu zuen. Liluratuta zegoen. Interesgarriena zen pertsonak nahi zuena pentsatzeko eta egiteko askatasunari ematen zioten garrantzia. Norberaren ongizatea taldearen gainetik zegoen. Pertsona goratzen zuten edozeren gainetik, jendarte eta taldeen gainetik. Askatasunez pentsatu eta bizi ziren komuna haietan, baita Estatuaren legeen mugetan.

Ernesto arazorik gabe bizi zen komunan. Lasai, nahi zuena egiten, baina dirurik ez zuen. Dirua, bidaia bat egiteko behar zuen eta lortzeko kanpoko lan batean ibili behar zuen. Ernestok garbi adierazi zuen zer nahi zuen. Berarekin eraman nahi zuen komunara. Kazetari izan nahi bazuen lagunduko zuten. Berak hilabete batzuetan ibili nahi zuen bidaiatzen Amerikan. Hilabete parean bidaia burutuko zuen eta maiatzerako itzuliko zen bera eramateko. Bere familiarengandik elkarrekin bizitzeko eta nahi bazuen Bilbon kazetaritza ikasteko diru nahikoa lortu ahal zuela segurtatu zion:

—Flaca, egun hauetan lagunak egin gara. Egun gutxi barru abiatuko naiz, baina maiatzaren erdian zure bila agertuko naiz.

Bidaia egin ondoren komunara itzultzeko asmoa zuen. Orduan beraren bila itzuliko zen. Hiru hilabeteren buruan agertuko zen. Maiatzaren 15ean arratsalderako hitz-ordua eman zion. Hiru hilabeteak pasata, aurreko egunean, Ernesto itzuli zenean telefono mugikorrera deitu zion Flacari eta berriro gonbidatu zuen berarekin komunara joateko. Beraien artekoa ez zegoen erabat erabakita, baina elkarrekin egon ziren momentuetan laguntasuna baino haratagoko harremana sortu zen. Mira berriro maitatua sentitu zen. Musu batzuk baino askoz gehiago ez zizkioten elkarri eman, baina laguntasunaz gain, emakumeak erakarmen sexuala ere sentitu zuen. Aurreko goizean Ernestok deitu zionean emakumeak kontatu zion nahasita zebilela eta gizonak, aldiz, segurtatu zion handik aurrera Bilbon bizitza zoriontsua izanen zutela. Ernestok maitasuna adierazi zion La Flacari. Hilabete haietan zenbait alditan telefonoz mintzatu baziren ere, pixka batean beren gauzez aritu ondoren, hurrengo egunerako arratsaldeko zortzietan geratu ziren hitz egiteko eta berehalakoan elkartzeko.

Mira afaria prestatzen hasi zen. Hogeita hiru ordu falta ziren elkartu arte. Miren eta Juan agertu ziren. Laster afaltzen hasi ziren. Mirak Juan maite zuen. Bere erara maite zuen, baina hark ez zuen bera ulertzen. Juan, mekaniko lanarekin eta lagunekin zoriontsua zen eta Flaca eta Mirenekin osatuta

sentitzen zuen bere bizitza. Ez zuen ulertzen Flacak kazetaritzan edo beste lan batean aritu nahi izatea. Flacak lan horretan aritzeko berriro unibertsitatera joan beharko zuen balidazioak aparte. Urte pare bat gehiago eman beharko zuen gradua lortzeko, eta gero izugarritzko zailtasunak izanen zituen lan horretan bizitzeko moduan aritzeko.

Mirak eguneroko desberdin eta interesgarriagoa nahi izango zuen. Mugitu, jendearekin harremanak izan eta afera eta zeregin desberdinetan ibili. Juanek ulertzen ez zuenez, ez zion Flacari lagunduko, ikasketak osatu eta bizitza-lana aldatzeko. Uste zuen, uste, bera bezala Flaca ere, behin mania hura pasata pozik izanen zela.

Une batean Lucreciak deitu zion Flacari hurrengo egunean geratzeko. Emakumearen harremanak ez ziren anitzak. Familiakoak aparte, laneko harreman arruntak eta bera bezalako beste emakume latinoamerikar batzuk. Aparteko harreman bakarra, Lucrecia, Lulu zen, lagun minena. Lanean ongi konpontzen zen lankideekin. Bi lagunek beraiek bezalako beste emakume eta ama gazteekin ateratzen hasiak ziren noizean behin, zerbait hartzeko edo baita zenbaitetan asteburuko gauetan dantzatzera ateratzeko. Lagunarteko gehien-gehienak beraiek bezala Ertamerikako etorkinak ziren. Juanekin gutxitan ateratzen zen bakarka, ez baitzuten ohiturarik. Juanen lagunak zirela eta, beste bikoteren batekin elkartzen ziren behin edo behin, baina lagun-laguna Lucrecia zen eta gehienetan bi bikoteak ateratzen ziren, alabekin.

Luluk ulertzen zuen Flaca. Biak hazi ziren Habanan eta elkar ezagutu zuten turistekin egiten zituzten festetan, Lucrecia jinetera bezala eta Mira gida turistikoa izanda. Ia bateratsu, Mira Juanekin bezala, Lucrecia Juanen lagun minarekin, Estebanekin ezkondu zen eta Iruñera etorri ziren bizitzera. Garai hartatik ez ziren banatu.

Ona zen Lulu, baina ez zekien Flaca nola laguntzen ahal zuen. Hala ere, La Flaca kezkatia zen bezala, laguna berez oso primarioa zen. Negar egiten zuen bezala, berdin egiten zuen barrea edozein gauzarengatik. Ez zen kezkatia, lagunaren arazoa ulertzen bazuen ere. Edonola ere, zer egiten ahal zuen berak? Bera pozik bizi zen familia, lagunak eta superrean egiten zuen lanarekin. Noizean behin lagunekin ibiltzeak eta larunbatetako dantzaldiek oreka ematen zioten. Lucreciak beste batzuetan bezala, laguna triste sumatzen zuenean animatzen saiatzen zen. Egun batean, bi-hiru aste lehenago, alabak eskolako irteeran jasotzera joan zirenean Miraren arazoaz mintzatu ziren serioago.

–Flaca, anima zaitetz. Ez dakit zergatik jartzen duzun aurpegi tris... serio hori! –lagunak horrelakoetara ohituta, hainbat alditan kontatu ziona errepikatu zion Luluri.

–Lulu, badakizu... Lan txar horiek lau sosen truke egin behar ditut eta gainera nagusiaren tontakeriak jasan behar.

–Denok jasan behar ditugu nagusiak –adierazi zion Luluk irribarretsu.

–Ez dakit nola jasaten duzun dena eta beti irribarretsu ibili.

–Ez da hain larria eta bizitza zoragarria da. Zuk pentsa ezazu familia zoragarria duzula eta lagunok ongi pasatzen dugula festetan.

–Egia da esan duzuna, baina...

–Orduan?

–Behin baino gehiagotan kontatu dizut. Nik bestelako lana egin nahi nuke. Garbiketena ez zait gustatzen. Goizean berriak entzuten ditudanean gogoz joango nintzateke informazio horiek direla-eta elkarrizketa bat egitera edota arazo bati buruz gehiago aztertzerara...

Mirak bazuen premiaz erabaki beharrekoa. Ernestorekin joanez gero, gertatuko zena pentsatu zuen. Berarekin komuna batera joanen zen eta gero denbora batez elkarrekin biziko ziren. Ernestorekin haserretzea zaila zen, beti atsegin, baina ziur aski, hark utziko zuen beste batekin bizitzeko edo beste leku batean bizitza aldatzeko. Orduan La Flaca bakarrik geratuko zen. Suertea izanez gero, ordurako kazetari lanetan aritzeko moduan egonen zen eta Bilbon berritik hasi beharko zuen. Ez zuen bere burua engainatu. Gizonak asmo txarrik ez bazuen ere, ez zuen betiko babestuko. Azken batean zertara konprometitu zen? Egia zen libre izanen zela, nahi zuena egingen zuela. Eta zer? Horregatik libre izatea beste kontu bat zen.

Benetan nahi zuena bizitza itogarri hartatik ateratzea zen. Oso garbi ikusi zuen. Kazetari lanetan ibili nahi zuen. Gogorra eta baldintza txarretan izanda ere, bizitza interesgarria eta jendea laguntzen pasatuko zuen. Berak munduan gertatzen ari zena jakin eta informatu nahi zuen. Jendearen arazoetan sartu eta informatu. Alaba, Juan eta Lulurekin denbora konpartitzea nahiko zuen; baina, aukerarik izan ezean maite zituenak atzean utzi beharko zituen.

Berandu zen. Afaldu ondoren, harrikoa egin, telebista piska batean ikusi eta lotara joateko prestatu ziren. La Flacak gau txarra pasa zuen. Esnatu zen zalantzak bueltaka. Juan maite zuen. Alabaren ondoan eta lagunekin bizi nahi zuen, baina ezin zuen egunerokoarekin. Bat-batean aurreko eguerdian izebarekin izandako solasa gogoratu zuen.

Izebak deitu zien eguneroko kontuez galdetzeko. Deitu zuenean La Flacak zakarki agurtu zuen bazkaria prestatu behar zuela esanez eta erretolika moztu zion. Orduan, izebak Miren eta Juanez galdetu ondoren galdera zuzena egin zion.

–Mira, Juan maite al duzu?

–Bai. Zergatik egiten didazu galdera hori?

–Zure bizitzarekin konforme ez zaudelako –Emakume gazteak ez zuen hura espero eta bere buruari erantzuteko moduko erantzuna pentsatu zuen.

–Hara logika! Zerbait gaizki egiten duenean, maite badut Mireni ezin diot errieta egin? Berdin gertatzen da nire bizimoduarekin. Ez dut parte bat onartzen: garbiketa lanean aritzea. Horregatik ez ditut nireak maite?

–Baliteke. Nik ere maite zaituztet. Horrek ez du esan nahi ez kezkatzea zure asaldurarekin.

–Nire asaldura edota errebeldia desagertuko litzateke gustuko lana eginez gero.

–Ulertzen zaitut. Ez uste. Baina... Mira, pentsatu Juan eta Mirenengan!

–Egin egiten dut.

Hurrengo egunean betiko martxan aritu zen. Lanera abiatu baino lehen gosarikoak prest utzi zituen. Juan eta Miren beranduago mugitzen ziren. Berak bulego eta ikastetxeko lanak bukatutakoan Landabeneko enpresara abiatu zen motor txikian. Hornitegiko garbiketak egitean berriro gogoratu zituen Ernesto eta beraren eskaintza. Ordu gutxi zuen erabakia hartzeko eta orduko ez zekien zer egin.

Goizean automatikoki aritu zen. Egin beharrekoak egin zituen, baina zonbi bat bezala jokatzeko zuten. Mundu guztiak galdetzen zion ea ongi zegoen. Garbi zegoen denek ezohiko portaera nabaritzen ziotela. Luluk eta izebak zer zuen galdetu zioten. Egoera gainditu behar zuen. Ordu gutxitan amaituko zen kontu guztia.

Bazkaria prestatu eta bikotekideek bazkaldu zuten elkarrekin. Juan ere hasi zitzaion gaidezka.

–Azken aldian oso kezkatuta ikusten zaitut. Zer duzu Flaca maitea?

–Badakizu. Ezin naiz gustura egon bizimodu honekin. Aldatu nahi nuke.

–Mintzatu gara mila alditan, baina ikusten dut ezin garela horrela segitu... Ongi da, osa itzazu ikasketak eta egin ezazu nahi duzuna. Estuago ibiliko gara, baina konponduko gara. Ezin gara horrela jarraitu. Burutu ikasketak hurrengo ikasturtean. Ea lasaiago eta gusturago ibiltzen zaren. Miren eta biok behar zaitugu... –Mirak aldatu zuen jarrera.

–Izeba Elik jarraitu behar al du ni estutzen? Esan dizut behin baino gehiagotan bizitza ozpintzen didala bere aholku eta egin beharrekoekin.

–Hitz eginen dut berarekin. Babeslea da gurekin eta oraindik ez du zurekin konfiantzarik. Bai, arrazoi duzu. Batzuetan jasanezina jartzen da egin beharrekoekin. Niri ere horrela dabilkit.

Juan lanera mugitu zen eta bera Mirenen bila abiatu behar zuen. Aipatua aipatuta, zalantza zuen zer egiten zuen. Eskolako irteerara heldu zenean Lulu topatu zuen. Emakumeak pozik hartu zuen laguna.

–Flaca, gaur ez dut ezer egin behar seiak arte. Kafetxo bat hartzen ahal dugu.

Mirak pentsatu zuen momentu txarra zela. Ez zuen ezer erabakita eta Luluk asmatuko zuen zerbait larria gertatzen zitzaiola. Lagunari ez zion kontatu Ernestok berarekin joateko egin zion eskaera. Egia esanda azken unera arte ez zuen sinistu gizona bere bila agertuko zenik eta horregatik ez zion kontatu. Orain damu zen. Luluk La Flacaren duda eta erreakzioa nabaritzean harridura adierazi zion lagunari.

–Flaca, badirudi ez duzula nirekin egon nahi –esan zion lagunaren erreakzioari erreparatuz–. Momentu txarra bada eta ezin bazara geratu, kontatu; baina..., esadazu zer duzun.

–Barkatu Lulu, baina momentu larrian nago –aipatu bezain laster lagunaren laguntza behar zuela `pentsatu zuen–. Nahi baduzu kafetxo hori hartzean kontatuko dizut.

Orduantxe hasi ziren beraien alaben taldekoak ataritik ateratzen. Bi neskek musu azkar bana eman eta merienda eskatu zieten. Miren ohituraren kontra mintzatu zitzaion Flacari.

–Ama, gure kabuz ibiliko gara jolasean, baina gero etxean lagundu nahi dizut afaria prestatzen. Erakutsi behar didazu afariak egiten –Mirak pentsatu zuen gauzak horrela ezin izanen zela zortzietan Ernestorekin geratu. Orduan garbi ikusi zuen zer egingen zuen, momentuz behintzat. Alabari laztan bat egin zion.

–Ongi da. Etor zaitez zortziak aldera.

Bi lagunak ondoko kafetegian sartu ziren eta kafe kargatuak eskatu zizkieten zerbitzari ezagunari. Kafeeekin eseri zirenean Mirak Ernestoren eskaintza eta itzulera kontatu zizkion lagunari, lehenago kontatu ez ziona. Bere zalantzak eta azken aldiko berriak ere kontatu zizkion. Lagunak serioski erreakzionatu zuen.

–Flaca, ez zenidan ezer kontatu. Ernestoren asmoez mintzatu zinenean ez zenuen eskaintza zehatzik aipatu –ez zuen haserre adierazi, kezkatuta baizik. Mirak eskua laztandu zion jarrera eskertuz eta erantzun zion.

–Uste nuen haserretuko zinela lehenago kontatu ez izanaz.

–Lasai Flaca. Garbi adierazi duzu ez zenuela espero Ernesto agertzea. Kontatu duzunez ez zenuen eskaintza serioski hartu.

–Ez. Egia da. Orain konturatzen naiz horretaz eta agian horregatik ez nizun kontatu. Barkatu. Oraindik ez dut erabat garbi zer egingo dudana, baina justu orain Juanek onartu du nik ikasi ahal izatea eta Mirenek atseginago jokatu du. Ernestori adierazi behar diot ez estutzeko, pentsatu behar dudala.

–Ongi iruditzen zait. Ulertzen ez dudana da zergatik ez duzun eskaintza errefusatzeko. Nahi duzuna egiten ahal baduzu... –Mirak moztu zion.

–Barkatu, baina ziur ez nagoen bitartean ez dut erabakia hartuko. Orain nahi baduzu paseatzen itzuliko gara etxera.

Bost eta erdiak ziren. Bi lagunak besotik hartuta Sarasate pasealekura abiatu ziren. Habanako festak eta beraien ibilerak gogoratu zituzten.

Zortzietan Mirak deitu zion Ernestori. Suposatzen zen orduantxe elkartu behar zutela, baina hara non Ernesto ere ez zegoen elkartzeko prest. Bilbon zen. Emakumeak eskaintza berriro eta polikiago pentsatu

behar zuela esan zion. Ernesto pausoa emateko konbentzitzen saiatu zen une batez. Emakumea garbi mintzatu zitzaion.

–Begira Ernesto, eskertzen dizut zure laguntza eta eskaintza. Hala ere, une honetan ez dakit zer egingo dudan. Juanek lehenengoz onartu du nik ikasketak burutzea eta lanbidez aldatu nahi izatea. Badakizu oraindik senarra maite dudala. Nire alaba uztea ez da erabaki erraza eta baditut lagunak... –Ernestok eten zion hitz-jariora.

–Ulertzen dut atzera egin nahi duzula... –Mira izan zen orduan bestearen jarduna eten zuena.

–Ez. Atzera ez. Nik ezin dut bizitza aldatzeko une honetan erabaki. Nik zerbait sentitzen dut zurekin, baina nire senarra eta alaba maite ditut eta bizitza aldatzea lortzen badut segituko dut hemen. Nik ezin dut bizimodu hau jasan, baina aldatzerik badut ez ditut maite ditudanak bertan behera utziko. Garbi esan nahi nizun. Baina, era berean adierazi behar dizut hemendik hilabete batzuetara gauzak aldatzen ez badira senarra utziko dudala. Zurekin ala zu gabe egingo nuke. Beraz, emadazu urte bat erabakitzeko.

–Garbi utzi duzu zure senarra eta alabarekin bizimodua aldatzea espero duzula. Ni zure bigarren aukera baino ez naiz.

–Ez. Ez da horrela!. Ni zoritxarrekoa nintzen eta zuk lagundu zenidan une txar batean. Nik bizimodua aldatuko dut modu batean edo bestean. Nik lagun bezala maite zaitut, baina inoiz ez nizun ezer ziurtatu. Nire erantzuna da ezin dudala zure eskaintza orain onartu. Nahi baduzu ahaztu egingo dugu proposamena eta kito. –Ernestok ulertu zuen ezin zuela manipulatu.

–Ongi da. Ez zaitut estutuko. Badakizu prest nauzula edozertarako. Komunara joango naiz bizitzera. Zerbait nahi baduzu bidali mezu bat.

Elkar agurtu zuten, hostasun puntu bat sortu bazen ere. Handik gutxira Miren agertu zen eta afaria prestatzen hasi ziren. Ez zuten beste munduko gauzarik prestatu behar, baina Mirenek gustura lagundu zion ziazerbak prestatzen. Patatak zuritu eta egosten utzi zituzten. Ziazerbak garbitu eta Mirak azaldu zion alabari egoste-denbora kontua. Mirenek ulertu zuen patatekin konparatuz, espinakek oso denbora gutxi behar zutela. Ondoren liriok irin-arrautzetan pasatzen irakatsi zion frijitzen zituzten artean. Olio xurgatzeko platereko paper gainean utzi zituzten egindako arrainak. Afariaren prestaketa bukatu zutenean Juan agertu zen eta afaldu zuten, Mirenek aitari sukaldeko esperientzia kontatzen zion bitartean. Beranduago, izebak deitu zuenean betiko moduan hasi zitzaion Mirari, betiko erretolikarekin, etxeko martxaz egin behar zuena eta parte emateko eskatu zion. Mirak eten zion jariora.

–Izeba, aski da. Sarkin eta bizkarroi bat bezala tratatzen nauzu. Esklabo bat bezala egiten dut lan goizetan eta gero familia zaintzen dut. Bakarrik zure tratu txarra falta zitzaidan. Hemendik aurrera berdin jarraitzen baduzu eten egingo dut zurekin dudan harremana. Entenditu? –Izeba Eli moztuta gelditu zen. Desenkusatzen hasi zen.

–Nik... Zuen hobe beharrez ari nintzen. Barkatu... Zu langilea zara. Nik zuen ongizatea baino ez dut nahi...

–Izeba... –jarraitu zuen Mirak–, lana utzi behar dut eta kazetaritza ikasketak burutu. Diru gutxiago izango dugu, baina asteburuan tabernetan lan egingo dut zerbait irabazteko. Zu, gurekin eta laguntzen ibiltzen ahal zara edo gutaz ahaztu, zuk erabaki.

–Nik... lagundu nahi dizuet. Ikasi nahi baduzu, zuek ikusiko duzue... Nik ez nuen enbarazurik sortu nahi

–izan zen izebaren erantzun umila.

–Ongi da izeba. Ongi gaude guztiok. Nahi baduzu afaltzera etor zaitezke bihar.

–Bai, gustura joango naiz. Barkatu...

–Barkatuta zaude izeba. Zure iloba eta Mirenen hobe beharrez ari zinen, nirekin oso gogorra eta astuna zarela konturatu gabe. Dena den, gure arteko harremana atsegina izan behar da. Bihar arte izeba.

–Bai. Bihar arte.

Oporretako lagunak

Martinikako Casino Royal, Kostalde Urdineko kasinoak bezalakoa zen. Itsasotik hurbil, labar eta hondartza txikietako inguru eder batean, Neoimperio edo Napoleon III. estiloan baina txikiagoa, Frantziako eta Europako goi mailako jendartearen opor leku bihurtu zen azken hamarkadetan Frantziako karibbean. Areto dotore handian ruleta-jokoa zen protagonista nagusia. Mahaiaren inguruan lumaje ederreko txori-bandako jokalaria ari ziren jardunean. Bele beltzak eta kitorrak, berdean, parketean ari ziren mokoka.

Pili eta Fran, hogeita hamar bat urteko bikotekideak, kasinora joan ziren gau eder hartan, hotelean lagun egindako bikote batekin. Eraikin zuria eta ingurua miretsi ondoren, gela desberdinak ikuskatu zituzten. Areto handian liluratuta geratu ziren. Glamourra nagusi zen han. Andere eta jaun dotoreak jokoan ari ziren mahaietan. Konbinatu bana eskatu zuten ondoko barra batean. Lagun bikotekideek pokerrean aritu ziren denbora batez, Franek eta Pilik begiratzen zuten bitartean. Denbora eta diru dezente galdu ondoren, black-Jack mahaiak ia kasurik gabe pasatu zituzten. Orduan Pili erdiko aretoko erruletak erakarrita jokatzeraz ausartu zen. Ehun euro fitxa bihurtu ondoren jokatzen hasi zen Franen harridurarako.

Ruletako bolatxo bueltaka ari zen. Beltza, bikoitia eta pasa zen Piliren aukera. Itzulika, indarra galtzen ari zen bolatxo. Pilik espero zuen dirua bikoiztea edo laukoiztea, aurreko bi jokaldietan gertatu zen bezala; beste bitan sartutako gutxia galduta, orduan dena jokoan jarri zuen. Berrehun euro zuten jokoan eta zorte onekoak beraien zenbakian erori zen bola, hogeian. Jokalarien oihuen artean croupierak hogeitazko zenbakia kantatu zuen eta hasi zen tapetean bakoitzari irabaziak ematen edo apustutakoa kentzen. Pilik hogeita hamasei bider gehiago irabazi zuen. 7.200€, bizitzako zortetik onena zuten eta fitxak erretiratu zituzten. Bikoteak ezin zuten sinetsi eta dirua jasotzera joan ziren beren lagunekin. Dirua jaso zutenean, bankako portzentajea kenduta ere kopuru polita zuten, ia zazpi mila euro. Zortekoak izan ziren eta dirutza lortu zuten. Franek gonbidatu zuen beste bikotea.

–Lagunok, har dezagun kopa bat Champagne –oihukatu zuen pozez gainezka. Pilik baieztatu zuen. Bere ideia izan zen kasinoan jokatzea eta zenbakiaren hautaketa. Kasinoko terrazan mahai batean eseri ziren eta edaria eskatu zioten kamareroari. Sarak zoriondu zuen Pili ongi jokatzeagatik.

–Cuca, oso ongi jokatu duzu eta ongi egin duzu erretiratzean.

–Inoiz ez dut horrenbeste dirurik lortu jokoan –izan zen emakumearen erantzuna, une hartan harrিতuta–. Honekin opor zoragarri hauek eta gehiago ordaindu ahal izango ditugu. Gu ez gara aberatsak zuek bezala.

–Zuek aberatsak izan ala ez merezi duzue. Pili, zuek zoragarriak zarete eta hau eta gehiago merezi duzue. Ez al da Felipe?

Sara emakume ikusgarria zen, baina baita atsegina, hezia eta hurbila, bere senarra bezalakoa. Ez zuten elkar ezagutzen, baina elkarrekin ibilitako ordu gutxitan oso ongi konpondu ziren maila sozial desberdinetakoak izan arren. Lauek gustura edan zuten kopatxo.

Gau zoragarria egiten zuen. Terrazan argi gutxi zegoen, kandelak baino ez baitzituzten ikusteko. Izarren ikusmiran, haize leun goxoez atseginagoa egiten zuten giroa. Kresalaren usainean eta itsasoaren marrumaren isiltasunaz gozatu zuten pixka batean, inguruari eta besteei irribarrez. Kopa bukatu zutenean, Felipek beste erronda hartzera gonbidatu zituen besteak. Edaria eskatuta, gizon gazte dotoreak xarma isurtzen zuen keinu eta mugimendu bakoitzean. Ahotsa ere sakona eta xuxurlaria zuen.

–Francis, sinetsiezadazu. Zuek zoragarriak zarete. Bikote polita osatzen duzue eta agerian dago pertsona onak eta ezin atseginagoak zaretela. Ziur gainera zuen eginkizunetan onak zaretela... –Francis ia lotsatuta zegoen. Ez zekien nola jokatu, bromatan zen edo benetan. Berak garbi hitz egitea erabaki zuen.

–Begira Felipe, Pilik bidaia-agentzia batean egiten du lan eta ni bigarren mailako abokatua naiz. Justu bizi gara, hipoteka ordaindu behar dugu-eta. Ezin gara zuekin eta zuen bizitzarekin konparatu –esan zuen irmo nahiz eta ia xuxurlatu. Felipek buruarekin ezetz adierazi zuen eta azaldu zuen.

–Barkatu baina oso umilak zarete. Bistan dago pertsona onak zaretela eta ez zaretela arruntak. Ziur zuen lanetan ongi hartuak zaretela. Zu Francis zer lanetan espezializatu zara?

–Nik enpresentzako lizentziak, patenteak eta baimenak bideratzen ditut. Ez ditut auzitegiak bisitatzen eta bufeteko eginkizun garrantzitsuetatik kanpo uzten naute. Ikusten duzue ez naiz oso inportantea
–Felipek harrituta erantzun zion.

–Hori da hain zuzen ere niri gehien interesatzen zaidan arloa. Ni ingeniaria naiz eta gure enpresarako patenteak eta baimenak lortzea da nire lanik gogokoena. Gehiago hitz egin behar dugu negozioez. Ziur naiz elkarrekin zerbait egin ahal dugula

Gaia utzi zuten orduan. Moët & Chandon botila eta lau kopak ekarri zituen kamarero gazteak eta edaria zerbitzatu zuen trebetasun handiz. Felipek beren bizitzaz hitz egin zien lagun berriei. Sarak ikasketa desberdinak egin zituen, askotan osatu gabe, baina arte-gaietan zerbait egin zuen eta momentuz etxeak apaintzen egiten zuen lan edo. Felipek, aldiz, familiako enpresan zuzendaritzako diru sarrera politikak zituen eta bikotekideek familiako ondasunei esker luxuzko bizitza izan ahal zuten. Feliperen bizipenak ez ziren nolanhikoak.

Irlako joko-etxerik sonatuenean ziren. Casino Royal Monakokoaren berdina zen. Giroa ere frantsesa zen, irlako izana eta historia bezala. Turistentzako leku gehienetan dolarretan ordaintzeko aukera izan ezik, Frantziako kolonia garaiko aireak ziren nagusi.

Felipe eta Sara oso atseginak ziren, ezkondu berriak eta aberaskumeak. Pilik eta Franek aurreko egunean ezagutu zituzten irlan zehar egin zuten itzulian topatu zituztenean. Konturatu ziren elkarrekin etorri zirela Pariseko hegazkinean eta hotel berean ziren. Haiak Bilbokoak ziren eta Pili Irurzun eta Fran Zabalza Iruñekoak. Hala ere, orduantxe ez zuten harremana egin.

Pilik eta Franek oso gogoan zituzten irlan egindako egun guztiak. Lehen eguna hotel ondoko hondartza zoragarri batean pasa zuten eta bigarrenegun irlako hiriburuan egin zuten bisita antolatua. Bazkaldu

ondoren, bisita jarraitu zuten beren kabuz, erdigune komertziala eta alde historikoan, dendetan, tabernetan eta kaleetatik ibiliz. Hirugarrenean hondartzara itzuli ziren. Etzaulkiak eta guardasola alokatzen zituzten, edari goxo bat eta zerbeza eskatu eta iragarkietako hondartzaz gozaten zuten, tartean eguzkitan, itzalean edo ur gardenetan egonaldiak eginez. Hotelean bazkaldu zuten eta arratsaldean berriro joan ziren ondoko hirira itzuli txikia egitera. Laugarrenean, irlan zehar ibili ziren itzuli gidatu batean. Orduan ezagutu zituzten Felipe eta Sara.

Bosgarrenean lasai egon ziren hondartzan. Hala ere, Pilik ezohiko zerbait egin nahi zuen. Dotore jantzi eta afaltzera ateratzeko konbentzitu zuen Fran. Inguruko restaurant on batez galdetu zutenean Chez Vicky gomendatu zieten. Soineko dotore luzea eta bitxiak jantzi zituen Pilik eta traje beltz garestia Franek. Jatetxea hiri bidean zegoen eta taxiz joan ziren. Palmera eta lorategiz inguratutako terrazan eserarazi zituzten. Kandela eta gau tropikalez inguratuta zeuden. koktel bat eman zieten kartan aukeratu bitartean. Entsalada goxo berezi eta exotiko bana aukeratu zuten lehenengoz. Haragi erre kriolloa eskatu zuten gero, Burdeoseko ardo on batekin lagunduta. Lehenengo platera bukatzen ari zirela, Sara eta Felipe eseri ziren ondoko mahai batean. Elkar agurtu ondoren bikote bakoitzak berean jarraitu zuen. Pili liluratuta zegoen eta Fran gustura. Postreetan fruta tropikalez osatutakoak ziren espezialitateak. Ronez egindako edaria eskaini zieten bukatzeko. Orduan Sara eta Felipe hurbildu zitzaizkien. Emakume gaztea irribarrez galdetu zien:

–Gabon. Eseri gaitezke zuekin?

Bikotekideek gustura gonbidatu zituzten beraiekin esertzera. Segidan irlako mirariez eta egun haietaz mintzatu ziren. Ikusitako lekuak eta egin zitezkeen gauzak komentatu zituzten. Felipe aurretik izana zen irlan eta leku zoragarri asko ezagutzen zituen. Une batean Sarak gauerako gonbidapen berezia egin zien.

–Gu kasinora joango gara. Diru gutxi gastatuko dugu. Ez pentsa, ehun euro baino ez eta aukera izan dezakegu asko irabazteko. Nahi al duzue gurekin etorri? Ondo pasatuko dugu eta gau zoragarriari erremate ezin hobea emango diogu. –Pilarrek onartzeko adierazi zion Frani begiradarekin. Eskatu ere egin zion.

–Bai. Egia da gau zoragarria bukatzeko ideia ona dela!

–Ongi da. Goazen kasinora!

Kasinoan ongi pasa zuten. Denek probatu zuten joko desberdinetan. Baina, Sararen jokaldi zoragarria ezustekoa izan zen. Emakumea zoriontsu sentitu zen aspaldiko partez. Moët & Chandon champagne botila hustu zuten. Goizeko laurak ziren eta hurrengo egunean elkarrekin ibiltzeko planak egin zituzten. Joan bezala taxiz itzuli ziren hotelera.

Iruñeko bikotekideek urte larri batzuk pasa zituzten hipoteka ordaintzeko eta aurrera egiteko. Biek egiten zuten lan baldintza txarretan eta zeukaten denbora librean diru gutxi izateak ez zien laguntzen. Pilik bidaia-agentzia batean egiten zuen lan astelehenetik larunbatera eta urteko opor sasoiaren aurretik eta bitartean izaten zuen lanik handiena. Egun osoan egiten zuen lan eta ez zuen mila euro irabazten. Franek, ordea, lan aspergarria zuen abokatu bufete batean eta soldata askoz hobea izan arren, beti

nagusien nahikeria eta umore aldakorren arabera sufritzen zuen lana. Edonola ere, hipoteka ordaindu ondoren diru gutxi zuten.

Azken urtean, ezkondu zirenetik beren zazpigarren urtean, harremana pikutara joaten ari zen. Biek lanez itota, ez ziren gustura bizi eta nor bere aldetik hasi zen bidea bilatzen. Fran lagun malapartatu batekin hasi zen ateratzen eta edateari eman zion; Pili, berriz, bere lagun Paularekin bingora joaten zen. Kontua zen lanetik atera eta ez zutela bizitza elkarrekin egiten.

Egun batean, igande hits batean, Pili kezkatuta zegoen diru-jokoan asko galdu zuelako; bitartean, Fran esnatu zenean, parranda baten ondorioz kristoren buruko mina zuen. Franek kafea hartu zuenean Pili dutxan zen. Biak damu ziren hartutako bidearekin eta kasualitatez sintonia berean zeuden elkartu zirenean. Franek beren bizitza eta harremana berreskuratzeko proposatu zion emazteari eta honek bere adostasuna sentimendu osoz onartu zuen. Ez zekiten nola, baina lanarekin eta zuten bizitzarekin moztea erabaki zuten. Beraien artekoa berreskuratzea ere izan zen bigarren erabakia. Ez zuten aurrezkirik, baina nola edo hala moztu nahi zuten eta opor bereziak izatea erabaki zuten. Aspaldian ez zuten benetako oporrik izan eta udaberri hasieran hartu ahal zituzten, udan ezin zutelako. Udaldietan, Fran bulegoan geratzen zen zaintzan, besteek oporrak hartu bitartean eta Pilik ere bezeroen erreklamazioak bideratu behar izaten zituen.

Apirilean, Aste Santuaren ondoren ezkonberrientzako eskaintza bereziak aztertu zituen Pilik. Bietako inork ez zuen arazorik izango orduan oporrak hartzeko. Karibeko Irla xarmangarri batean hamar eguneko egonaldia egiteko aukera ezin hobea zuten, merkea gainera. Bidaia egin artean, aste gutxi haietan bikotekideek berriro berreskuratu zuten konfiantza. Larunbat gauetan edo igandeetan elkarrekin ibiltzen ziren, betiko lagunekin gutxiagotan ibiliz. Lana eta bizitza ezin zuten egunetik egunera aldatu; hala ere, itxaropentsuago bizi ziren.

Oporretako seigarren egunean, ez zen oso goiz, gosalduta eta bi bikoteak hirira abiatu zirenerako. Zentrora heldu zirenean emakumeak alde komertzialera mugitu ziren erosketak egitera eta gizonak itzuli kulturala egingo zuten auzo historikoan taberna famatuak bisitatuz. Eguerdian elkarri deitzeko asmoa zuten, bazkaltzekotan edo.

Denbora asko pasa baino lehen, emakumeak kale zabal dotoreetatik ari ziren paseatzen. Oinezkoentzako kale batean sartu ziren. Sarak eta Pilik luxuzko dendak bisitatu zituzten. Lehenengoan soinekoak probatu zituzten. Askok eta garestiak ziren eta konturatzeko bakoitzak bizpahiru zituen aukeratuta. Azkenean nor bestearentzat hautatu behar izan zuen bat. Pilik inoiz ez zuen hain garestia zen soinekorik erosi eta ausiki, gaizki egiteko sentimenduaren harra sentitu zuen. Sara garbi mintzatu zitzaion.

—Hara panpoxa! Zeure burua zaindu behar duzu. Emakume ederra eta berezia zara, ni bezalakoa, eta bizitarik hoberena merezi duzu. Zuk irabazi zenuen erruletan. Baina hala izan ez balitz ere, nahi duzuna egin behar duzu bizitza honetan. —Pili harrituta zegoen eta bere errealitatea zein zen adierazi zion lagun berriari.

—Sara, zuk ez dakizu zein bizimodu dudan. Langile xumea naiz eta ezin dut horrelakorik egin. Zu aberatsa zara, baina nik egunero ordu asko sartu behar dut goiz eta arratsaldean agentzian esklabo, mila euro

eskas irabazteko. Zuk diozuna ametsa da, baina guk ezin dugu bizitza hau eraman. –Sarak ezetz egiten zuen buruarekin. Pentsatzen zuena adierazi zion.

–Cuca, gauzak nahi dituzun bezalakoak izango dira. Zuk ez duzu lan horretan jarraitu behar. Bila ezazu bestelako bizimodurik, nola eraman asmatuko duzu.

–Zu ez zara gure mundukoa. Ez dakizu zer esaten ari zaren.

–Bai, badakit. Ez duzu oraindik ulertzen, baina ulertuko duzu. Denda honetatik atera eta osagarri on batzuk erosi behar ditugu.

Sarak besotik hartu zuen Pili kaxara ordaintzera joan zirenean. Sarak laguntzat hartu zuen Pili, honek zer pentsa eta zer egin ez zekiela. Emakume hark luxura zaletu nahi zuen, baina berak ez zuen asmatzen nola lortu ahal zuen bizitza hura izatea.

Bitartean, gizonak bisita kulturala egiten ari ziren auzo historikoan. Gizon pilek taberna berezi eta exotiko haietan edan egiten zuten eta baita jan edo beste gauza anitz gehiago ere. Klub batean zeharkako argitasun artifizial difuminatua baino ez zegoen. Argiek, gainera, efektu futurista ematen zuten, zenbait lekutan gorritza eta beste batzuetan urdinxka argituz. Barra gainekoa eta apaletako edariak baino ez zituzten zuzeneko argi indartsuz agerrarazten. Musika disko neutro eta letrarik gabea zuten, ukitu karibetarrak atsegin egiten zuena. Giro beroa neska eder askok areagotzen zuten. Arropa gutxi zuten barmanek eta mahai barradunetan argi gorriaren azpian dantza egiten zuten neskek mugimendu sentsualak egiten zituzten. Zerbait nahi zuten galdetu zietenean Felipek etxeko espezialitateak eskatu zituen bientzat. Berehala ekarri zituzten edariak. Erretilu batean haragiak eta barazkiek parrillan eginak ziruditen. Baina zerbitzariak ez ziren erretiratu eta beraien ondoan eseri ziren disimuluz laztantzen zituzten bitartean. Felipe gauzarik normalena balitz bezala ari zen jokatzeko. Solas arinean eta bromatan ari zen neskekin; Franek, estu eta larri, zer egin ez zekiela edaten zuen bitartean. Neskek handik gutxira zerbait gehiago nahi zuten galdetu zieten. Felipek ezetz esan ondoren, dirutza ordaindu eta propina utzita, joan egin ziren. Handik gutxira bisitaldia jarraitzeko beste leku batera mugitu zirenean gizonak aipamen arin bat egin zion mutu zegoen Frani.

–Francis, lagun, ez eman buelta gehiegirik eta momentua bizi.

Eguerdirako telefonoz emazteekin hitz egin zutenean ez ziren bazkaltzera geratu. Emazteek lunch arina hartu zuten goiz eta beren aldetik itzuli ziren hotelera lo-kuluxka egitera. Gizonek ere ez zuten bazkaltzeko gogo nahikorik, pikatu baitzuten. Hotelera joan ziren eta itzal batean geratu ziren hamaketan konbinatu bana hartzera eta erdi lo, lasai ederrean solasaldi etenak eginez egon ziren. Franek kontatu zion lagun berriari nola sentitzen zen. Aspaldian ez zuen nahi zuena egiten. Galtzaile sentitzen zen. Lanean, bufeteko abokatuen artean azken lerrokoa zen, besteen zerbitzari, administratibo eta idazkariez aparte. Ordu-tegi txarra zuen, goizeko lanaz gain askotan astean zenbait alditan desorduetan eta berandu deitzen baitzioten presazko lanak egiteko. Behin baino gehiagotan lagun batekin lasterketa egitean mugikorrez deitzen zioten dena bertan behera utzita bulegora joateko. Bere zuzeneko nagusiak txotxongilo bat bezala erabiltzen zuen, edukazio handiz eskerrak ematen zizkiolarik; hala ere, garbi utziz lanean jarraitu nahi bazuen bufetearen esanetara egon behar zuela. Rafael ere, nagusi hura, lanaren beharren arabera bizi zela egia zen; baina dirutza irabazten zuen berak

ez bezala. Franek bere frustrazioak bota zizkion Feliperi lotsarik gabe, gizon hark gauzak aldatzeko ahalmena izan balu bezala. Haren jarrera konfiantzako lagunarena zen. Beste mundu batean bizi zen eta ulertzeko ahalmena izateaz gain, ez zen lehiakidea edo antzeko bizitza zuena. Arrotza zen aldetik Franek dena mugarik gabe kontatu zion, baita bizitza hits hark bere bikote bizitzan zuen eragina. Bitartean, Felipek, hamakan erlaxaturik eta begiak itxita denbora guztian entzun zion arretaz eta noizean behin galdetzen zion ongi ulertzen ez zuena. Harridura adierazten zuen lanean jasan eta jasotzen zuen esker faltagatik.

Une batean biak isilik geratu ziren. Franek uste zuen bestea lotan zegoela. Baina ez. Giro gozo hartan Felipe ere hasi zen bere bizitza kontatzen. Berea ez zen hain gogorra eta gazteagoa zen. Bere kexa nagusia zen familiak behartu zuela enpresarekin zerikusia zuena ikastera. Berak nahiago izango zuen zerbait artistikoa, baina aukeren artean ingeniari eta elektromekanikoa Madriden ikasi zuen eta Bostonen masterra egin zuen. Gizona ez zen atzean geratu eta bere bizitzako xehetasunez eta bere laneko sekretuez aritu zitzaion Frani.

Azken bizpahiru urteetan, Felipe ingeniari nagusia zen familiaren enpresa batean. Zuzendaritzakoa zen. Lanean ez zegoen gaizki. Ordutegi librea zuen ingeniari talde baten buru eta asko irabazten zuen. Bere esanetan txarra zen ez zuela inguruan konfiantzazkorik eta lana aspergarria egiten zitzaioela, behin lanaren alderdi eta prozesu sortzailea bukatu ondoren. Azkenaldian kanpoko enprekin harremanetan hasi zen patenteak erosten eta saltzen. Hain zuzen ere Franen hirira, Iruñera joaten zen urtean zenbaitetan negozioko egitera. Hiri hartan beste enpresa batzuekin frankizia eta patente haietaz aritzen ziren. Kasualitatez Fran ere bere lanean eskubide merkantilez aritzen zen gehien bat eta konturatu ziren biek lagundu ahal ziotela elkarri. Berehala Felipek proposatu zion elkartzeko. Konfiantzako abokatu behar zuten eta enpresarekin bazkide izanez gero, biek onurak aterako zituzten. Felipek zuzenean egin zion gonbita harritutako abokatuari.

–Francis, izugarria da. Une honetan zu bezalako konfiantzako abokatu bat behar dugu enpresan. Are gehiago, nik pozik egingo nuke lan zurekin. Ia ez dugu elkar ezagutzen, baina sentitzen dut guk biok gauza handiak egin ahal ditugula eta gainera lagunak izan ahal garela. –Felipe hunkituta zegoen. Eseri zen eta bere proposamena luzatu zion Frani. Gure abokatu izanez gero, lan segurua eta hobe izango zenuke. Zuk bufetea irekitzen baduzu lana emango dizut. Guk urtean berrehun mila euro gastatzen dugu zuk egin dezakezun lanetan. Bilbora asteen behin etorri beharko zenuke egun pare batez, gainerako lana zure hirian egiteko. Beste abokatu eta idazkari baten laguntza beharko zenuke behin lana ongi bideratua duzula egiaztatuta. –Fran harrituta zegoen. Ez zekien zer esan, zer erantzun, hura proposamen zehatza baitzen. Zalantzak zituen eta azaleratu zituen.

–Nire lana utzi? Zergatik ez diezue gure nagusiei lan hori eskaintzen? Ni ager ninteke bitartekari paperean, zuentzako lana egingo duena...

–Ez. Guk badugu dagoeneko bufete bat eta ez dute gaizki egiten. Nik proposatuko dudana da patente eta eskubide komertzial kontuak zuk eramatea, zuri laguntzea. Zertarako nahi ditugu zure nagusi malapartatuak?

–Nik ezin dut bufete bat antolatu. Ez dut dirurik... –Felipek moztu zion jarduna. Bazirudien gaizki hartu zituela abokatuaren esanak. Haserre bizi zegoen.

–Esnatu hadi! Gaizki tratatzen zaituzte eta orain zuri eman nahi dizut aukera, ez beste inori. Zenbat diru behar duzu bufetea irekitzeko? Lau edo bost mila euro bulegoa eta altzariak alokatzeko eta lehenengo hilabetean irauteko. Bueno, agian... pixka bat gehiago enpresa bezala hasteko eta gurekin kontratuak eta bazkietza gauzatzeko.

–Denbora beharko nuke guzti hori egiteko, hipoteka berriro negoziatzeko eta dirua lortzeko.

–Hori da erantzuna. Gurekin eta eskuratuko dituzun bezeroekin ziur naiz dirutza irabaziko duzula, lagun.
–Felipe altxatu zen. Ez zuen gaiaz gehiago hitz egin nahi eta adierazi zuen barnera mugitzen zen bitartean.

–Mintzatuko gara beste batean, benetan interesa baduzu. Banoa bainu bat hartzera. Afarian egongo gara.

Francis txundituta zegoen. Hamakan geratu zen une batez solasaldia hausnartu eta barneratzeko. Ezin zuen sinetsi. Bera nagusia izango zen. Bezero bezala lortu ahalko zituen enpresen lanarekin ez zuen izango soldata bat ateratzeko adina. Enpresa txikiak ziren azken batean, handiak orduko bufetearekin geratuko baitziren; baina, berrehun milako fakturazioarekin nahiz eta idazkari edo bulegari bat kontratatu, dirutza irabaziko zuen. Felipe, gainera, bazkide eta lagun ezin hobea izango zen. Amesten hasi zen. Gelara joan zen. Logelako atea itxita zegoen. Dutxa hartu ondoren eskuoihala jantzita egongela txikira sartu zen. Orduantxe agertu zen Pili, esnatu berritan. Ezer esan gabe ondoan eseri, besarkatu eta sorbaldan jarri zion burua. Gustura zegoela nabari zen. Berehala hasi zitzaion kontaktzen.

–Fran, oso ongi pasa dut erosketetan. Sara harrigarria da. Bizitza liluragarria du eta nire laguna izan nahi du. Amets bat bezalakoa da dena. Badakit opor miragarrietan gaudela, baina zoriontsua naiz azkeneko partez. Zu nola ibili zara? –Piliren arnasak kilikatzen zuen belarrarian. Pentsatu zuen bera ere pozik eta txundituta zegoela.

–Ez duzu sinetsiko. Felipek bazkietza eskaini dit. Enpresa handi batean dago zuzendaritzan eta nagusietako bat da gainera. Lanabes-makinak egiten dituzte eta beti ibiltzen dira patente eta eskubideak negoziatzen, justu nire espezialitatea dena. Dirutza irabaziko nuke bufete bat antolatuz gero. –Pilik ere harridura adierazi zuen.

–Ametsa dirudi honek. Zu bufete bateko nagusia! Beste bizitza bat izango genuke. Sarak dio luxura eta bizitza zoriontsurako eskubidea dugula. –Fran hasi zen posible zela pentsatzen.

–Arrazoi du. Dirutza horrekin merezi dugun bizitza izango genuke. Zuk lan ziztrin hori utzi ahalko zenuke.

Bikoteak ez zuen mintzatzen jarraitu. Musu goxoak ematen eta laztantzen hasi ziren. Aspaldian sentitzen ez zuten maitasuna berpiztu zuten. Amodioa egin zuten. Gero, Pilik goizekoa kontatu zion, erosketetara joan eta Sarak luxura zaletu nahi zuela. Erosi zituen bitxiak erakutsi zizkion. Harrezkero gutxi geratzen zitzairen irabazitako dirutzatik. Franek onartu zuen. Biak ezin hobeki sentitzen ziren, paradisuari. Afaltzera joateko prestatu ziren. Hotelean bertan afaldu zuten bi bikoteek. Gustura egon ziren giro onean, hizketan eta bromak egiten. Ez zuten ezer seriozki komentatu. Dezente eta gustura afaldu ondoren ondoko disko batera joan ziren dantzatzera ordu txikiak arte. Une batean bi emakumeak

dantzatzen ari zirela, gizonak zerbait edatera hurbildu ziren barrara. Felipe belarrira isilka mintzatu zitzaion Frani.

–Laguna, horrela bizi gaitzke bizitza guztian, argiak izanez gero. Gure emazteek merezi dute. Begira zein ederrak diren eta zein pozik dauden!

Hurrengo goizean snorkel egitera joan ziren. Aurreko egunean koraletara itzuli bat egitera apuntatu ziren. Gosaldutakoan taxian joan ziren portura. Itsasuntzia dotorea eta handia zen eta hogeita hamar bat bidaiarik egin zuten koraletara bidaia. Luxuzko itzulia zen. Jendea aberatsa zen edo dirutza ordaintzeko modukoa behintzat. Ordu betera zeuden koral-harkaitzak. Bitartean, kabina txiki batzuetan bainujantziak jantzi eta itsasuntziaren bizkarrera, estaldurara igo ziren bidaiaz profitatzen.

Felipe eta Sara estalduraren azpiko bi eserlekutan zeuden inguruari begira. Lagunei aurreko bi eserlekuak gorde zizkieten haiek agertu zirenean. Gorputz lirain ederrak eta aurpegi politak zituzten bikotekide gazteek. Hogeita zortzi urte ingurukoak ziren. Sara, gazteagoa, ez oso garaia, ilehoria, gorputz eskultorikoa eta aurpegi atseginekoa zen. Felipe, aldiz, altua, beltzarana eta neurrian gihartsua. Aurpegi serioagoa zuen, baina oso erakargarria zen. Pili eta Fran hogeita hamabost eta berrogei urtera heldu gabe, mardulagoak baina itxura onekoak ziren. Pili gaztinkara, zurbil samarra eta potxoloa zen, baina ez lodia. Beti irribarretsua eta mundu guztiarekin ongi moldatzen zena. Franek ile beltza zeukan, belarri inguruan ileurdin batzuk izan arren.

Freskagarri batzuk banatu zizkieten. Laurak solasaldi animatuan aritu ziren, brometan eta barrezka. Franek aldatua zuen izaten zuen aurpegi serioa. Irla txiki batzuen artetik pasa ziren koraletara bidean. Franek pentsatu zuen zorionsua zela, leku hartan eta pertsona haiekin. Pili ere pozik sentitzen zen eta beste bikoteak laguntasunaren irudia ematen zuen.

Koral-gunera heldu zirenean itsasuntziko behera jaitsi ziren ibilaldiko partaideak. Bi aldeetan kristalak eta aulkiak zituzten. Ur azpiko leihoetatik koral-baso eta animalien erresuma miragarria ikusi ahal izan zuten. Bi gidarik kontatu zieten koralen bizitzaren misterioa. Bost bat metrora arrain taldeak eta ale ederrak ikusi zituzten, koral-arrezife, landare eta harkaitzen artean. Azalpenak bukatuta, snorkel-ak nola erabili entzun ondoren sartuko ziren mundu miragarri hartan.

Atera ziren uretan murgiltzera. Snorkelak, betaurrekoak eta aletak jantzi, eta ur azpira sartu ziren. Hondo ez zen sei-zortzi metro baino askoz baxuagoa eta behin gora eta behera ibilerak arnasaldiekin konpasatzea lortu zutenean, atseginez ibili ziren mundu hartan. Noizean behin barkura hurbiltzen ziren atsedean hartzera. Lagunak elkarrekin ibiltzen ziren arrain handiak eta landare-koral politenak seinalatuz.

Pare bat ordu eman zuten beirateetatik ikusi eta murgildu artean. Gero, koktelak hartu zituzten, dutxatu, arropa aldatu eta kanpora atera ziren. Koral-hesiak eta irlatxoeren arteko hondartza eta itsasarte garden ederretan ibili ziren. Hondar zuriek eta ur esmeralda eta urdinek paisaia zoragarria osatzen zuten. Itsasuntziaren gainetik eta estaldura batetik begiratzen zuten, taldeka hizketan aritzen ziren bitartean.

Barkuaren bizkarrean, lauko mahai batean eseri ziren bazkaltzera. entsalada desberdinak zituzten aukeran eta otarraina eta azpizuna plater nagusi. Platerak eta Champagne bat aukeratu zuten bazkaltzeko. Gustura egon ziren eta konturatzeko postre goxoak hartzen ari zirela, portuan ziren. Hotelera heldu zirenean emazteak geletara joan ziren lo-kuluxka egitera. Gizonak hizketan geratu ziren terraza batean cocktail bat hartzeko. Bikotekideez mintzatu ziren. Felipe hasi zen Piliri buruz hizketan.

–Inoiz ez dut Sara ikusi Pilucarekin bezain ongi; ez egun pare batean ezagutu ondotik, behintzat. Ez da harritzeko zoragarria baita. Ederra izateaz gain oso atsegina da –esan zuen gizonak lotsarik gabe. Fran larritu zen, ez baitzekien zerbait berezia adierazi nahi zion ala ez.

–Zer esan nahi duzu ederra eta atsegina dela diozunean? Ligatu nahi al duzu? Bikote aldaketa proposatu nahi al duzu?... –Felipek barre-algara egin zuen.

–Ez dut ezer esan nahi. Bakarrik bikotekide ona duzula. Begira, argi utziko dizut ni zurekin ongi konpontzeaz gain, laguntzat nahi zintuzket eta ez dago gaizki beste baten bikotekidea ere gure gustukoa bada. Nik jakin nahi nituzke zein diren zure sentimenduak horretaz. –Fran lasaitu zen.

–Ni ere laguntzat nahi zintuzket eta ongi iruditzen zait gure emazteak ere lagunak izatea.

–Ez al zaizu nire emaztea polita iruditzen? –galdetu zion Felipek zirikatzaile.

–Bai, oso... –Felipek berriro egin zuen algara.

–lasai, Francis. Ohituko zara nire txantxetara.

Gizonak erlaxatuta zeuden. Une batean gizon gazteak beren negozioaz hitz egin zuen. Bere hizkera dotorean ere hurbiltasuna adierazten zuen.

–Hitz egin dezagun gure lan harremanaz. Astero etorri beharko zenuke Bilbora. Egun pare batean gure enpresako lana egingo zenuke gure zerbitzu juridikoan. Zure espezialitateko bat behar genuen eta ongi moldatuko zara Ramonekin. Bera abokatu arrunta da. Bilboko tramitea eginda, Iruñean jarraitzen ahal duzu lana. Dena den, asteburuetan elkarrekin ibiliko gara lana bukatuta. Pili ere ekar dezakezu Sararekin egon ahal izateko. Laurok pozik ibiliko gara. Zer iruditzen zaizu? –Franek ez zekien ametsetan zegoen ala ez. Ez zuen dena ongi kontrolatzen eta zalantzak zituen.

–Pilik bere lana dauka eta... –Felipek moztu zion.

–Baina, Francis, irabaziko duzunarekin berak ez du lanik egin beharko. Bere lana zu zoriontsu izatea izango da. Komentatu dizut. Behin gure enpresen kontratuak eginez gero, zure kabuz egingo dituzun lanak aparte, berrehun bat mila euroko sarrerak izango dituzu. Ahaztu txikikeriak, lagun. Nik ez dut askoz gehiago irabazten. Lana egin beharko duzu gogotik, guretzat patente eta eskubideak lortzen eta beste batzuei saltzen, baina bizitza berrira egin behar duzu. Ez al zaizu bizitza hori gustatzen?

–Bai. Hala ere, ez dut dirurik enpresa bat antolatzeko... –Felipek, bere irribarrerik hoberena erakutsiz eta ironia adierazten zuen hizkeraz erantzun zion.

–Dena duzu eskura. Egin behar duzun bakarra da enpresa utzi, bezero batzuk eskuratu, gurekin kontratuak itxi eta bizitza berri bat lortuko duzu.

Handik gutxira, Fran gelan zen Piliren ondoan ohean etzanda. Emakumea lotan zegoen eta Fran sabaiari begira geratu zen hausnarrean. Pili esnatu zenean Franek dena kontatu zion. Emakumea zorutzen zegoen.

–Baina, Fran, hau guztia amets bat da. Ezin dugu aukera hau galdu. Zuk merezi duzun lana izango zenuke. Nik utziko nuke nire esklabo-lana eta ahal dudan gauzetan lagunduko nizuke, baita idazkari lana nahi baduzu. Zer arazo ikusten duzu?

–Txikikeria bat. Enpresa sortzea hilabete pare bat eta hamar bat mila euro kostatuko zaigu gutxienez eta enpresa elektromekaniko horrekin bazkideak beraien kapital sozialean parte hartzea dakar. Horrek, agian beste berrogei edo hirurogei mila euro eskatuko digu. Guk ez dugu dirurik. Badakizu daukagun gauza bakarra pisu hipotekatu bat dela –Pilik moztu zion.

–Maitea, lasai zaitez. Garbi dago hau gure bizitzako aukera dela. Gure gurasoei eta lagunei eskatu ahal diegu laguntza.

–Badakizu ez dudala inorekin zorretan egon nahi, familiakoak edo lagunak izanda ere. Bestela... –Pili haserretu zen.

–Bestela, hipoteka birnegoziatuko dugu dirua lortzeko eta bazkideza merkeagoa lortu behar zenuke – Franek baietz egin zuen buruaz.

–Arrazoi duzu, negoziatu behar dut ametsezko bizitza lortzeko.

Gautu zuenean Felipe eta Sara kanpoan ziren hirian ezagun batzuekin afaltzen. Pilik eta Franek hotelean afaldu zuten eta hondartzan itzuli bat egin zuten diskotekara joan baino lehen, han geratu baitziren lagun berriekin. Hondartza ondoko pasealekuan banku batean eseri ziren. Gau izartsu ederrari begira erlaxatu ziren. Gizona ongi sentitzen zen, baina irrealitate sentimendu handia zeukan eta hala adierazi zion bere bizikideari.

–Hau guztia amets bat da. Gu biok zoriontsu sentitzen gara leku miragarri honetan, ametsezko opor hauetan. Bizitza berri bat eskaini digute, baina ez dakit zergatik iruditzen zaidan ez dela erreal... –Pili urduritu zen hura entzutean. Berak ez zuen amets eta bizitza zoragarri haren aukera galdu nahi.

–Fran, aldaketari beldurra sartu zaizu. Nik ere zorabio antzeko bat sentitu dut bizitza berria aipatu didazunean. Sinesgaitza iruditu zait une batean, baina ezin dugu aukera pasatzen utzi. Kasualitatez bikote zoragarri bat ezagutu dugu. Zorte ona izan dugu jende hau eta lan aukera topatzean. Ezin dugu aukera hau galdu. –Franek Piliren itzaropena eta zoriona baloratu zituen. Pilik bizitza hobea merezi zuen. Gizonak hotzikara txiki bat sentitu zuen. Eskutik helduz altzarazi zuen.

–Bai. Ezin dugu galdu. Goazen diskotekara.

Beste gau zoragarri bat pasa zuten bi bikoteek. Dantza eta dantza egin zuten nekatu arte. Izerdi patsetan zeuden, Fran bereziki, lodi samar baitzegoen eta ariketa fisikoetarako ohitura gutxiago baitzuen. Azkeneko tragoa egin zuten hotelera itzuli baino lehen. Gero, paseoa emakumeek aurrea hartu zuten pauso mantsoan kilometro eskasera jendez gainezka zegoen hoteleraino. Atzetik bi gizonak irlari buruzko leku zoragarriez aritu ziren. Hurrengo egunean uharteko ekialdean ziren irlatxoetara joango ziren. Une batean Felipek aldatu zuen solasgaia.

–Hitz egin al duzu Cucarekin gure proiektuari buruz? –Franek espero zuen galdera eta erantzun zion.

–Bai. Ilusio handia du. Nik oraindik zalantzak ditut, dirua lortu egin behar dugulako eta niretzat apustu handia delako. –Harridura aurpegia jarri zuen Felipek.

–Ulertzen dut aldaketa handia izateagatik zalantzak sotzea, baina diruagatik? Familiak ezin dizue utzi hirurogei mila euro? Ulertu behar duzu gurekin konfiantzako lanak egiteko enpresako bazkidetza itxi behar dugula.

–Bai, ulertzen dut, baina guretzat dirutza da hori. Bulegoa eta bufetea martxan jartzeko beste hamar mila euro lortu behar dugu. –Bazirudien Felipe haserretzen ari zela eta iritziz aldatzeko prest zegoela.

–Hori bada arazoa, saiatuko naiz aita konbentzitzen bazkidetza kontratuak diru gutxiagotan egiten, berrogeita hamar mila eurotan edo. Ulertu behar duzu gure konfiantza osoa izateko enpresako kapital sozialean parte hartu behar duzula. –Franek ulertu zuen diru gutxiagotan ezin zuela lortu eta gizonaren pazientzia ahitzen ari zela. Bere burua animatuz hitz egin zuen.

–Eskertzen dizut proposamena eta erraztasuna. Bai, nola edo hala lortuko dut dirua, baina ez dut uste bazkidetzarako 40.000 baino gehiago lortuko dudarik. Nola egin dezakegu dena?

–Hori da erantzuna. Urteko irabazietan gutxiago lortuko duzu, baina. Itzuli bezain pronto utzi behar duzu bufetea eta zurea antolatzeko urratsa eman. Denbora beharko duzu egiteko. Gure bazkidetza-kontratuak, dena den, aste batean egin ahal ditugu. Larunbatean etor zaitezke Bilbora notariotzan sinatzeko. Bazkidetza hitzarmenaren zirriborroa lehenagotik bidaliko dizut zuk ikusteko. Ordurako txeke baieztatua prest izango duzuela espero dut. –Franek uxatu zituen azken erresistentziak. Hotelera heldu ziren eta nor bere gelara banatu behar zuten.

–Egin egingo dugu, bai.

Francisco eta Pili goizean gosaltzera joan zirenean Felipek egun guztirako plana egina zuen. Lantxa batean Saint Laurent irletan itzuli bat egitera gonbidatu zituen. Pilik eskerrak eman zizkion gonbidapenagatik eta lasai gosaldu zuten hirurek, Sararen zain. Hau agertu zenean gosari arina egin zuen eta egun-pasaren kontua argitu zien.

–Felipek zerbait berezi batera gonbidatu nahi zintuzten, baina ez zitzaion ezer bururatzen. Nirea izan da irlalara joateko ideia. Felipek dirua izango du, baina batzuetan ez daki zer egin. Ni naiz bikote honetan sormena duena. Saint Laurenten snorkel eginez ongi pasatuko dugu. Irla horren inguruan dago

arreziferik ederrena eta badian izaten den itsasuntzi-jatetxe ospetsuan bazkalduko dugu. Goazen kaira.
–Felipek baieztatu zuen emazteak esandakoa bainujantzien bila gelara joaten ziren bitartean.

–Sarak arrazoi du. Berarenak dira ideiarik onenak. Goazen irla horietara. Asko gozatuko dugu bidaiari ere.

Hara ez ziren turistak heltzen. Eremu babestu berezi bat zen. Taxitik kaira jaitsi zirenean sei metroko lantxa dotorea ikusi zuten. Giltzak eskuratuta, aurrean Felipe jarri zen gidari eta Fran gonbidatu zuen kopilotuaren jarleku erosoan esertzera. Atzean sofa estali batean jarri ziren emakumeak txangoaz gozatzeko prest. Irla handiari itzuli erdia egin zioten koral haietara heltzeko eta iparraldeko kostalde zoragarriaz gozatzeko. Abiadura osoa hartu gabe ere ia orduko 80 kilometroan ibiltzen ari ziren.

Toki apropos batera heldutakoan, urpean koral kolonia anitz eta zoragarrien artean egin zuten igeri. Arrain multzo desberdin politak ikusten ziren. Noizbehinka lantxaren atzealdeko plataforman hartzen zuten atsedena. Haiek bai irla xarmagarriak! Nekatu zirenean, pareoak, jantzi arinak eta oinetakoak jantzi zituzten eta badiaren erdira mugitu ziren. Irla handiko hondartza luzeko badia batean aberatsen itsasuntzi garestiak ikusten ziren unte handi eta dotorearen inguruan. itsasuntzi-jatetxe hura Queen of the Sea zen, munduko onenetakoa. Ondoan geldituta, amarradura parera pasa ziren eta handik goiko bizkarrera edo kubiartara igo ziren. Kubiarta osoa jantokia zen.

Jantokian hirurogei bat bazkaltiarrentzako tokia zegoen. Orduan erdi hutsik zegoen jantokia beteko zen, gourmet-ek jakirik onenak eta hobekien prestatuak dastatu ahal izateko. Han ez zen janaria aukeratzeko, eguneko dastatze-menu desberdin zoragarria antolatzen baitzuten. Lau lagunentzako mahaia hondartzara begira zegoen. Lau lagunok sportez jantzita baina dotore, lagunarteko solasaldi arina eta dibertigarria egin zuten. Etxeko koktel arina eman zieten eta soseguz platerak eta edari apropos desberdinak zerbitzatu zizkieten, beraien atseginerako.

Dastatzeko menua zoragarrian zortzi plater ziren. Hasteko, urdai-azpiko eta gaztako quesadilla izeneko pasta arinak dastatu zituzten ardo beltz berezi batekin, baita bakailao eta guacamole accras izeneko tortita zoragarriak ere. Plater nagusian jengibre saltsan egindako oilaskoa, sesamo, komino, Jamaikako piper gozoa, babarrun beltzak arrozarekin eta banana frijituak zituen. Oilasko afrodisiakoa deitua zen etxeko espezialitatea. Hura hartu zuten denek, baina limoiz eta albahaka resiff saltsan. Basmati arrozarekin enperadore arrain dotoreak bazuen itxura ona eta zerri saiheksak Caribe erara, limoi eta ezti saltsan zoragarria zen. Azkeneko bietatik dastatze txikia baino ez zuten egin, enpo baitziren. Ardo zuri kitzikagarria eman zieten arrainarekin hartzeko eta Borgonoako erreserba bereziko beltza haragirako. Postre bariatua eskaini zizkieten bukatzeko, champagne onarekin lagunduta. Oso gustura bazkaldu zuten eta beteta geratu ziren. Chef-a agertu zen postreetan. Bere plateren harreraz pozik, beraiekin denbora batez egon ondoren, beste kopa bat champagne batera gonbidatu zituen. Azkenik unte-jatetxeak hondartzan zuen eremura joan ziren etzaulkietan gin-tonic bat erlaxatuta hartzera.

Hondartza ondoko palmondoen artean eta barnera paseatu ziren esnatzeko eta paisaia zoragarria ikusteko. Hondartza eta urak ezin ikusgarriagoak ziren. Berandutzen ari zen eta beren hotelera itzuli ziren lantxa arinean. Iluntze azkarra eta ederra kaian sartzean ikusi ahal izan zuten. Hotelera itzuli zirenean mokadu bat hartu zuten, snack xume bat afari lege bezala eta bi bikoteek agurtu zuten elkar. Gustura baina nekatuta zeuden. Hurrengo eguna azkena zen, ongi aprobetxatu beharreko eguna.

Gelara itzuli zirenean Pilik eta Franek hitz egin zuten. Pili pozak zoratzen zegoen. Lotarako arropa jantzi eta atsedenerako prestatu ziren.

–Fran, egun zoragarria izan da. Paisaia txoratzeko modukoa zen, itzulia ikaragarria, eta Queen of the Sea jatetxeko bazkaria ezin hobea. –Franek arrazoi eman behar zion. Berak ere primeran pasa zuen.

–Bai, Pili. Egun zoragarria izan da. Tamalez oporrak bukatuko zaizkigu eta itzuli behar dugu betiko bizitzara. –Pilik etorkizunaz mintzatu nahi zuen.

–Horixe da kontua. Oporrak bukatuko zaizkigu, baina ezin gara aurreko bizitza ilunera itzuli, beti lanpetuta, triste, eta elkarrengandik urrun ibiltzen ginen bizitzara. Noizbehinka, honelako oporrak izateko eskubidea ere badugu. –Gizonak berdin pentsatzen zuen, baina ez zuen osotara sinesten Felipek eskaintzen zien aukera.

–Bai. Berdin pentsatzen dut, baina dudak ditut oraindik. Politegia da dena..., egia izateko. –Pilik ezin zuen onartu atzera egite bat.

–Ez duzu atzean egingo, ezta?

–Ez. Baina tentuz egin beharko genituzke egin beharreko urrats guztiak.

–Ulertzen dizut eta ados nago. Baina gogoratu biok gaudela bizitza aldaketa honetan. Ni izango naiz zure idazkaria, dena onbideratu arte behintzat, urteak behar badira ere. Denbora guztirako gure bizitza hobetuko badugu.

–Eskerrik asko Pili.

–Ez horregatik.

Bikotekideek musu bero bat eman zioten elkarri.

Azken egunean, bederatzigarrenean, hiriko alde zaharrean itzulia egin zuten bi bikoteek. Gizonak klub batera joan ziren jokoan aritzera eta nesken ikuskizunaz gozatzerara; emakumeak erosketetara abiatu ziren.

Hurrengo egunean, hamargarrenean, itzultzeko egunean, ez zuten ezertarako astirik izango. Goizaldean altxatu eta prestutu behar izan zuten hegazkina hartzeko eta Pariseko aireportura hegan egiteko. Fakturatu eta ordu betera igo ziren hegazkinera, eguneko lehen argitan. Bidaia luzea zen, baina ongi eta erraz eramane zuten, catering eta snacken eskaintzekin. Lehen momentutik, eserlekutik altxatu ahal zirenean, bi bikoteek trukea egin zuten gizonak alde batetik eta emakumeak bestetik elkarrekin egon ahal izateko. Sara eta Pili egindako erosketez eta aurrerantzean elkartzeko planak egiten aritu ziren; gizonak, berriz, aurreko eguneko ibiliari buruz. Lanaz eta negoziioez ere hitz egin behar zuten. Felipek zirikatatu zuen laguna.

–Atzoko “mulata”-rekin asko mintzatu zinen –Franek bazekien kontu horrekin hasiko zela. Ez zitzaion egoera hura gustatzen eta haserretu zen.

–Chantalekin horixe besterik ez nuen egin, mintzatu. Zuk, aldiz, denbora eman zenuen atzeko alde hartan. –Felipe haserretu zen orduan.

–Ez izan puritana. Jolas pixka bat egin genuen. Ni ez nintzen zirri egiteko gogotan geratu, zu bezala. Nik ez dakit nire “mulata”ren izena, baina bere gorputza ezagutu nuen. Baina..., utz dezagun kontu hura. Negozioez hitz egin behar dugu. Egun gutxitan burutu behar dugu gure bazkidetza... Noizko egingo ditugu paperak?

–Nik hilabetea behar dut lana uzteko. Bitartean, prestatuko ditut paperak, bufetea erregistro merkantilean alta eman, eta beharrezko bitartekaritzak gauzatu; baita zuekiko bazkidetzarako dirua lortu ere. –Bazirudien Felipek ez zuela hainbeste denboraz zain egon nahi.

–Ezin duzu astebetean burutu?

–Ez. Hilabetea pasatu behar dut lana uzteko. Denbora horretan antolatuko ditut dokumentuak eta gure pisuaren hipoteka berrantolatuz lortuko dut dirua. Espero dut zuekiko bazkidetzarako nahiko dirua lortzea, baina ez dut lortuko berrogeita hamar mila euro. –Felipek etsitu aurpegia jarri zuen. Konturatu zen Franek ez zuela diru gehiago lortuko.

–Hala bada, gure enpresako zuzendaritzakoak konbentzitu ditut gutxiago izateko, baina etekinetan gutxiago irabaziko duzu. Hamar mila gutxiago sartzeak aurtengo etekinetan ia hogeita mila euro gutxiago irabaztea dakar. Atera kontuak.

–Sentitzen dut. Baina, orain ezin izango nuke diru gehiago lortu. Klausula bat sar dezakegu, epe mugatu batean parte hartzea handitzeko, baina orain ezinezkoa da.

–Onartu behar dut. –Une batez bi lagunak elkarri begira geratu ziren.

Handik aurrera bi gizonen planak egiten aritu ziren. Bien artean zabalduko zuten enpresaren indarra eta garrantzia. Zabalte planez gain elkarrekin izango zuten bizitzaz aritu ziren. Astero elkartuko ziren Bilbon eta zenbaitetan kanpora joango ziren lanera eta ongi pasatzera. Felipek animatu nahi zuen lagun berria.

–Ostegunetan etortzen bazarete, bi egunez lan eginez gero, ostiral gauetan eta larunbatetan Bilboko eta inguruko lekuri interesgarrietara eramango zaituztegu. Ongi pasatuko dugu. Londres eta Parisera ere asteburu batean edo bestean joango gara hegaldi erosoak baititugu Loiotik. Francis, ez al zara animatzen? –Gizonak bufete berria eta hasierako lana zuen buruan, asteburuetako denbora-pasak baino.

–Begira Felipe, bufetea martxan jartzeak kezkatzen nau. Ez da erraza Iruñeko bezeroak egitea. Denbora pasatuko da negozioa egonkortu arte. –Felipek ez zuen interesik horretan. Jarraitu nahi zuen plan atseginekin.

–Utzi kezka alde batera. Gure lankidetzarekin nahikoa irabaziko duzu.

Bidaia arin pasa zitzaien tartean catering ona eskaini baitzieten eta konturatzeko Parisera heltzen ari ziren. Pili eta Fran beren eserlekuetan eseri zirenean, jarduna komentatu zuten.

–Zer moduz egon zarete emakumeok?

–Primeran. Planak egiten. Bilbon, Londresen eta Parisen toki zoragarriak daude kultura eta aisiarako. Zuek antzera ibili zarete, ezta?

–Bai, baina negozioez ere hitz egin dugu eta baikorregia iruditzen zait Felipe. Nabari da bizitzan ez duela arazo handirik izan.

–Hala ere, guk geure bizitza hobetzeko egin behar dugu, Fran!

–Bai, Pili. Bizimodua hobetuko dugu.

Parisetik beren etxeetara bi bikoteek garraio bide eta ordutegi desberdina zutenez, elkar agurtu zuten hurrengo egunetan beren planen martxaren berri besteei telefonoz eman arte. Sarak eta Felipek Parisen pasastuko zuten hurrengo eguna etxera itzuli baino lehen. Pili eta Franek Miarrizko hegazkina hartu zuten eta handik beren autoz jarraitu zuten Iruñera. Oso berandu heldu ziren etxera. Leher eginda zeuden eta taberna batean mokadu bat hartu ahal izan zuten, etxera heldu eta lotara joan baino lehen.

Hurrengo egunean berandu altxatu ziren. Errotxapeako alde berrian bizi ziren eta gauza asko egin behar zuten. Eskerrak egun oso bat zutela betiko bizitzara itzuli baino lehen. Eguna arropa garbitzen eta erosketak egiten eman zuten. Lasaitzeko eta atsedean hartzeko ere aprobetxatu zuten.

Gauean, Franek egin behar zuena telefonoz hurbileko lagunei kontatu zien. Gehienek ezin zuten sinetsi, baina arrazoia eman zioten hura egiteko. Hala ere, Manuel Zubiak, lankidea eta azken urteetan lagunik handiena, ez zuen oso garbi ikusten kontua.

–Fran, pozten naiz zuregatik, baina ez dut bat ere garbi ikusten. Inork ez du lanpostu eta soldata zoragarria besterik gabe eskaintzen. Bizitza honetan gurasoak, aitona-amonak, gertuko familiakoak edo aspaldiko oso lagunak ez badira, inork ez du ezer handirik oparitzen. Nik Felipe hori ikertuko nuke... – Fran harritu zen lagunaren jokaeragatik.

–Felipe ikertu? Mecánicas del Nervión sektoreko enpresarik garrantzitsuenetakoa da eta Bernabe eta Felipe Larrazabal nahiko ezagunak gure munduan...

–Hala izango da, baina nik ez dut zure istorio hau erabat sinesten. –Fran zen sinesten ez zuena. Bere bizitzako aukera zuen eta ustezko bere lagunik onenak zapuztu zuen momentua. Haserre erantzun zion.

–Istorio deitzen al diozu? Ea zer diozun gurekin lan egiteko deitzen dizudanean? Bihar hitz egingo dugu.

Piliren lagunak hasiera batean harrিতa geratu ondoren, zoriondu egin zuten aukeragatik eta ongi ikusi zuten. Baten batek ez zuen erabat garbi ikusiko, baina ez zion ilusioa kendu nahi. Monica Sanchezek, bere lagunak onenak, ez zuen zalantzarik.

–Zorionak. Zure lan esklaboa utziko duzu. Lan handia izango duzu bulegoan eta bufetearen hasierako momentuetan, baina esan duzunez bizitza zoragarria izango duzue.

Baiona etorbideko Subiza Abokatueta bederatzi eta erdietan irekitzen zituzten bulegoak publikoarentzat. Hala ere, bertako administratibo, idazkari eta bereziki garbiketako langileak lehenago hasten ziren lanean. Fran lanean zen zortzietarako. Manuelek partekatzen zuen bulego-gelan azken berriak komentatu zituen. Fran oporretan izan zen bitartean aldaketa eta berri gutxi gertatu zen, lizentzia eta baimen arloari zegokionez behintzat. Eginbeharrekoa ez zen nekagarria, baina prozedurak konplikatuak ziren eta burokrazia ikaragarria. Makina berri baterako ideia hasten zenetik merkaturatu jarri arte, hau da, enpresa batean funtzionatzen aritzeko moduan jarri ahal izateko dena burutu arte, bi urte edo gehiago pasatzen zen gutxienez.

Bi lagunak lanean aritzeko moduan dena prestatu ondoren, Franen asmoak eztabaidatu zituzten. Bien agindupean lan egiten zuen bulegaria paper batzuk prestatzen ari zen eta beraiek goizean egingo zutena programatu zuten.

Franek, Rafael Fonsecarekin, bere nagusiarekin hitz egin zuen hamarretan agertu zenean. Zehaztasunik eman gabe, bufetea utzi nahi zuela eta bere kabuz lanean aritzeko asmoa zuela adierazi zion. Ongi zekien bezala hilabete batez jarraitu behar zuen lanean. Gainera, handik aurrerako beharrezko leialtasunaz aipamenak entzun behar izan zizkion nagusiarri. Ezin zizkion enpresari bezeroak kendu, ordura arteko lanak bukatu bitartean behintzat. Edonola ere, gutxiago irabaziz, egun desberdinetan ordu batzuk hartu ahal izango zituen hurrengo asteetan, bere bufetea ireki eta martxan jarri ahal izateko.

Burokraziaren erritmoan eta errutinan murgildu zen Fran. Goizean beharrezko prozedurak bete zituen bulegoan. Hainbat korreo bidali zuen eta pertsona batzuekin hitz egin zuen telefonoz. Manuelek begiratuak botatzen zizkion noizbehinka. Franek bien arteko elkarrizketa zeukan buruan. Lagunaren aholku eta zalantzek iluntzen zioten gogo-aldartea, animoa. Dena den, laneko kontuekin jarraitu zuen.

Franek Felipekin hitz egin zuen eguerdian. Agertu ondoren abokatuak azken berriak eman zizkion lagunari.

–Felipe, dagoeneko baja eskatu dut bufetean eta etzi ordu batzuk hartu ahal izango ditut nire enpresa martxan jartzeko. –Ingeniari senak edo, lagunari galdetzera behartu zuen Felipek.

–Gure enpresak makina batzuetarako baimen-eskubideak saldu nahi dizkie Iruñeko enpresa batzuei. Premiazkoa da dena martxan jartzea. Ezin al duzu lehenago zure lana utzi eta gurekin lan egin? –Fran gogoz bazegoen ere, ezin zuen ezer egin. Felipei itxoiteko eskaera egin zion. Konbentzitu behar zuen.

–Felipe, hilabete batean egin ahal izango dugu. Ez zaizu damutuko. –Telefonoaren bestaldean urduritasuna eta haserrea sumatu zituen. Bazirudien Felipek ez zuela onartu nahi Franek hilabete oso bat behar zuela lana uzteko.

–Ezin duzu hamar egunetan bufetea martxan jarri?

–Ez. Legeak ez du ahalbidetzen hori egitea. Gauzak behar bezala egin behar dira. Abokatua naizen aldetik pazientzia eskatu behar dizut.

–Ongi da. Ulertu dizut, baina lehenbailehen hasi behar dugu.

–Hala izango da. – Bi lagunek harremanetan jarraituko zuten.

Egun hartan planifikatu zuten egitasmoa jarri zuten martxan. Hurrengo egunean Franek lan arrunta egiten jarraitu zuen, baina bazirudien zerbait aldatu zela. Lankideek inbidiaz begiratzen zioten eta bezeroek harreman berri batera gonbidatzen zuten. Esaten zutenez ahal zutenean berarekin lan egitea zuten helburu. Uste baino errazagoa izango zen etorkizuna, nahiz eta zailtasunak izango ziren.

Hurrengo egunetan lanaz gain mailegua bideratzen aritu zen eta merkataritza-erregistroan bufete berria sortzeko alta eman zuen gizonak. Bere enpresa bufete asoziatu bezala ere antolatu behar zuen. Pilik lagunduta bulego bat bilatu zuen alokatzeko. Lehenengo zabalgunean, Padre Moret kalean, komuna, harrera-gela eta langela zituen bulegoa lortu zuten. Ez zen oso garestia eraikin zaharra zelako eta altzari arruntak zituelako. Ez zen handia, baina eroso eta ongi kokatuta zegoen. Pilik lanerako behar zituzten altzari eta traste batzuk lortu zituen: telefonoak, bi ordenagailu sarean, inpresora eta modema prezio onean, baita telefono-kontratu ona ere.

Hipoteka berrantolatuz, behar zituzten 50.000 euroak lortuko zituen. Diru hartatik bazkidetzak eramango zuen gehiena, 40.000. Bestela ere, bufetea martxan jarri eta hilabete batzuetan aurrera egiteko dirua behar zuten. Momentuz lehenengo 10.000 euro lortu zituzten mailegu pertsonal gisa, ia erdia bufetea sortzeko eta bulegoa alokatzeko. Gainerako dirutzaren mailegua, hurrengo astean lortuko zuten pisuaren hipoteka berrantolatuz.

Denbora, ziztu bizian pasa zitzairen Pili eta Frani. Lanera joaten ziren, baina lan aldaketak eraginda, uste baino mandatu gehiago egin behar izan zuten eta ez zuten denbora gehiegirik lasaitzeko, ezta denbora librean ere. Izan ere, lagun eta familiakoekin orduak ematen zituzten aldaketa komentatzen. Franek zailtasunak izan zituen bere gurasoak eta anaia-arrebak konbentzitzen, Pilik ez hainbeste. Franen amak, dena den, ez zuen erabat onartu lan aldaketa ona izango zenik.

–Seme, lana daukazu. Langabezia ikaragarria den garai honetan eta dagoen krisiarekin ez dut zure lan aldaketa oso segurua ikusten. Daukazun lana egonkorra da eta bizitzeko adina irabazten duzu. Ezin duzu atzera egin eta lan horretan jarraitu? –Franek erreakzio hura espero zuenez prestatu zen eztabaida luze baterako. Gainera, ez al zuen lehenbailehen lana uzteko eskaera egin, aldaketa gauzatu ahal izateko?

–Ama, ez dago atzera egiterik, baina ez kezkatu. Lana ziurtatzen ari naiz, bezero izandako askok niregana joko baitute aurrerantzean lan egiteko.

–Hitz ematen al didazu kontuz ibiliko zarela?

Pilik betiko lana utzi ahal izan zuen lehenago, kontratatu zuten langile berriak berehala ikasi baitzuen eta neurri handi batean lan gutxi zutelako. Hori zela eta, aukera izan zuen Norarekin, Manuel eta Franen idazkari-bulegariarekin, lanaren alde administratiboa ikasteko. Piliren ikasketak administratiboak zirenez berehala jabetu zen lanaz, erdi ezkutuan Norarekin emandako orduetan. Bulego berria eta ordenagailuetan egitura administratiboa prestatu zuen egun gutxitan.

Gizonak, Franek, askotan hitz egiten zuen Feliperekin. Hamar egunetan bulego berria antolatzen ari ziren eta prozedura burokratiko guztiak martxan jarriak zituzten. Mailegua berrantolatzea eta bazkietza hitzarmena baino ez ziren falta. Felipek lehenbailehen burutu nahi zuen lankidetzak.

–Francis, nik ezin dut gehiago atzeratu bazkietza. Gure enpresaren zuzendaritzak ez du ulertzen atzerapena, lizentzia eta baimen batzuk burutu behar baititugu Iruñeko enpresa batzuekin. Zurekiko hitzarmena burututa egongo balitz atzerapena hobeki onartuko lukete.

–Behin eta berriro aipatu dizut. Badakizu ezin dudala oraingo enpresa utzi. Bulegoa prest daukagu eta lan egiteko lizentzia emango digute aurki. Bi aste barru lan egin ahalko dugu. Ezin zarete zain egon pixka batean? –Segundoak pasa ziren. Feliperen isiltasunak haserrea adierazten zuen. Zerbait esan zuen azkenean.

–Ezin dugu horrela jarraitu. Hitzarmena behintzat aurreratu beharko genuke, nahiz eta baliotasuna bi aste beranduago gauzatuko den. –Franek garbi ikusi zuen ez zuela aukerarik eta Feliperen proposamena onartu zuen.

–Ados. Zer egin dezakegu?

–Esan dizut bada. Bazkietza-hitzarmena lehenbailehen aurreratu. Datorren larunbatean Bilboko notariotzan geratuko gara. Ekar itzazu zure bankuak baimendu eta gurutzatutako ordain-agiriak. Azken hau izan dadila eramaileari edo Alfredo Mungiari zuzendua, errazago kobratu ahal izateko. Zuk ikus dezazun bazkietza hitzarmenaren zirriborroa bidaliko dizut.

–Ongi da. Hitz egingo dugu.

Egunean bertan jaso zuen dokumentua. Bazkietza hitzarmenaren zirriborroa aztertu zuen Franek. Dena ongi zegoela zirudien. Mecánicas del Nervión S.A.L.-k bera bazkide gisa onartzen zuen, enpresaren diru-partaidetza gauzatuz gero. Felipe Larrazabalek ingeniari nagusi bezala sinatzen zuen eta Alfredo Mungiak zuzendari exekutibo bezala. Feliperen aita, Bernabe Larrazabal, zuzendari nagusi bezala agertzen zen paperetan baina sinatzaileak Felipe eta Alfredo Mungia izango ziren.

Hiru egun falta ziren, baina beharrezko prestaketa guztiak egin zituzten. Larubat goizean Fran eta Pili Bilbora joan ziren hitzarmena gauzatzeko. Sara eta Feliperekin elkartzu ziren taberna batean sinatu baino lehen. Feliperen ezagun baten notariotzan gauzatu behar zituzten kontratuak. Elkar agurtu eta eseri ondoren, kafeak eskatu zituzten. Berehala, gizonak eta emakumeak solas desberdinetan hasi ziren. Sara eta Pili sinaduren ondorenerako planak egiten hasi ziren. Asteburua elkarrekin pasatuko zuten bazkaltzera joango ziren, baina arratsaldean eta gauean egingo zutena komentatu zuten. Gizonak,

berriz, negozioez ari ziren. Lankidetzaz gauzatu eta gero egin beharreko lan batzuk aipatu ondoren, Felipek bufete berriaz galdetu zion Frani.

–Francis, zer moduz ibili zara bulego berria antolatzen? –Honek espero zuen betiko galdera, eta lasaitzeko ahalegina egin ondoren erantzun zion.

–Oso ongi. Pilik prest dauka dena. Bi aste barru legalki egin ahal izango dugu lan. Gustatuko zaizula espero dut. –Felipek irri maltzurra egin zuen.

–Lagun, nik ez dut zure bulegoa askotan bisitatuko. Lankidetzaz gauzatuko dugu nik Iruñera gutxiagotan agertzeko. Bulegoa zure gustukoa izan behar da. –Abokatuak zalantza bat adierazi zuen.

–Oso lanpetuta ibili naiz egun hauetan. Hala ere, zuen lantegiak eta bulegoak ez ditut oraindik ezagutzen. Bisitaldi bat egin nahi nuke oraintxe bertan ahal izanez gero.

–Une honetan ez da posible. Nazkatuko zara gure enpresetan ibiltzeagatik. Sinatzea ordu erdi bat barru egingo dugu hemendik hurbil eta gero hotelera eramango zaituztet maleta uzteko. Bazkaria bertan egingo dugu.

–Ongi da. Gogo handia dut hau guztia bukatzeko.

–Ez nik baino gehiago. Sinatu ondoren dena amets bat irudituko zaizu. Hitz ematen dizut bizitza osoan gogoratuko dituzula egun hauek. –Hura esaten zuen bitartean irri maltzurra baino gehiago kezagarria iruditu zitzaion Frani.

Notarioaren bulegora joan ziren kontratua sinatzera eta bazkidetzaz gauzatzera. Notaria-bulegoa arrunta zen. Lege-liburuz beteriko bilera gelara pasarazi zituzten denak. Han, notarioarekin Mungia jauna zegoen, hirurogei bat urteko gizon dotore eta serioa. Idazkari batek agiriak pasa zizkion notariari. Gizon hura ez zen oso zaharra eta laguntasunez hurbiltzeko esan zien hiru sinatzaileei. Denak eseri ondoren agiria irakurri zuen. Bukatutakoan, ados zeuden eta zalantzarik zuten galdetu zien. Inork ezer galdetu ez zuenez, paperak eta diru ordainagiriak gurutzatu behar zituzten. Ordainagiria, Alfredo Mungiaren izenean eta ongi zegoela adierazi zuen. Notarioak, Alfredo Mungiak eta Felipe Larrazabalek sinatu zutenean, Fran ezustean altxatu zen eta dei azkar bat egin zuen poltsikoko telefonotik. Segidan gizon batzuk sartu ziren bilera-gelan. Franek berak eman zien azalpena harritutako guztiei.

–Polizia judizial hauek zuen nortasun agiriak eta identitateak egiaztatu egingo dituzte. Ziur nago Alfredo Mungia gizon honen benetako izena dela, edo behintzat izen horrekin dirua erretiratu ahalko lukeela, baina Felipe Larrazabal ez da zure benetako izena. Zuek ez duzue “Mecánicas del Nervión” enpresarekin zerikusik. Iruzur handi bat da hau.

Denak lur eta zur zeuden. Ustezko Felipe eta Sara, ezustean harrapatuta beldurtu ziren. Notarioari ere N.A.a eskatu zioten. Polizia batek hitz egin zuen segidan.

–Bagenekien notariotza honek gaur itxita egon behar zuela. Gizon hau ez da notarioa eta Felipe Larrazabal izenez ezagutzen duzuen Miguel Rodezno da. Mungia benetako izena du gizon honek, baina

inork ez du zerikusirik enpresarekin. Sara Sarasola gaizkidea da. Laurok eta idazkari papera egin duena atxilotuta zaudete, iruzur eta lapurreta saiakera honengatik eta auzipetuko zaituztegu. Urte batzuk emango dituzue ziegan, Rodeznok besteok baino zenbait urte gehiago.

Han zeuden guztiak iltzatuta bezala zeuden lekutik mugitu gabe. Pilik ez zekien hura guztiaz ezer eta Frani begira geratu zen. Ahoskatu gabeko galdera egin zion Frani. Honek erantzun zion.

–Sentitzen dut Pili. Ez zara oso antzezle ona eta itxurak egin behar genituen. Aspaldian susmatzen nuen zerbait gertatzen ari zela, baina zuk bezala ez nuen amets honetatik esnatu nahi. Manuel Zubiari esker ez gara tranpa honetan erori. Lagun horrek ikertu zuen eta berehala topatu zuen gezurra. Egia zen Felipe Larrazabal, Bernabe Larrazabal presidentearen semea zela, baina benetako Felipek ez zuen honetaz ideiarik. Manuel, Mecánicas del Nervión enpresakoekin harremanetan jarri zen eta jakin zuen Felipe Larrazabal hau gezurtia eta iruzurtia zela. Enpresa haietan ez zekiten gure bazkideztaz ezer. Ustezko Felipek agiri batzuk faltsutuko zituen iruzurra gauzatzeko. Manuelek eraman du poliziarekin ikerketa eta harremana.

Orduan Felipek edo Miguel Rodeznok egin zion zuzeneko galdera Frani.

–Baina, nik jakin eta ikusi nuen lana utziko zenuela!

–Eta hala da. Bufete berria antolatu dut. Nire aldetik ibiliko naiz hemendik aurrera. Espero dut aurrera egitea. –Sara bezala ezagutzen zutena ezin sinetsiz xuxurlatu zuen zerbait. Ulertu ez zutela ikusita, errepikatu zuen.

–Uste nuen dena irentsi zenutela. Pilik dena sinistu du! –bota zuen beste emakumeari begira. Pili ezin zen isildu.

–Francis, ongi egin duzu ezer ez kontatzean. Nik ezin dut disimulatu, emakume suge honek egin duen bezala. Ustel zaitetz infernuan! 40.000 euro lapurtu nahi zenizkiguten, lapur madarikatuok! Izorratu eta kale gorrian nahi gintuzuen, zerriok! –Sarak erantzun zion.

–Ez dakizu nola aspertu naizen zurekin. Bizitza oparo nahi zenuen eta ez dakizu zer den bizitzea! –Pilik zuzen begiratuta erantzun zion.

–Ez uste zu apartekoa zarenik. Jasanezina zara kondesa aire horiekin. Bizitza hobea nahi nuen biontzat eta oker ez banaiz saiatuko gara horretan. Ez da izango amets hura, baina ez ditugu zuek antzeztutako aberaskumeak jasan beharko.

Poliziek atxilotuak eraman behar zituztenean berriro hitz egin zion Felipek Frani.

–Gizajo horrek zer egin behar duzu!?

–Nire aldetik arituko naiz lanean. Egun hauetan bezeroek nirekin lan egin nahi dutela esan didate. Aurrera egingo dugu, ez izan zalantzarik. Harrapatu zaituztegu, putre horiek! –Gaizkileak eraman

zituztenean, poliziek azkeneko ekintzak burutu artean, bikotekideak une batez geratu ziren bilera gelan. Pili zalantza batzuk zituen.

–Ordainagiria egiazkoa al zen?

–Ez. Poliziaren laguntzaz bankuak itxurazko bat egin digu, baina ez da benetakoa. Ez dugu hipoteka birnegoziatu. Espero dut 10.000 euroko mailegu pertsonalarekin aski izatea.

–Fran, ez dut ulertzen! Zergatik egin digute guri hau guztia? Nola egin dute jukutria hau antolatzeko?

–Uste dut kasualitatez aukeratu gintuztela. Martinikarako bidaiarien artean ikertuko zuten eta ez dakit zergatik, baina ni aukeratu ninduten. Izango zen nik profila ematen nuela. Abokatu edo ingeniari bat bilatuko zuten ziur asko. Abiapuntu harekin Felipe Larrazabal eta emaztearen pertsonaiak asmatu zituzten. Hori da behintzat Manuelek eta biok susmatzen duguna. Poliziari galdetu beharko genioke.

–Orain itzuliko al gara Iruñera? –Franek tentsio egoera pasata, irribarrez erantzun zion.

–Ez, Pili. Orain hotelean utziko dugu maleta eta bazkaltzera joango gara. Asteburu hau ongi aprobetxatu behar dugu Bilbon. Gure bizitza berriaren lehen eguna ospatu behar dugu.

Pili Irurzun eta Fran Zabalza eskutik helduta atera ziren bulego hartatik.

Bizitzaren aukerak: Elena arriskuan

Elena Garzia Etxegoien idazle gazte bat zen, hogeita hamahiru urtekoa, pertsona argia eta itxura onekoa. Modernoa zen eta edozein gauza jantzita dotore ematen zuen. Ez zen mehea, baina bere hirurogeita sei kiloak ongi banatuta zeuden, metro eta hirurogeita hamahiruko garaieran. Ille gaztaintara eta luze samarra zuen. Begi handi nabarrek interesa adierazten zuten. Ezpain lodi irribarretsuek eta masailek gozaten zioten aurpegia. Sudur handi samarra izan arren ondo geratzen zitzaion. Ez zen oso deigarria, baina harreman hurbiletan atsegina zen, oso. Gizonak erakartzen zituen ezer egin gabe eta emakumeekin ondo komunikatzen zen. Erraz konpontzen zen edonorekin, zahar eta ume, heldu edo nerabe, gizon edo emakumezko.

Kazetaritza ikasi ondoren freelance bezala egin zuen lan zenbait urtez. Gogorra zen berriak sortzen ziren lekuetan lan egitea. Hondamendiak eta gerlak zeuden lekuetara joaten zen jendearen egoera tamalgarriak eta zoritxarrak kontatzeko. Hondamendi naturaletan, lurrikara, uholde, urakan edota sute handien ondorioak deskribatzen zituen. Gerra eta jazarpenen ondorioz ere familiek jasaten zituzten egoerei buruzkoak ziren bere berriak; erailketak, goseteak, gaixotasunak eta jendearen sufrimenduak bere gaiak.

Munduan zehar ibili zen zoritxarren eta sufrimenduaren geografia ezagutzen: Afrika, Amerika, Asia edo hondamendia gertatutako edozein lekutan. Urte batzuetan lan ikaragarri hura egiten ibili zen. Argialetxe batek Siriako gerrari buruzko familia batzuen istorioen bilduma idazteko eskatu zionean fama eta diru pixka bat lortu zuen. Suertez lan hura egiten zuen bitartean hango gerraz nobela bat idatzi eta literatura saririk ospetsuena lortu zuen. Urteko libururik salduenetako bat izan zen. Horrek dirutzaz gain sona eta lana eman zizkion aurrerantzean. Egunkari ezagun batzuek ondo ordaintzen zizkioten artikuluak, gehienetan kutsu zozialak eta internazionalak zituztenak.

Ordutik, urte pare bat pasa zen eta bizitza lasaia izan zuen Madrilen. Ondo kokatutako pisua zeukan hiri hartan eta lan finkorik ez bazuen ere, ondo bizitzeko adina irabazten zuen bizpahiru egunkaritarako egiten zituen artikuluekin. Primeran bizi zen, lagunak zituen eta gautxori ederra zen. Asteroko bizpahiru artikuluekin idazle ezagunen artean mantentzen zen, baina azken aldian ez zegoen hain pozik.

Orokorrean lana aldetik ez zuen arazorik. Interes sozial eta internazionala zuten gaiekin jarraitzen zuen. Zorionez, ez zuen miseriarik ikusi behar. Ez zuen bizitza gogorrik eraman behar aurrera egiteko. Berandu altxatzen zen eta aski zuen egunean zehar zenbait ordutan berriak jarraitzeko eta asteroko artikulua idatzi ahal izateko. Lan gehiena informazioak egiaztatzen ematen zuen, lana ematen zioten egunkari eta aldizkarietako kazetariekin, ia lankideekin lan harremanak eginez. Lanorduez gain, ardura gutxi zeukan, beti kanpoan egiten baitzituen otorduak eta etxeko garbiketak egiten zizkiotelako. Gainera, akademia batera joaten zen bere ingeles eta frantses ezagutze eta mintza maila mantentzeko eta arte ikastaro batzuk jarraitzen zituen, gehienetan margo-tailer batean. Astean hirutan gimnasio batera joaten zen goizetan, sasoiaren egoteko. Baina arratsaldeetan lan egin ondoren, lagunekin elkartzeko kirola egiteko edo zerbait hartzeko. Azken aldian lagun berri batzuk egin zituen eta bizitza sozial interesgarria egiten zuen, pertsona, leku eta ekintza bereziak burutuz. Askotan asteburuetako jardueraz gain, festetara joaten zen asteko edozein egunetan. Ordu txikiak arte izaten zen leku bitxi eta pertsona

bereziekin, mota guztietako artistak, musikariak eta aktoreak gehienak. Behin baino gehiagotan astegunetan gaupasa egiten zuenez, goiza lotan ematen zuen eta ez zuen kiroldegia bisitatzen.

Pixkana-pixkana pentsatu zuen alkoholismoan erortzeko arriskua zuela. Bizitza festa bat zela sentitzetik, faltsua zela pentsatzera pasa zen. Bere lagunik hurbilena Pedro zen, bere mutil-laguna azken hilabeteetan. Oso harreman berezia izan zuen urte bat lehenago ezagutu zuenetik. Hasieran harreman berezia eduki zuen, aktore, eskultore eta idazlea zen artista harekin. Liluratuta egon zen, eder, erakargarri eta dibertigarria zen gizon puska harekin. Ez zen bere arte eta lanaz oso ezaguna, baina zituen harremanak, bere grazia eta abenturazetasunagatik zen miretsia. Beti izaten zuen zerbait berezia egiteko. Pedrok Elena sorgindu zuen. Hasieran festa-lagun bezala, gero lagun, eta azkenean amorante, bere bizitzako ardatz bihurtu zen azken hilabeteetan. Hala ere, hasieran dibertigarria zena arriskutsu bilakatu zen.

Elena berandu altxatzen zen. Gehienetan etxeko garbiketak egiten zituen Margak esnatzen zuen eguerdian agertzen zenean. Haserre hasten zuen eguna, edonon edozer ahoratzen zuen eta lanean saiatzen zen ondo ordaintzen zion egunkari nagusian. Freelance jarraitu arren, mahai bat uzten zioten eta lankidetzat har zitezkeenen laguntzaz gaiak eta historiak ikertzen zituen. Hala ere, artikulu eta ikerketa onak egiten jarraitzen bazuen ere, Elenak lanerako interesa eta gogoia galtzen ari zela nabaritzen zuen.

Baziren asteak hutsik eta gogorik gabe sentitzen zenetik. Gauetan ondo pasatzen zuen, gauza bereziak egiten zituen eta pertsona bitxiekin ibiltzen zen. Edonola ere, hasieran ezustean leku eta gauza bitxiak egiteak betetzen bazuen ere, aspertzen hasia zen. Gauza berriak eta abenturak izatea ez zen nahikoa ondo sentitzeko. Alkoholak eta drogek kezkatzen zuten Elena. Bera orduan ez zen horien menpe; baina erortzeko arriskuan zegoela uste zuen. Horrela ibiliz gero, bizitza hura jarraituz, gaueko bizitzako pertsonaia batzuei gertatu zitzaien bezala, haien morroi biziko zen. Drogez aparte, buruko gaixotasunen menpe eta obsesioz beteta bizitzea zen bere bigarren beldurra.

Pedrorekin mintzatzen saiatu zen Elena. Alferrik. Gizona fantasiako mundu batean bizi zen bere adierazpen artistikoen bitartez. Eskultura eta literaturazko adierazpenetarako gau bizitza hura ez zen arazoa, ezta aktore lanetarako, baina Elenarentzat bai. Berak artikulu eta erreportaje burutsuak eta sakonak idatzi behar zituen astean faltarik gabe. Errealitate eta arazo sozialak, egoera internazionalak eta hondamendiak ez ziren bateragarriak gaueko bizitza surrealista eta ludikoarekin.

Alferrik izan zen sentitzen eta pentsatzen zuena Pedrori esaten saiatzea. Berak ez zuen ulertzen edo horrela adierazten zuen. Tontakeriak zirela esaten zion. Drogak kontrolatu zitezkeela eta ez zela arazorik izango errepikatzen zuen. Desberdin pentsatzen zuten amoranteek. Behin Pedrok deitu zion haserre.

–Elena, atzo oso goiz joan zinen Emilioren etxetik. Ia arrazoirik eman eta desenkusatu gabe joatea ere!

–Barkatu, baina gaur lan handia nuen eta ezin nintzen geratu... –izan zen harritutako Elenaren komentarioa. Gizonak ez zion jarraitzen utzi.

–Ezin da festa batera joan eta anfitrioi horrela utzi. Aurpegi txarra jarri zenuen koka pixka bat eskaini zizutenean. –Elena ere haserretu zen.

–Badakizu lana dudanean ezin dudala ezer hartu. Ondo egin behar dut lo lan bat dudanean. Deskantsatu!

–Baina, ezin duzu jendea mesprezatu! –Jarrera desatsegina hartu zuen Pedrok.

–Ez dut egiten, baina astegunez ezin naiz festa, ospakizun edo abenturetan ibili.

–Badirudi ez duzula nirekin ezer nahi.

–Badirudi, zu, zure mundua eta nire lana ez zaretela bateragarriak. Gauzak horrela, gure harremana eten egin behar dugu. Ongi ibili, Aio –bota zuen telefonoko haria moztuz.

Orduetik ez zuten hitz egin. Pedrorekin egindako bizitza bukatutzat eman zuen Elena. Bat-batean Madriletik mugitzeko eta lan serioagoa egiteko gogoia izan zuen. Garbi zuen han geratuz gero, ez zuela bizi-egoera gaituztuko eta bizitza aldatu nahi zuen. Betiko artikuluek gain, Siriako errefusatuen egoeraz liburu on bat idazteko beharra sentitu zuen. Madrilen zaila izango zitzaioke leku lasai bat bilatu behar zuen.

Orduko bere lagun handienarekin hitz egin zuen. Ana lankidea zuen, baina lagun hark bazuen bere zalantzen eta ezinegonen berri.

–Elena, ordua zen Pedro alu hori uzteko! Hori artista? Horrek zu erabiltzen zaitu artisten munduan ibiltzeko.

–Orduan ados zaude denboraldi batez Madriletik atera eta liburu idazteko ideiarekin? –Galdetu zion segurtasun falta erakutsiz.

–Bai. Egin dezakezun hoberena da. Orain alferrik ari zara gaueko bizitzatik atera nahian eta gure lanetan erabat sartu gabe. Denboraldi batez on egingo dizute bizitokia aldatzeak eta liburu berria idazteak ere.

–Elenari grazia egin zion. Nork eta Anak hura esatea ere!

–Gezurra dirudi! Zu zara gautxoriena eta gaueko bizitza uzteko aholkatzen didazu!?

–Hala da. Baina mundu isolatuak ditut. Gauetako txorakeriek ez didate eguneko lana oztopatzen. Nik behar dut gauekoa, eguneko jasateko; baina neurrian daukat. Lotarako behar ditudan orduak eginda, eguneroko bost kilometroak egin eta prest izaten naiz lanean ondo ibiltzeko.

–Bai garbi dago. Ez dakidana da zergatik bihurtu zaren Pedroren etsai?

–Ez naiz haren etsai. Hala ere, berarekin lelotuta zeundenez, ez zenidan sinetsiko Pedro ez dela benetako artista bat. Dena itxurakeria du eta jendearekin atsegina izatea du bertuterik onena. Txarrena zen zu erabiltzen zintuela mundu horretan mugitzeko.

–Beno, orduan denboraldi batez hemendik joatea aholkatzen didazu, ezta?

–Bai.

Elenak txikitako udak gogoratu zituen. Amaren herrira joaten ziren aitona-amonen etxean hilabete pare bat pasatzera. Laguntxoak ere egin zituen, lehengusinak eta bere adineko beste lagun batzuk. Orduan ere harremana zuen baten batzuekin. Gogoratzen zuen bazkalondoan besteak lo-kuluxka egitera joaten zirenean berak sentitzen zuen lasaitasuna eta bakea. Une hartan, hasi zen ipuinak eta istorioak idazten, nahi gabe bere etorkizuna egiten. Ezin zuen ideia pasatzen utzi eta Interneten alokairuzko etxeak bilatzen hasi zen. Kokapena idatzi zuen: Bizkaiko kostaldean apartamentuak.

Gorlizeko apartamentu batzuk agertu ziren Web batean. Ez zuen amaren herrian egon nahi, lanerako txarra izango zelakoan. Gorlizen bertan bizitokia bilatuz gero, ziur zen familiako edo ezagunen batek bere lan asmoetan traba egingo ziola. Ez zuen interferentziarik nahi eta erabaki zuen Interneten bilatzen jarraitzea. Ez zuen hartuko agertuko zen lehenengo apartamentua, baina aukera desberdin on batzuk inguru hartan izanez gero, egingo zuen. Gustura joango zen Gorlizera bisita egitera. Bere izeba eta baita txikitako lagun batzuk ere han bizi ziren eta lanerako denbora behar zuen. Bakea eta lasaitasuna behar zituen idazteko. Ondoko herrietan ere baziren aukera batzuk. Haietako batean etxea ondo zegoen; herrixka batean erdigunetik ez oso urrun, baina leku lasai batean. Azken zalantza izan zuen eta gainera lan-bazkaria zuen handik gutxira.

Arratsaldean etxe bilaketari berriro ekin zionean bi edo hiru etxe topatu zituen aproposak izan zitezkeenak. Gehienak txaletak ziren edo udarako alokatzen zituzten apartamentuak. 2016. urtean Aste Santu goiztiarra izango zuten martxoaren bukaeran. Berak hurrengo hiru hilabeteetan, apirilatik ekainera, behar zuenerako nahikoa izango zuelakoan Bilboko agentziara bidali zuen mezu bat hilabete horietarako aukera gehiago ote zuen jakiteko. Bidali eta ordu betera jaso zuen erantzuna. Halaxe zen. Korreo elektronikoz hogeitatu etxe eta apartamenturen datuak bidali zizkioten, denak kostalde hartatik hurbil. Salneurriak ez ziren merkeak, baina hiru hilabete haietarako ez hain garestiak.

Gorlizetik hamar kilometrora Lemoizko Urizar herrixkatik hurbil, baserria izandako etxe moldatu batean hiru apartamentu zituzten alokatzeko eta berak hegoaldera jotzen zuena aukeratu zuen. Apartamentuak, egongela handian balkoira ateratzeko aukera ematen zuen eta sukalde-bainuaz gain bi logela zituen, bisitaren bat izanez gero, gonbidatuak beste logelan sartzeko. Agentziakoak esan zioenez belardi polita zuen inguruan eta leku lasaia ematen zuen. Herrikkaren erdigunea berrehun metrora zegoen eta jakin zuen taberna pare bat, denetarako denda bat eta autoentzako tailer bat zituela. Gorlizetik komunikabide onik ez zegoenez, auto bat alokatzea pentsatu zuen. Berak ez zuen autorik, Madril zentroan beharrezkoa ez zelako, baina zenbait lanetan ohitura hartu zuenez ondo etorriko zitzaion batere arazorik gabe mugitu ahal izateko. Herriko pisua eta auto bat alokatu zituen agentzian, salneurri onean denboraldi baxua izateagatik.

Hurrengo astean Aste Santu goiztiarra izango zenez, pisua ez zen libratuko apirilaren lehenera arte. Dena den, ostiral gauean bertan aukera izango zuen apartamentu hartan sartu ahal izateko. Bi aste eskasetan Pazko astearen bukaerarako dena prestatuta utziko zuen hara joateko. Bilbon bizi zen Marta lehengusinarekin mintzatu zen. Berdin egin zuen Mirianekin, Gorlizen bizi zen lagunarekin. Aspaldian ez zuen euskaraz egiten eta hasieran kostatu zitzaion.

–Beraz, hiru hilabete pasatuko ditut Urizarren lanean, zuengandik hurbil. Behin baino gehiagotan egongo gara elkarrekin. Hala ere, leku lasaia bilatu dut lanean aritzeko. Mirian, ulertzen duzu ezta?

–Bai. Herrian ezagunek ez zintuzkete bakean utziko. Pozten naiz, aspaldian elkarrekin egon ez garelako. Beste inori kontatu al diozu?

–Bai, duela minutu batzuk Martari. Beste inori ez, ezta izebari ere.

–Ondo egin duzu. Marta da txikitatik mantendu dudana lagunik bakanetakoa. Ondo pasatuko dugu hirurok. Egidazu mesede eta ez deitu beste inori, momentuz. Batzuekin ia ez dut harremanik eta ez dut uste orain hobeto konponduko naizenik. Beste lagunik behar izanez gero, nire oraingo lagunak aurkeztuko dizkizut. Oso atseginak dira, ikusiko duzu.

–Ondo da. Oraingoz ez diot beste inori deituko, izebari ez bada.

Egunak pasatu ziren. Konturatzeko joateko unea hurbildu zen. Elenak agurtu zituen lagunak. Anak eta Marisak bisitatuko zutela esan zioten; Federicok ere hitz eman zion asteburu batean edo bestean berarekin elkartuko zela.

Elena azkenean Bilborako autobusa hartu zuen. Ohitura zuen mailetak egiten eta ordenagailu eramangarriaz gain, ondo antolatutako maleta bat eraman zuen. Bilboko agentzian, aukera ona egin zuela pentsatu zuen. Amaliak, agentziako arduradunak, liburuxka bat eman zion informazioekin. Giltzak, planoak, turistentzako gidak eman eta autoa utzi zizkion arratsalde hartan. Gorlizeko bidean ere lagundu zion autoan, Elenak Bilboko irtenbideak ezagutzen ez zituelako. Leioan Amaliak Gorlizera ongi bideratuta utzi zuen Elena. Honek gustura egin zituen falta zitzaizkion hogeitaziki kilometroak. Iluntze polita eta udaberriko inguruko paisaia zoragarriak dastatu zituen.

Gorlizetik pasa zen, baina hurrengo egunetarako utzi zituen bisitak. Azken kilometroak egin zituen Urizarerraino. Herria txikia zen. Ez zituen berrehun biztanle eta ikusgarria iruditu zitzaion. Baserria eta apartamentua espero bezala gustukoak izan zituen. Orduantxe aukera izan zuen eguzkiaren azken argitan paisaia ederra miresteko, ia dastatzeko. Denbora pasatzen utzi gabe, herrira joan zen autoz denda itxi baino lehen. Supermerkatu txikian gosaltzeko beharrezko janaria erosi zuen eta gosetuta zegoenez jatetxe-tabernan geratu zen zerbait afaldu beharrean.

Bokata bat hartzeko asmoz sartu zen tabernan. Tokia tradizionala zen itxuraz eta giroaz. Egur zaharrez egindako mahai, aulki eta barra zituen. Baserria izandako leku hartan harria eta egurra zen nagusi. Euskarazko musika lasaia entzuten zen, Benito Lertxundiren kantu ezagun bat gogoratzen zuenez. Hala ere, bereziena jendea zen. Familiakoak eta txikitan ezagututako bezalakoak ziren pertsona haiek, atseginak.

Tabernaria neska gazte bat zen. Agurtu ondoren, zer hartu nahi zuen galdetu zion euskaraz. Berak kostata erantzun zion eta kontatu zion kanpoan bizi zela eta ulertzen bazuen ere, asko kostatzen zitzaiola euskaraz egitea. Gaztelan egiteko lasai esan zion gazteak, baina berak euskaraz egingo ziola, berari erdaraz egitea kosta zitzaiolako. Ondoren, bokata baino behar bezalako afaria hartzeko aholkatu zion. Bazituzten barazkiak eta entsalada; eta bigarrenetan haragia eta arraina aukeran. Borraja

patatekin eta labean egindako lupia aukeratu zituen. Oso goxo zeuden eta etxeko familiako afariak gogorarazi zizkion afari hark.

Pisura itzuli zenean nekatuta baina pozik zegoen. Bat-batean ama gogoratu zuen. Aspaldian zendu zen, baina iruditzen zitzaion ondoko herrian egongo zela. Txikitako hizkuntza berriro entzun zuen. Han ez zen bizi izan, bizitzako lehenengo urteetan, Bilbon baizik; baina, udako hilabeteetako abentura eta lasaitasunarekin lotzen zuen inguru polit hura. Idazteko gogoia baino gehiago zeukan hondartzan eta mendian ibiltzeko.

Hurrengo egunean, goizean goiz esnatu zen. Gorlizera hurbildu zen inor izango ez zelakoan, hondartzan ibiltzeko eta dendetan astebururako janaria erosteko. Hondartzan eta ondoko pasealekuan uste baino jende gehiago zebilen, gehienetan adineko emakume eta gizonak, taldeka, binaka edo bakarrik ariketa egiteko, batzuk urrats moteletan, adinagatik gehiagorik ezin zutelako. Gazteagoak ere ibiltzen ziren korrika egiten. Hondartza-ertzerara hurbildu zen. Zapatilak kendu eta prakaren petralak altxatu zituen. Oinak busti egin zituenean hotza iruditu zitzaion ura, baina handik gutxira ez zuen nabaritu. Itsasoa nahiko bare zegoen egun ilun hartan. Zapatilak utzi zituen aldera itzuli zenean gizon gazte bat topatu zuen handik hurbil. Ez zion kasurik egin, baina hark galdera zuzena egin zion agurtu ondoren.

–Egun on. Zu ez zara hemengoa, ezta? –Elenak behatu zion gizonari, nahiz eta kasu gehiegirik ez egin. Gizona, bere adinekoa eta itxura onekoa zen, irribarre polita zuen eta ez zirudien jokaera desatseginez hasiko zenik. Hala ere, ez zuen inorekin hitz egin nahi eta hala adierazi nahi izan zion.

–Egun on. Barkatu, baina gauza asko egin behar dut. Berandutu naiz.

–Aizu, ez dut enbarazurik sortu nahi. Besterik gabe, kanpotarra izanda laguntza eskaini nahi nizun behar bazenuen...

–Barkatu. Esan dizut ez dudala astirik. Eskertzen dizut eskaintza, baina ez dut laguntzarik behar... – Zapatilak jantzi gabe, hartu eta pasealekura abiatu zen. Gizona ahots lasaiez ia desenkusatu zen.

–Barkatu. Ez didazu esan nongoa zaren! –Behartuta sentitu zen zerbait esatera. Gizona atsegina eta itxura onekoa zen. Hala ere, ez zuen gizonik ondoan nahi, besterik gabe.

–Madrilen bizi naiz, baina ama hemengoa zen –erantzun zion euskaraz. Gizonak baiezko keinua eginez agurtu zuen hizkuntza berean.

–Banengoen bada! Zerbaitek esaten zidan euskalduna zinela baina kanpotarra era berean. Topatuko gara beste batean. Ondo ibili.

–Baita zu ere. Barkatu, joan behar dut.

Elena gaizki sentitu zen zakar jokatzegatik, baina ez zuen gizon astunik nahi. Gizon hark itxura ona izateaz gain, atsegina ematen zuen. Edonola ere, hilabete haiek lanerako behar zituen.

Elenak aspaldian galdu zituen gurasoak auto-istripu batean. Izeba eta lehengusinak ziren zituen senide bakarrak. Lehengusinak Bilbon bizi ziren eta Gorkizen mantentzen zituzten harremanak gutxi ziren. Eguerdian izebari eta Mariani, bere txikitako lagun handiari deitu behar ziela pentsatzen ari zen bitartean, arrandegi batean amuarrainak eta harategian oilasko puska batzuk erosi zituen. Barazki eta fruta-denda batean ere entsalada onak egiteko barazkiak erosi zituen. Gainerako gauzak aurreko egunean erosiak zituen herrixkan.

Behin erosketak eginda, Urizarrera itzuli zen bere egonaldia eta lana antolatzeko. Ordenagailu eramangarrian eleberrirako ideiak idazten aritu zen denbora batez. Gero, pentsatu zuen bakardadea behar zuela eta ez ziola une hartan izebari deituko, bestela honek bazkaltzera gonbidatuko zuen eta bere bizitzaz hitz egin beharko zion. Berdin gertatu ahal zen Marianekin. Nahiago zuen beranduago edo egunaren bukaeran denbora mugatua eman beraiekin. Ez zegoen bere intimitateaz mintzatzeko moduan. Bazkaltzeko entsalada eta oilaskoa prestatu zituenean deitu zion izebari. Egia izanda ere, Urizarreko egonaldia justifikatu behar izan zuen lanerako lasaitasuna eta bakardadea behar zituelako aitzakian, edo izebak bisitak bakantzea onartzea nahi baitzuen. Marianekin antzera jokatu behar izan zuen eta arratsaldean, afaldu aurretik geratu ziren mintzatzeko. Bere lasaitasunerako neurri eta lan gehiena egin zuen. Lasaiago ibiliko zen aurrerantzean. Aski izango zuen noizean behin izeba bisitatzearekin. Laguna gehiagotan ikusiko zuen eta momentu egokian gustura kontatuko zizkion bere bizitzaren gorabeherak.

Bazkaldu ondoren lo-kuluxka egin zuen. Arratsaldean presarik gabe aritu zen aspaldiko partez. Marianekin elkartu zen Gorkizeko kafetegi batean. Lagunak goizez egiten zuen lan administratibo bezala Plentziako arrain-enpresa batean eta haurrak ziren bere kezka nagusia. Zoriontsua zen bere senarra, familia eta bizitzarekin. Elkarren berri zuten solas arina izan zuten. Lagunaren jarduna beraren itxuran zentratu zen, behin diosala eginda.

–Elena, oso ondo zaude! Gorputz liraina mantentzen duzu eta aurpegi ona ere bai. –Lagunak inbidia sanoa sentitzen zuen eta hala adierazi zion. Elenak berdin egin zuen.

–Marian, mundura bi haur ekarri ondoren zu ez zaude gaizki. Nahi nuke nik zuk dituzun aingerutxoak eta bizitza izan. Kilotxo horiek oso ondo geratzen zaizkizu. Txikitako Mafaldatxoren itxura duzu oraindik, ilearekin eta aurpegiarekin. –Marianek jarraitu zuen lagunaren itxura goraiatzeko.

–Metxa argiago hauek oso ondo ematen dizute, zure begi arre argien tonalitatean gainera.

Lagunek jarraitu zuten solasaldi lasaian kafeak hartu bitartean. Elenaren azkenekoak eta Marianen haurren gorabeherak izan zituzten mintzagai. Bederatziak aldera izebarenean zen afaltzeko. Erretiratuta zegoen eta alarguna zen. Bere bizitza, katuek, alabek eta bilobek osatzen zuten, baita zaharren egoitzan laguntzera joatea ere. Izeba nahiko argia zen Elenaren bizitza pertsonalean gehiegi sakontzeko eta lan kontuez eta asmoez galdetu zion. Ilobak gustura dastatu zituen Izebaren platerak, ziazerba-arrautzopila eta sardina irin-arrautzetzatuak, txikitako oroitzapenetakoak bezalakoak. Izebak kontatu zion hurrengo egunean, igandean, Marta eta familia bazkaltzera agertuko zirela. Elenak esan zion kafea eta postrea hartzera helduko zela, laguna agurtzeko eta berarekin hitz egiteko.

Larunbat gaua zen eta goiz samar. Jendea beranduago aterako zen afariak bukatutakoan eta eguraldi txarra ez zegoenez, giro ona izango zuten. Bitartean, Elenak paseo txiki bat egiteko aprobetxatu zuen pisura itzuli baino lehen. Kale nagusitik jaitsi zen hondartza aldera. Paseo ederra egin zuen argitutako pasealekutik. Banku batzuetan bikoteak ikusten ziren. Hondartzan iluntasuna zen nagusi. Ez zuen espero inork berarekin sartzerik. Gizonezko baten ahotsak agurtu zuen erdaraz.

–Gabon. Bakarrik zaudela ikusi dut. Arazorik al duzu? Zerbaitetan laguntza nahi duzu? –Elenak hurbiltzen ikusi zuen gizona gaztea zen, beltzarana eta itxura onekoa. Gigolo bat izango zelakoan erantzun zion.

–Begira mutiko, ez dut inoren laguntza behar. Paseo bat egiten ari naiz.

–Barkatu, baina hemendik ordu hauetan emakume bakartiak gizon bila ibiltzen dira. Benetan ez duzu nire laguntza nahi? –Atsegina mutila.

–Ez. Txikitan bizi nintzen hemen. Paseo bat baino ez dut egin nahi ateri dela aprobetxatuz.

–Lastima. Ikusi zaitudanean pentsatu dut behingoz zorte ona izan nezakeela eta emakume eder batekin egon ahalko nintzatekeela. Gabon eta gogoratu hemendik ibiltzen naizela festa egunetan. –Gizon gaztea oso atsegina zen. Irri batekin agurtu zuen. Elenak pentsatu zuen aspaldian ez zegoela gizon batekin gustura.

–Bai, gabon.

2016ko maiatzaren 3a zen. Igande goizean lasai ibili zen. Gosalduta duxatu ondoren mugikorretik egunkarietako azken berriei errebasoa egin zien. Goizean zehar eleberrirako ideiak jorratu eta zehaztu zituen. Une batean lanetik atseden hartzeko altxatu eta leihora hurbildu zen. Paisaia ederra zen. Handik ez zuen itsaso aldean ikusten, baina inguruko etxe eder batzuk eta ikusmira berde politak zituen aurrean. Kanpotar batek esango zuen Euskal Herriko paisaia tipikoa zela, belardiak, baserriak eta zuhaitz-basoak zituen. Bazkaltzeko ordua hurbil zen eta atzealdeko belarditik itsas-hegia behatzeko gogoia sortu zitzaion. Kanpoan etxearen babesean banku pare bat zeuden. Handik hegoaldeko paisaiaren antzekoa ikusten zen, baina Gornizeko hondartza eta itsasoa zegoen guztiaren protagonista. Egun hodeitsua zen, baina horrek ez zuen xarma zapuzten. Sakonki hartu zuen arnas. Gustura zegoen eta begiak itxi zituen. Bat-batean ahots batek eten zion unea.

Amodio eta intrigazko istorio honetan bi aukera daude. Elenak bi pertsona oso desberdin topatu ahal ditu eta une honetatik aurrera gertatuko dena oso desberdina izan daiteke.

–A aukera: Benito Sukia, izen hori erabiltzen zuen behinik behin, langabetua zen baina ez zitzaion dirurik falta. Ingeniaria.

–B aukera: Patxi Aranbarri, Bilbo udaleko abokatua. Dibortziatu ondoren baimen sabatikoa eskatu zuen sei hilabetez.

A aukeraren araberako istorioa

–Kaixo, auzokide. Benito Sukia naiz, Donostiarra; baina Bilbon bizi naiz. Ondoko pisua alokatu dut denboraldi baterako. Herenegun leihotik begira nengoela, agertu eta baserrira sartu zinen. Kasualitatez berriro ikusi zintudan hondartzan. Neure burua aurkezteko eta laguntza eskaintzeko asmoa nuen. Ez dut ligatu nahi. Zaude lasai. Duela gutxi lana galdu dut eta andregaiak utzi ninduen. Elkarrekin bizi ginen Bilbon. Ingeniaria naiz eta ez dut arazo gehiegirik izango berriro lana aurkitzeko, baina bizitzan eten bat behar dut eta berriro hasi nahian, inguru eder honetan atsedean eta opor denbora emango dut zenbait hilabetez. Hau dena esaten dut jakin dezazun ez dudala inolako harremanik nahi, auzokide ona izan baino ez. Orain utziko zaitut, baina espero dut auzokide onak izatea. Eguerdion. –Elenak ez zekien zer esan. Ez zuen espero halakorik. Gaizki sentitzen zen eta desenkusatzan hasi baino lehen gizona bazihoan.

–Barkatu... Ni Elena naiz, kazetaria eta sentitzen dut horrela jokatu izana...

Gizona etxean barneratu zen. Altua zen, itxura onekoa eta aurpegi ederra zuen. Roger Moore, aspaldiko 007aren itxura zuen, ilehoria eta begiurdin guapoa zen. Beste batean atseginago jokatuko zuen gizonarekin.

Bankuan eserita, gustura geratu zen une batez. Benito gizon atsegina eta erakargarria iruditu zitzaion. Ahots xuxurlari hark oso ongi sentiarazten zuen. Konturatu zen gizonak gehiegi hunkitu zuela eta baztertu behar zuela gogotik. Apartamentura joan eta bazkari arina prestatu zuen. Laster batean bukatu eta harrikoa egin zuen lo-kuluxka egiteko. Kafe bat hartu zuen esna egoteko. Harrezkero joan behar zuen izebarenera.

Izeba eta lehengusinarekin senarra eta haurrak agurtu zituen. Une batez azaldu zien liburua idazteko Urizarren apartamentu bat alokatu zuela, lasai lan egiteko bakardadea behar zuelako. Gero lehengusinarekin atera zen itzuli bat eta lasai hitz egitera. Marta, bera baino gazteagoa zen. Dena den, bere adineko Maribelekin baino hobeki konpontzen zen aspaldiko partez. Paseatzera atera ziren. Marta irekia eta atsegina zenez gustura hitz egiten zuen Elenak harekin. Aspaldian ez ziren egon elkarrekin,

baina arratsalde hartan gustura kontatu zion azken aldian izan zuen bizitza hutsala, alkohol eta droga gauak, Pedroren faltsukeria eta sentitzen zuen aldatzeko beharra. Hurrengo astebururako planak egin zituzten, Marta, Marian eta hirurak larunbat gauean ibiltzeko. Iluntzean denak agurtu zituen eta goiz etxeratu zen hurrengo egunetik lanean aritzeko.

Hurrengo bi egunetan ez zuen lana besterik egin. Beno, egunean behin paseo eta erosketak egiten zituen herrian, Plentzian edo Gorlizen. Hara joaten zenean hondartzatik ibiltzen zen eta oinak bustitzen zituen. Une haietan Benito zetorkion burura. Baina, bestela, gustura zegoen lan handia egin baitzuen.

Asteazken arratsaldean Marianekin afaldu zuen Urizarreko jatetxe hartan. Postreetan zirenean, ondoko pisuko Benito agurtu zen zerbait afaltzera. Jantokian beste hiru mahaitan baino ez ziren afaltziarrak, beste bi bikote eta lau familia bat oporretan izango zirenak. Auzokideak agurtu zuen Elena eta eskatu zuen afaria. Bazirudien askotan joaten zela hara, zeren zerbitzariak lagunkiro hitz egin baitzuen berarekin. Bi lagunek bukatu zuten ordaindu eta kanpora atera ziren. Kanpora irten bezain pronto Marianen lehenengo komentarioa Benitori buruzkoa izan zen.

–Zertaz ezagutzen duzu aingeru eder hori?

–Nire auzokidea da.

–Oso erakargarria iruditu zait, eta atsegina. Zer egiten du hemen?

–Ez dakit zer egiten duen. Topo egin genuenean ligatzeko zetorrela uste nuen, garbi utzi nion ez nuela gizonekin ezer izateko asmorik.

–Tuntun halakoa! Begirada eta gorputz horiekin pasatzen uztea ere! Zu bezala libre egongo banintz, nik ligatuko nuke. –Elenak barre egin zuen. Lagunak arrazoi zuen. Gizon erakargarria eta hezia zen. Lastima aukera hori moztu izana. Lagunari adierazi zion nolabaiteko damua, nahiz eta bere buruari esaten ziola konturatu.

–Tamalez, zapuztu dut horretarako aukera.

–Ez uste. Zu oso ederra zara. Pixka bat prestatuz gero, eskotea erakutsiz, rimel emanez eta ilea libre utziz, edozein txoratzeko moduan egongo zinateke.

–Uste dut orain ezin dudala atzerarik egin. Uxatu nuen eta ezin dut ezer egin.

Egia esanda pare bat aldiz ikusi zuen pisura sartzen edo handik ateratzen. Beti atsegin. Eskua mugituz agurtu zuen leiho bestaldetik ikusi zuenean eta gabon batekin aurreko gauean etxeratzean iparraldeko belardian itsaso eta Gorlizeko argiei begira bankuan topatu zuenean. Orduan hitz batzuk baino ez zituzten gurutzatu.

–Ederra da hemengo ikuspegia, ezta? Nire apartamentuko gela batetik ere ikusten bada ere, egunero etortzen naiz lasaitzera. Dena den, ez dizut enbarazurik egingo. Lasai, joango naiz. Gabon. –Elenak ez zuen astirik ezer esateko. Uxatu zuen gizon hura eta orduan ezin zen hasi berriro ezer gertatu izan ez

balitz bezala. Damu zen, baina ez zekien zer egin eta ezin zuen hura aldatu. Orduko, gizona itzuli eta etxe-atarira bidean zen, erantzunik espero gabe.

–Bai... Gabon –esan zuen emakumeak berekiko. Ez zuen uste besteak entzungo zuenik, baina entzun zuen eta baita hitzen tristura nabaritu ere.

Gizona joan zenean Elena pentsatzen geratu zen. Damu zen atseginagoa ez izateagatik. Benetan gizon ederra hura!

Ordurako, libururako ideiak gauzatuta zituen, pasarte batzuk idatzi ahal izateko. Hiru egunetan ia berrogei bat orri idatzi zituen eta aurretik erdi prestatutako artikulua osatu eta bidali zituen. Lana behintzat egiten ari zen.

Ohera joateko ordua zen. Ez zuen logalerik, ordea. Ordu-tegi finkoa jarraitzea garrantzitsua zen berarentzat. Ondo lo egiten zuen, egunero ariketak egiten zituen: paseo luze bat mendian; eta ongi elikatzen zen. Baina..., Benitoren jarduna imajinatu zuen. Zekienez, bera ere lanen batean zebilen. Egun pare batean sumatu zuen etxean sartzen, goizean goiz, ziur asko korrika edo ariketa fisikoa egin ondoren. Bazirudien otordu asko jabetxean egiten zituela. Leku hartan ondo jaten zen eta merkea zen, gainera. Une hartan zer egingo zuen Benitok?

Elenak bakardadea sentitzen bazuen ere, bazekien lagunak zituela. Marta eta Marian hantxe zituen. Izeba zen amaren ordeko ona, eta Madrileko lagun batzuekin hitz egin zuen zenbait alditan. Lankide eta ezagun asko zituen. Dena den, bikotekiderik ez zuen. Pedro, bere azken mutil-laguna, amets gaizto bat izan zen berarentzat, bere gezur eta faltsukeriarekin. Berarekin izan zuen bitzta eroa eta zentzugabea zen. Droga eta alkoholaren egunak urrun ziren, baina sexuarenak ere bai. Hilabetea baino gehiago pasa zen Pedorekin egon zen azken alditik. Sexua ala maitasunaren falta izango zen, baina hutsunea sentitzen zuen. Ohera joan zen. Burutazio txarrak aldentzeko eta loak hartzeko, inguruan egin nahi zuen itzulian pentsatzen lasaitu zen. Hurrengo goizean, herriko kostaldeko arrantza-auzora, Armintzara joatea pentsatu zuen eta bide batez arrainak erosiko zituen. Autoa erabiliz, paseoa eta guzti bi ordu eskasetan itzuliko zen lanera. Goizeko zazpitan ateraz gero, ia goiz osoa izango zuen beharrerako, lanerako, izebarenera bazkaltzera joan aurretik.

Hurrengo goizean, pentsatu zuen bezala iparraldera bidean zen. Ondo lo egin zuen eta baita gosalduta ere. Portu ondoan utzi zuen autoa eta ingurutik paseatu zuen. Auzoa, Urizar baino handiagoa zen. Txaletak, aspaldiko baserriak eta berriki eraikitako pisu batzuk. Kaitik hurbil etxe txiki polit batzuk ikusten ziren, arrantzaleenak izandakoak. Eliza ederrak, dendek, kafetegiek, jatetxeek eta osasun etxeak osatzen zuten panorama. Itsasertzean hareaz baino harri txintzarrezko hondartza txikia, labarrak eta kaia zeuden. Kirol-portu bat zegoen. Txalupa, batel, lantxon eta belauntziak neurri berean ikus zitezkeen eta arrantza-portuan hogeita hamar bat unti txiki eta sei bat handiago zeuden. Hornitegiak kontserba-lantegien ondoan ziren. Lonja batean arrainak sartzen ari ziren.

Areto batean enkantea izango zena hastekotan zenez, Elena hurbildu zen. Hogei bat pertsonen arrain loteen eskaintza egiten zuten, eskaintzarik altuenak lotea eramaten zuelarik. Ia bukatzen ari ziren eta kutxa batzuk baino ez ziren geratzen. Herritar arrunt itxura zuten andre eta gizon batzuk hurbildu ziren. Bati galdetu eta arraina gutxika eros zitekeela esan zion. Pertsona bakoitzak zer erosi nahi zuen azaltzen

zuen eta gizon batek esaten zion salneurria. Merkea zenez, berak txitxarro eder pare bat seinalatu eta hiru euro eskatu zizkieten. Ordaindu zuenean poltsa batean sartu zizkieten arrainak. Gustura atera zen etxera itzultzekotan.

Elenak beste kafe bat hartzeko gogoia zuen. Kaiaren ondoan bazen itxura oneko kafetegi bat. Sartu eta kafesne bat eskatu zuenean, han, mahai batean gosaltzen, Benito ikusi zuen. Honek esertzeko gonbidapena egin zion. Agurtu ondoren, Elenak adeitsu zertan ari zen galdetu zion.

–Kaixo. Egun on. Autoz hurbildu naute hona. Paseoa egin dut eta orain gosari ederra, ikusten duzunez. Zu zertan ari zara?

–Itzuli bat egiten, lanean jarri baino lehen. Arraina erosi dut lonjan. –Biek kafea edan zuten isilik. Tarteka elkarri begira, Benitok hitz egin zion.

–Ni proiektu bat egiten ari naiz, beti marrazki eta kalkuluak egiten. Garbi dago zu zerbait serioa egiten ari zarela. Zuk zer lan duzu esku artean?

–Elena Garzia Etxegoien naiz, kazetaria eta liburu bat edo beste argitaratu dut. Siriako gerra eta errefuxiatuei buruzko liburu bat idazten ari naiz. –Gizonak interes aurpegia jarri zuen.

–Niri erreportajeak eta kazetaritza asko gustatzen zaizkit. Pozten naiz zu ezagutzeaz. Ni ingeniari hutsa naiz, kalkuluetan trebea, baina ondo idazten eta errealitatea ongi adierazten dutenen mireslea. Zure idazkiak bilatuko ditut. Zu ezagututa, egiten duzuna interesgarria izango da –hura esan bitartean miresle aurpegia eta ahots atsegina jarri zuen Benitok. Elenak, ordea, ez zekien hain lotsagabeki jokatzekak haserrarazi edo lotsagorriarazi behar zuen. Txantxetan ari zen? Edonola ere, gizon haren interesak pozten zuen.

–Zure lausenguek lotsagorritu egiten naute. Ez segi mesedez!

–Zuk merezi dituzunak. Ondo ari zara lanean?

–Poliki ari naiz zerbait idazten. Ikusiko dugu zer aterako den! Eta zu zertan ari zara?

–Proiektu bat burutzen ari naiz, makina baten hobekuntza baino ez –eten bat egin zuen–. Zure lanarekin konparaziorik ez duena, hala ere. Ez dakizu nola pozten nauen gure artekoa argitzeak –Elenak ez zekien ondo zer esan.

–Bai... Oso gogor jokatu nuen. –Elenak espero zuen harremanak normaltzea. Gizonak egoera aprobetxatu zuen.

–Erosi duzun arraina afaltzera gonbidatu behar nauzu. –Gizona lotsagabea iruditu zitzaion, baina ez zuen mesfidati jokatu behar. Nahiko ezulertuak izan ziren ordura arte.

–Sentitzen dut, arrainak izoztu eta lagunei afaria prestatzeko asmoz gorde behar ditut. Nahi baduzu jatetxean afal dezakegu gaur gauean. Orain lanera itzuli behar dut. Nahi baduzu eramango zaitut.

–Bai. Eskerrik asko.

Itzultzean Benitok inguru haiei buruz hitz egin zion emakumeari. Bazirudien ahaztu zuela Elenaren familia ingurukoa zela. Baserrira heldu zirenean beren apartamentura eta lanera itzuli ziren. Gauean afaltzeko geratu ziren.

Elenak lan dezente egitea lortu zuen, nahiz eta tartean gizonarekin gogoratu. Lotsagabea iruditu zitzaion, baina neurri berean bere jarrerak eta moduek ongi sentiarazten zuten. Oso erakargarria zen eta aspaldiko partez laudorioek poztzen zuten bera. Bazkari legea eta kuluxka egin zituen lan pixka bat egin aurretik. Afaltzera joan baino lehen dutxatu eta ondo apaindu zuen bere burua.

Jatetxera sartu zenean Benito mahaian zegoen dotore eta ikaragarritzko edertasunaz jantzita. Altxatu zen Elenari aulkia eskaintzeko. Gizonak sportez janzten zuen, baina marka, kalitate eta modelorik onenekin. Garbi ikusten zen aberatsa zela, edo janzten diru mordoa gastatzen zuela. Eseri zirenean Benitok Champagne kopa bete zion. Eskaera eginga zegoen eta gizonak esan zion gonbidatzen utzi behar ziola. Afari berezia izan zen. Hasteko, ostra batzuk eskaini zizkieten, ezin freskoagoak eta goxoak; gero, iberikoak eta Borgoña bat ekarri zizkieten; lehen plater nagusia udaberriko barazki parrillada zen txakoli baten laguntzaz; kontsome bat tartekatuz, bigarrenearako benetako idi-txuleta puska txiki batzuk eta otarraina thermidor erara zuten, Errioxa eta Albariño edateko eskainiz; Postreetan Pantxineta eta jelatu onak zituzten. Whiski zahar bat eta Armagnac eskatu zuten bukatzeko. Harrigarria izan zen jatetxe arrunt eta herrikoi hartan jaki haiek eskaintzea. Esan gabe ere, garbi zegoen Benitok gutizia haiek erosi zituela. Benitok dotore jokatu zuen, jaun bat bezala eta Elenak ongi pasa zuen gizonak kontatu zituen pasadizoekin. Jende asko eta famatuak ezagutzen zituen eta bazirudien lagun hurbilak zituela. Otordu gogoangarria izan zen. Elena zorabiatuta zegoen, nahi gabe ere, eta gutxi edanda, edari goxoak dastatuz burura eter haiek igo zitzaizkion. Hodeitan zegoen. Altxatu zirenean oso berandu zen. Beste afaltziarrak aspaldian joan ziren. Benitok dirutza ordaindu zuen eta eskupeko ederra utzi ere bai.

Kanpora atera zirenean gaueko magia sentitu zuten. Ez zen ilargia ikusten, ilberria baitzen eta hodeien artean ilargi arrastorik izanez gero ezkutuan izango zen, baina gau epela eta polita zen. Haiek bizi ziren baserrira heltzean atzealdeko banku batean eseri ziren une batez. Elenak pisura igo behar zuela adierazi nahi zuen eta agurtzen hasi zen.

–Afari izugarria izan da, goxoa eta atsegina ere bai. Nekatuta nago eta uste dut loak hartuko nauela berehala. Eskerrik asko gonbidatzeagatik. –Altxatu zen. Benitok luzatu nahi zuen afalondoa eta elkarrizketa luzatzearen hasi zen hizketan.

–Nik eman behar dizkizut eskerrak, zure ondoan afaltzeagatik. Oso eder zaude eta gustura egon naiz...

–Elenak ez zekien zer egin. Zuzenean begiratu gabe, desenkusatu zen joan aurretik.

–Barkatu, baina nekatuta nago. Lotara joango naiz, bihar lan handia egin behar baitut. –Altxatu zenean gizona ere atzetik mugitu zen. Beren pisuen ateetara helduta hitz batzuk gurutzatu zituzten agurtu beharrean.

–Gabon Elena. Oso atsegina izan da zure ondoan afaltzea.

–Gauza bera esan behar dut nik. Gabon.

Elena konturatu zen berak ez zuela bere bizitza pertsonalaz edo lanaz hitz egin, ezta Benitok bereaz ere. Hobe. Ondo zegoen denbora batez betiko kezkak eta asmoak alboratzea. Pisuak sartu bitartean bera ere oso gustura egon zela pentsatu zuen. Gizon hura oso guapoa zela eta gustatzen zitzaioela onartu behar zuen. Dena den, une hartan ez zuen gizonekin harremanik nahi.

Hurrengo egunetan lan handia egin zuen. Nahiz eta ordu batzuetan bere idazkian zentratu, aldiro, ondoko pisuko gizona etortzen zitzaion burura. Imajinatzen zuen uneoro, erakargarri.

Ostegunean auzoko supermerkatu txikian topatu zuten elkar arratsaldean erosketa batzuk egiten, Elenak fruta eta barazkiak eta Benitok kafe ehotua eta esnea. Hori zela eta gizonak kafe on bat hartzera gonbidatu zuen berera. Bere pisuak logela bat zuen hegoaldera, eta beste gela guztiek, sukaldeak bezala, mendebalde eta iparraldera jotzen zuten. Kafetera italiar klasiko batekin oso kafe goxoa egin zuen Benitok. Lau tontakeriaz hitz egin zuten, baina gustura egon ziren biak sukaldean kafea hartzen zuten bitartean.

Ostiral goizean euririk egiten ez zuela aprobetxatuz elkarrekin egin zuten herri inguruan ibilaldi bat. Ordu eta erdiz herri inguruan ibili ziren paseo arina eginez. Gutxi hitz egin zuten, baina arratsaldean zerbeza bat hartzeko geratu ziren jattetxean. Benitok bere bizitzaz galdetu behar ziola pentsatu zuen.

–Zer nolako lana egiten duzu?

–Aktualitate internazionalari buruzko artikuluak idazten ditut egunkari batzuentzat. Dena den, orain eleberri bat idazten ari naiz. Horregatik etorri nintzen hona, lana lasai egin ahal izateko.

–Orduan famatua zara! Zure izena ezaguna egiten zitzaidan, baina ez nekien zertaz. Zuk liburu bat idatzi zenuen, ezta?

–Bai. Suerte onekoa izan nintzen eta nire lehenengo eleberria izanda ere, sona handiko saria irabazi nuen duela urte batzuk. Orain liburu onargarri berri bat idazten saiatzen ari naiz.

–Oso interesgarria da. Zeri buruz idazten ari zara?

–Errefuxiatuei buruz... –baina, Benitok ez zion jarraitzen utzi.

–Bai, gaurkotasun handiko gaia da. Ziur naiz liburu interesgarria idatziko duzula.

Benitok bere bizitzaz galdetu zion, Madrileko bizitzaz eta familiaz. Elenak gainetik eta pertsonalena saihestuz kontatu zion.

Elenak larunbatera aurreratu zuen lehengusinarekin eta lagunarekin afaltzeko eguna. Madrileko lagun batzuk hurrengo asteburuan izango ziren, ostiral gauean agertu eta igande goizean joateko asmoa zutenak. Beraz, larunbatean bertan jarraitu zuen egunean zehar idazten, denbora aprobetxatzekotan.

Gauean Plentziako jatetxe batean geratu ziren lagunak. Hirurak aspaldian elkartzen ez zirenez, jaki goxoak dastatu bitartean hizketan aritu ziren beren egunerokoaz. Marta lehengusina Bilboko bizitzaz mintzatu zitzairen, laborategiko gorabeheraz, familiaz eta lagunez. Marian arrain-enpresan zuten lan eskasiaz aritu zen. Une batean Marianek gizon ederraz galdetu zion Elenari. Martak ez zuen gizon hura ezagutzen eta galdetu zion.

–Marianek galdetu duen moduagatik, gizon interesgarri bat ezagutu duzu. Ez didazu txintik kontatu. Ea, kontatu ezazu gizon eder horrekikoa. –Emakumea harrapatuta sentitu zen eta laburki kontatzea erabaki zuen.

–Baserriko ondoko apartamentuan Benito bizi da, urte sabatikoan ez dakit zer egiten eta zenbaitetan elkartu naiz azkenaldian paseatzeko edo kafe bat hartzeko. Ez berari ezta niri ere ez zaigu harreman konplikaziorik interesatzen eta lagunak baino ez gara –orduan Marianek adierazi zuen harridura.

–Duela hiru egun ikusteagatik baino ez zenuen ezagutzen eta orain lagunak zarete. Zer gertatu da? – Elenak ulertu zuen besteei dena kontatu behar zuela.

–Etorri eta hurrengo egunean hondartzan paseatzen nabilela, kanpotarra nintzela pentsatuta, Benito agertu zen laguntza eskainiz eta nik uxatu nuen, gizonekin ezer ez nuela nahi esanez. Handik bi egunetara baserrian topatu nuenean kontatu zidan auzokide on bat bezala eskaini zuela bere burua. Beste gauza bat kontatu zidan: ez duela emakumeekin ezer nahi. Hala ere, asteazkenean Marianek eta biok topatu genuenetik zenbaitetan egin dugu topo, kafeak hartu ditugu eta paseoren bat egin dugu. Orain lagunak gara... –Martak jarraitu zuen.

–Ez dakizuna da zein mutil ederra den. Niri ilehoriak ez zaizkit gustatzen, baina honek badu Roger Mooreren itxura eta edertasuna. Begirada sorgingarria du eta oso interesgarria da. Ahots eta modu ederrak ditu. Benetan jateko modukoa. –Hiru emakumeek egin zuten barre. Marianek bota zuen proposamena.

–Aurkeztu behar diguzu gizon hori.

Afariarekin jarraitu zuten. Bapo geratu ondoren, paseatu eta geldialdiak egin zituzten pare bat pubetan, hizketan eta dantza pixka bat egiteko.

Igandean berandu altxatu zen emakumea. Lasai gosaltzen ari zela, konturatu zen ez zegoela lan egiteko moduan. Paseo luzea egitea komeni zitzaion. Pentsatu zuen goiz bazkaltzea eta arratsaldean lanean jarraitzea. Paseatzeko Benitorekin gogoratu zen eta azkar prestatuta haren atean jo zuen. Ez zuen inork erantzun. Aspaldiko partez bakardadea sentitu zuen. Ez zen gizona bera erakartzen zuena. Nahi ez bazuen ere, gizonetako batekin harremana behar zuen: ez sexua, harreman pertsonala eta laguntasuna baizik. Gainera, ondo pentsatuta, berak ez zuen lagun bat bezala ikusten Benito. Aurpegi eta gorputz

ederrak izango zituen, baina komunikazioa ez zen hain ona. Egun hartan gauzak mekanikoki egin zituen.

Astelehenean oso goiz esnatu zen Elena eta ateratzeko prestatuta zegoenez, ondoko pisuko mugimenduen zain geratu zen. Benito noizbait agertu edo aterako zen. Liburu bat irakurtzen aritu zen. Hamarrak pasa, eskaileretan mugimendua nabaritu zuen. Ez zen Benito. Beste apartamentuko bizikideak ziren, Frantziako bikote bat. Aurrekoak bi kataluniar oso isilak, ia ezagutu gabe joan ziren. Frantziarrak agurtu eta lanean zerbait egiteko prestatu zenean berriro entzun zuen kanpoko zarata. Orduan espero zuena zen. Agurtutakoan honek kontatu zion Bilbon egon zela. Kafe bat hartu zuten elkarrekin gizonaren pisuan. Norberak egin zuena kontatu zion besteari. Benito lagunekin ibili zen larunbat gauean eta igandean.

Handik aurrera ohitura bihurtu zuten goizeko kafea Benitorenean egitea, gehienetan herri inguruan ibilaldia egin ondoren. Eguneroko energia hartzea bezalakoa zen Elenarentzat. Afariak jatetxean egiten zituzten. Asteazkenean lan dezente egin zuen Elenak. Bere liburua bideratuta zegoen. Siriako gerra zela-eta, pertsona erreal batzuen bizitzetan oinarrituz garatu egin zuen eleberria. Alepo ingurutik basakeriak eta gerraren ondorioak ikusita, ihesean, Turkia, Grezia eta Europan zehar ibilitako errefuxiatu batzuen historiak ziren. Benetako izanak baino ez zituen aldatu.

Ostiral gauean Elenaren Madrileko lagunak agertu ziren BMW X3 eder batean. Ana, Federico eta Marisa kazetariak eta fakultateko garaitik aspaldiko lagunak ziren eta konfiantza osokoak. Azkenaldian pixka batean baztertu bazituen ere, beti ondoan izan zituen eta krisi momentu hartan lagundu nahi zioten. Pedro eta beste lagun gautxoriak ziren betiko utzi nahi zituenak, alkohol eta droga-gaueko lagunak. Egunkari desberdinetan egiten zuten lan eta lagunarekin egon nahi zuten. Bazkal orduan heldu zirenez, herriko ostatuan egin zuten otordua.

Gustura bazkaltzen eta kontu kontari zebiltzala, Benito agertu zen. Elenak aurkeztu zion eta beraiekin geratu zen bazkaltzen. Emakumeak liluratuta zeuden bere edertasunarekin eta atsegina izateagatik. Federicok, aldiz, nahiz eta bisexuala izan, gizona izateagatik edo jarrera pentsakorragoa izateagatik ez zuen iritzi bera. Gainera, bazen gustatzen ez zitzaion zerbait eta Elenari adierazi zion bazkaria bukatu eta pisuan bakarrik geratu zirenean.

–Elena, gizon hori oso erakargarria egingo zaizue, baina itxurati bat da. Ez du benetako interesik zuengan. Beno, agian zuregan bai. Zerbait lortu nahi du zuregandik, baina ez du agerian utzi nahi eta ezkututzen ari da. –Elenak ez zuen espero entzun zuena. Haserretzen hasi zen.

–Aizu, zer diozu? Atsegina da eta gizon normala da. Zergatik esaten duzu zerbait ezkututzen duela?

–Zuek itxurekin liluratuta, ez zarete bere pertsonalitateaz konturatu. Ikusi dut hoztasunez jokatzeko duela. Hala ere, zurekin zerbait gehiago du, zeren eta maiz begiratzen dizu arreta handiz –hura ez zuen espero eta ia oihuka galdetu zion.

–Zer nahi duzu? Beldurtu nahi al nauzu?

–Ez. Kontuz ibiltzeko esan nahi dizut. Gizon hori ez da dirudiena eta ezkututzen duen zerbait nahi du zurekin erlazionatuta –erantzuna gehiegizkoa iruditu zitzaion.

–Aski da! Imajinazio gehiegi duzu. Utzi asmazioak eta izan gaitezen bakean.

–Ondo da. Ez dizut berriro esango, baina kontuz ibili berarekin.

Ostiral gauean Elena eta lagunak Bilbon ibili ziren afaltzen eta gaupasa egiten. Larunbatean ingurua ezagutzen ibili ziren. Benito, etxean geratu zen, baina lagun bat agertu zitzaion larunbat arratsaldean: Rafa. Bien lagunekin denak ibili ziren Plentzian pub batzuetan portuaren inguruan. Ordurako Elena eta Benito ia bikote, anfitrioi bezala a ziren, lagun soilak zirela esaten zuten arren.

Igande goizean, denak herrixkako jatetxean elkartu ziren agurtzeko. Beste batean elkartzekotan, Madrildarrek bidaia luzea egin behar zuten eta Rafari lagundu zioten Plentziaraino Bilboko metroa hartzeko. Benito eta Elena herrian geratu ziren eta itzulia egiten zuten bitartean mintzatu ziren. Benito hasi zen azalpen bat egiten.

–Elena, aspaldi honetan gaizki ibili naiz eta ez dut ezertan benetako interesik. Orain, zu ezagututa, hasi egin naiz berriro bizitzen. Zuk ekarri nauzu berriro mundura. Zurekin ondo eta neure buruarekin gustura sentitzen naiz. Hemendik gutxira, pisua utziko dut Bilbon lan batean hasi behar dudalako. Etorriko zinateke Bilbora nirekin? Mesedez, nik zurekin harremanetan hasi nahi nuke. Esadazu behintzat bisitatzera etorriko zarela. –Elenak ez zuen hura espero. Gizonaren jarrera bortitz samarra iruditu zitzaion. Sentimendu kontrajarriak sentitu zituen. Ondo pentsatu nahi zuen zer esan, baina erantzun behar zion.

–Benito, ez dakit zer esan. Uste dut harremanetan jarraitu ahal dugula. Edonola ere, etorri ahal zara hona ni bisitatzera... –Benitok moztu zion. Kezka aurpegia zuen eta premia adierazi zuen hitz egin zuenean.

–Elena, pisua utziko dut eta berehala ez bada ere, zu nire ondoan nahi zaitut Bilbon. –Emakumeak ez zekien nola jokatu. Beldur puntu bat sentitu zuen premia horren aurrean. Gizona ederra eta atsegina egiten zitzaion. Une batean ia laguna zela pentsatu zuen. Dena den, ez zitzaion gustatu gizonaren jokaera eta egoera kontrolatzen saiatu zen. Apalki erantzun zion.

–Benito, lagun onak gara. Ez dugu zertan larritu behar. Harremanetan jarraituko dugu. –Gizona penatuta ikusten zen, baina begirada iheskorra ere bazuen.

–Nik uste nuen zerbait sentitzen zenuela nirekin. Lanegatik utzi behar dut apartamentua eta Bilbora joan. Beldur naiz banatzen bagara harremanetan jarraituko ote dugun. Nik zerbait sentitzen dut zurekiko. Ez zaitut gehiago estutuko; baina, mesedez, pentsa ezazu ondo eta etor zaitez nirekin.

–Pentsatuko dut. –Elenak Federicok esandakoa gogoratu zuen. Kontuz ibili behar zuen gizon harekin. Beldurra sentitu zuen eta tentuz jokatzearabaki zuen. Zerbait gehiago aipatu zion gizonari.

–Oraingo Urizarren geratu behar dut. Hemengo lasaitasuna behar dut liburua bukatzeko. Harremanetan jarraituko dugu eta hitz egingo dugu lasaiago. Ezin dizut ezer erantzun. Barkatu, baina ez dakit zer esan. Orain pisura joan behar dut. –Gizonak irribarre xumea egingez eta eskua sorbaldan jarriz lasaitasuna adierazi nahi zion.

–Ulertzen dut bat-batean eskatu dizudala, baina zenbait egun barru Bilbora joango naiz eta ez dugu egunero elkar ikusiko. Oraintxe ez bada ere, kontuan izan eskaintza. Nahi dudan bakarra da zure onena eta ondoan izan.

Isilik itzuli ziren baserrira. Elenak garbi zuen Benitok zerbait txarra ezkututzen zuela. Orain garbi zuen buruko gaixotasunen bat izango zuela. Arriskua sentitu zuen eta lortu behar zuen harengandik libratzea. Haien pisuen atarrietara heldu zirenean gizon bat atera zen beste apartamentutik. Frantsesak joango ziren eta hura izango zen auzokide berria. Gizon altua eta argala zen. Haiekin topatzean formalki aurkeztu zuen bere burua.

–Kaixo, Patxi Aranbarri naiz, Bilbokoa eta hilabete batzuk pasatuko ditut hemen tesia behingoz bukatzeko asmoz. Nahiz eta lanerako lasaitasuna behar dudan, dei iezadazue zerbait behar baduzue. Ondo konpondu behar dugu auzokideok. –Irribarre batekin agurtu eta atera zen kalera. Elenak lasaitasuna sentitu zuen gizon haren adierazpen eta jarreraren aurrean. Pentsatu zuen gizon hark benetan lagunduko ziola behar izanez gero. Dena den, bere sentimenduak disimulatu zituen eta Benitori behatu zion. Gizonak atea ireki zuen. Zerbait aldatu zen bere jarreran. Bazirudien urrun zegoela. Aurpegi zurbila zuen eta ia ahopeka hitz egin zuen.

–Ez egin kasu gizon guztiei. Batzuek itxura baino ez dute egiten. Gauean afalduko dugu elkarrekin. – Elenak beldurraz eta gizon hartaz libratu behar zuela sentitu zuen.

–Hala uste nuen, baina ez da posible izango. Orain gogoratu naiz lehengusinak goizean deitu didala esateko izeba gaixorik dagoela eta arratsaldean haiekin izango naiz Gorlizen. Bihar arte beraz. Hitz egingo dugu.

Elenak oso garbi zuen ez zela Benitorekin bakarka geratuko, jendez inguratuta ez bazen. Tentuz urrutiratuko zen harengandik. Gizonak, sartu eta atea itxi zuenean, aurpegia aldatu zuen. Itxurazko irria seriotasun osoko bihurtu zen. Benito izena hartu zuen gizon hura konturatu zen txoriak ihes egin ziola. Alferrik saiatuko zen nahi zuena lortzen. Elenaren aurpegiagatik bazekien ez zuela menperatuko. Azkarregi bota zion hordagoa. Ez zuen nahikoa sorgindu, menperatu edo beldurtu, nahi bezala erabiltzeko. Emakume konplikatu zen hura. Ez zen berak behar zuena. Ez zuen merezi saiatzerik. Ez zuen kontzienteki pentsatu, baina emakume independente, irekia eta argiegia zen berarentzat, pertsonalitatea eta lagunak zituena. Herri hura utzi eta beste tranpa bat prestatuko zuen beste batean, txori gaixo bat erori zain.

B aukeraren araberako istorioa

Patxi Aranbarri, Bilbo udaleko abokatua zen. Dibortziatua zen eta baimen sabatiko eskatu zuen sei hilabetez. (Egoera: Elena, hiru egun lehenago agertuta, apartamentu ondoko bankuan berriro topatuko da hondartzan ezagutu zuen gizonarekin.)

–Kaixo berriro. Barkatu zure atsedena moztu izana, baina gauza bera egin behar nuen. Lehen edo beranduago esan behar nizun auzokideak garela.

Begiak ireki zituenean aurreko egunean hondartzan ezagutu zuen gizona ikusi zuen. Ez zen altu-altua, baina gorputz liraina eta gihartsua nabari zitzaion. Beltzarana zen eta aurpegi ederrekoa. Begirada irribarretsua umore ona adierazten zuen. Elenak ez zuen erreakzionatu eta gizon gazteak azaldu zion aurreko eguneko.

–Zure ondoko apartamentua alokatu dut uda bitartean. Herenegun ikusi zintudan etorri zinenean eta kasualitatez atzo goizean hondartzan nintzen zu agertu zinenean. Neure burua aurkeztu nahi nizun, baina ligatu nahi nuela pentsatu zenuen. Barkatu molestatzen bazaitut. –Emakumeak erreakzionatu zuen azkenean. Argi eduki zuen aurreko eguneko ezulertua.

–Kaixo. Barkamena nik eskatu behar dizut. Bai, uste nuen ligatzeko asmoz agertu zinela. Ulertzen dut, auzokideak izango garenez, harreman ona izan nahi duzula. Hala ere, esango dizut lan egitera etorri naizela eta ez dudala gizonarekin ibiltzeko asmorik.

–Ondo dago jakitea, baina ez dut ligatzeko intentziorik. Tesia bukatzeko eta bizitzan sabatiko bat hartzeko etorri naiz. Harreman ona baino ez dut nahi zurekin. Nik ere ez dut ligatzeko gogorik... Bide batez, bakean utzi baino lehen esango dizut Patxi Aranbarri naizela, zerbaiterako laguntza behar izanez gero kontuan izateko. –Patxik irri xume bat ezpainetan, buelta egin eta joatekotan zegoenean emakumeak erantzun zion.

–Eskerrik asko. Ni Elena naiz eta sentitzen dut lehor hartzeagatik. Nik ere espero dut auzokide onak izatea.

Emakumeak ikusi zuen gizon ederra joaten. Ederra zela pentsatu zuen, baita gustatzen zitzaiola... Edonola ere, ez zuen harreman berezi baterako edo ligatzeko astirik. Liburua idatzi behar zuen. Arin bazkaldu zuen. Bazekien izebarenean berandu egingo zutela eta postreetarako ordu luze pare bat falta zela. Lo arina egin zuen eta kafea hartu zuen esnatzeko. Ez zuen gogo handirik bazkalondo giroan lehengusinarekin egoteko, baina familiakoak agurtu ondoren bilatuko zuten lasai hitz egiteko aukera eta halaxe egin zuten. Haurrak, senarra eta izeba agurtu ondoren, paseatzera atera ziren. Marta, bera baino ia bi urte gazteagoa zen. Maribel bere adinekoa zen eta txikitan lagun handiak ziren, baina urteekin hobeki konpondu zen Martarekin, irekiago eta atseginagoa zelako. Lagun mina ez zen, gutxitan egon zirelako azken urteetan, baina arratsalde hartan, Elenak bi ordutan gustura kontatu zion bere bizitza mugitua eta aldatzeko beharra. Hurrengoan ez bazen beste batean geratuko ziren Marta, Marian eta hirurak larunbat gauean ibiltzeko. Iluntzean besteak bezala etxeratu zen. 45. orriraino begiratuta.

Hurrengo egunetan gogotik egin zuen lan. Goizean goiz altxatzen zen, ibilaldi azkar bat egiten zuen, dutxatu eta gosalduta ondoren orduetan eta orduetan aritu zen idazten, bai liburuaren atal batzuk, bai asteroko artikuluak. Erosketak egiteko eta hondartzatik itzuli bat egiteko mugitu zen zenbaitetan. Asteazken arratsaldean Marianekin afaldu zuen Urizarreko jatetxe hartan. Postreetan zirenean ondoko pisuko Patxi agertu zen zerbait afaltzera. Jantokian beste hiru mahaietan baino ez ziren afaltziarrak, beste bi bikote eta lau familia bat oporretan edo izango zirenak. Auzokideak agurtu zuen Elena eta eskatu zuen afaria. Bazirudien askotan joaten zela hara, zeren zerbitzariak lagunkiro hitz egin baitzuen berarekin. Bi lagunak bukatu zuten, ordaindu eta kanpora atera ziren. Atera bezain pronto Marianen lehenengo komentarioa Patxiri buruzkoa izan zen.

–Nondik ezagutzen duzu gizon eder hori?

–Nire auzokidea da.

–Oso erakargarria iruditu zait, eta atsegina. Zer egiten du hemen?

–Tesi bat lantzen ari da. Ez dakit gehiagorik. Topo egin genuenean ligatzeko zetorrela uste nuen, garbi utzi nion ez nuela gizonekin ezer izateko asmorik.

–Tuntun halakoa! Begirada eta gorputz horrekin pasatzen uztea ere! Zu bezala libre egongo banintz, nik ligatuko nuke. –Elenak barre egin zuen. Lagunak arrazoi zuen. Gizon erakargarria eta hezia zen. Lastima aukera hura moztu izana. Lagunari adierazi zion nolabaiteko damua, nahiz eta bere buruari esaten ziola konturatu.

–Tamalez, zapuztu dut horretarako aukera.

–Ez uste. Zu oso ederra zara. Pixka bat prestatuz gero, eskotea erakutsiz, rimel emanez eta ilea libre utziz, edozein txoratzeko moduan egongo zinateke.

–Uste dut orain ezin dudala atzerarik egin. Uxatu nuen eta orain ezin dut ezer egin.

Egia esanda, azken egunetan pare bat aldiz ikusi zuen pisura sartzen edo ateratzen. Beti atsegin. Elenak eskua mugituz agurtu zuen leiho bestaldetik ikusi zuenean eta gabon batekin aurreko gauean etxeratzean iparraldeko belardian itsaso eta Gorlizeko argiei begira bankuan topatu zuenean. Orduan hitz batzuk baino ez zituzten gurutzatu.

–Oso ikuspegi polita da hau. Nire pisutik hain ondo ikusten ez dudanez, egunero etortzen naiz hona lasaitzera. Dena den, utziko zaitut bakean. Gabon –ez zuen erreakzionatzeko astirik izan. Uxatu zuen gizon atsegin hura eta orduan ezin zuen berriro ezer gertatu izan ez balitz bezala hasi. Damu zen, baina ez zekien nola aldatu egoera. Orduko, itzuli eta etxe atarira bidean zen, erantzunik espero gabe.

–Bai... Gabon –esan zuen berekiko. Ez zuen uste besteak entzun zuenik, baina entzun zuen eta baita hitzen tristura nabaritu ere.

Gizona joan zenean pentsatzen geratu zen. Damu zen atseginago ez izateagatik. Gizon erakargarria hura! Libururako ideiak gauzatuta zituen, kapitulu eta atal batzuk idatzi ahal izateko. Egun gutxitan berrogei bat orri idatzi zituen, eta asteko artikuluak, aurretik erdi prestatuak, osatu eta bidali zituen. Lana behintzat egiten ari zen.

Ohera joateko ordua zen, logalerik ez zuen ordea. Ordutegi ona jarraitzea garrantzitsua zen berarentzat. Ondo lo egiten zuen eta egunero ariketak egiten zituen. Paseo luze bat egiten zuen mendian eta ondo elikatzen zen. Baina,... Patxiren jarduera imajinatu zuen. Zekienez, bera ere lanean edo tesia egiten zebilen. Egun pare batean sumatu zuen etxean sartzen goizean goiz, ziur asko korrika edo ariketa fisikoa egin ondoren. Bazirudien otordu asko jabetxean egiten zituela. Leku hartan ondo jaten zen eta merkea zen.

Elenak lagunak zituela zekien arren, bakardadea sentitu zuen. Marta eta Marian hantxe zituen. Izeba amaren ordezkora zen eta Madrileko lagun batzuekin hitz egin zuen zenbait alditan. Lankide eta ezagun asko zituen. Dena den, bikotekiderik ez zuen. Pedro, bere azken mutil-laguna, amets gaizto bat zen berarentzat, bere gezur eta faltsukeriek. Berarekin izan zuen bizitza eroa. Droga eta alkoholaren egunak urrun ziren, baina sexuarenak ere bai. Hilabetea baino gehiago pasa zen Pedorekin egon zen azken alditik. Sexua ala maitasunaren falta izango zen, baina hutsunea sentitzen zuen. Ohera joan zen. Burutazio txarrak aldentzeko eta loak hartzeko, inguruan egin nahi zuen itzulian pentsatzen lasaitu zen. Hurrengo goizean Armintzako kostaldeko arrantza-auzora joatea pentsatu zuen eta bide batez arrainak erosiko zituen. Autoa erabiliz, paseoa eta guzti bi ordu eskasetan itzuliko zen lanera. Goizeko zazpietan ateraz gero, ia goiz osoa edukiko zuen beharrerako, lanerako, izebarenera bazkaltzera joan aurretik.

Hurrengo goizean, pentsatu zuen bezala iparraldera bidean zen. Gauean ongi lo egin zuen eta gosari ederra ere egina zuen. Portu ondoan utzi zuen autoa eta ingurutik paseatu zuen. Armintza Urizar zaharra baino handiagoa zen. Txaletak, aspaldiko baserriak eta berriki eraikitako pisu batzuk. Kaitik hurbil etxe txiki polit batzuk ikusten ziren, arrantzaleenak izandakoak. Eliza ederrak, dendek, kafetegiek, jatetxeek eta osasun etxeak osatzen zuten panorama. Itsasertzean hareaz baino harri txintzarrezko hondartza txikia, labarrak eta kaia zeuden. Kirol-portu bat zegoen. Txalupa, lantxon eta belauntziak neurri berean ikus zitezkeen eta arrantza-portuan hogeita hamar bat unti txiki eta sei bat handi zeuden. Hornitegiak bi kontserba-lantegien ondoan ziren. Lonja batean arrainak sartzen ari ziren.

Areto batean enkantea izango zena hastekotan zenez, Elena hurbildu zen. Hogeitabat pertsonen arrain loteetan eskaintza egiten zuten. Ia bukatzen ari ziren eta kutxa batzuk baino ez ziren geratzen. Herritar arruntak izateko itxura zuten andre eta gizon batzuk hurbildu ziren. Bati galdetu eta arraina gutxika erosi zitekeela esan zion. Pertsona bakoitzak zer erosi nahi zuen esaten zuen eta gizon batek eskatzen zuen salneurria. Merkea zenez berak txitxarro eder pare bat seinlatu eta hiru euro eskatu zizkion. Dirua eman eta poltsa batean sartu zizkioten arrainak. Gustura atera zen etxera itzultzekotan.

Elenak beste kafe bat hartzeko gogoia zuen. Kaiaren ondoan bazen itxura oneko kafetegi bat. Sartu eta kafesne bat eskatu zuenean han mahai batean gosaltzen, Patxi ikusi zuen. Honek esertzeko gonbita egin zion. Agurtu ondoren, Elenak adeitsu zer egiten zuen galdetu zion.

—Kaixo. Egun on. Mendiz sei bat kilometro egin ditut oinez hona etortzeko eta gosari ederra egindakoa itzultzeko asmoa dut. Zu zertan ari zara?

–Itzuli bat lanean jarri baino lehen. Arraina erosi dut lonjan –biek kafea eskatu eta edan zuten isilik. Tarteka elkarri begira, Patxik ezustean hitz egin zuen.

–Elena Garzia Etxegoien zara. Siriako gerraren inguruko testigantza liburua irakurri nuen eta ordutik zure idazkiak eta artikuluak irakurtzen ditut. Ondo idazten duzu eta zure iritziak zentzuzkoak dira. Zorionak sariarengatik, nahiz eta nobela hura komertziala iruditu zitzaidan. –Emakumea harrituta zegoen. Patxik jarraitu zuen.

–Aurreko egunean gauean hitz egin ondoren konturatu nintzen nor zinen. Zure liburu sariduna apalean nuenez argazkiarengatik egiaztatu ahal izan nuen zu zinela. Barkatu atrebentzia, baina zer moduz zure lana? Aprobetxatzen ari al zara? –Erreakzionatzeko aukera izan zuenean Elenak ez zekien zer esan.

–Barkatu, ez nuen hau espero. Eskerrik asko esan duzunagatik. Poliki, zer edo zer idazten ari naiz. Espero dut zerbait interesgarria izatea. Zu tesi bat egiten ari zara. Zer moduz ari zara? –gizonak irri mimiño bat egin zuen erantzun bitartean.

–Ez dakizu zenbat pozten naizen solas honengatik. Bazirudien zerbait txarra egin nizula! –eten luzerik egin gabe, jarraitu zuen.

–Tesia burutzea kostatzen ari zait. Bilboko udalean abokatu egiten dut lan. Soziologia ikasketak ere burutu nituen, baina ez nuen aukera doktoretza osatzeko. Hala ere, sabbatiko eskatuta, uste baino gehiago beharko dut –jarduna eten zuen–. Espero dut nire tratu eta jarrera sarkorregia izateagatik enbarazurik ez sortzea. –Elenak gizon harekin harremana normaldu behar zuela pentsatu zuen.

–Nik ere sentitzen dut ezulertuak sortu izana. Barkatu zakar izateagatik –gizonak aprobetxatu zuen galdera zuzena egiteko.

–Orduan bakeak egiteko arrain hori afaltzera gonbidatu behar nauzu edo bestela jatetxean gonbidatzen utzi behar didazu. –Gizona zuzenegia iruditu zitzaion, baina ez zuen berriro mesfidantzekin hasi nahi.

–Arraina izozteko asmoa dut. Bai. Nahi baduzu jatetxean afal dezakegu elkarrekin... Orain itzuli behar dut lanera. Nahi al duzu auzora eramatea?

–Bai. Eskerrik asko.

Gosaria ordaindu zuten. Itzultzean, paisaiatz eta eguraldiaz baino ez zuten hitz egin. Baserrian nor berera itzuli ziren. Iluntzeko bederatzietarako geratu ziren jatetxean.

Elenak gustura egin zuen lan, batzuetan gizonaren irudia tartekatzen zen arren. Izebarenean bazkaldu zuenean familiako kontuez aritu ziren eta arratsaldean lo-kuluxka txiki bat egin ondoren, lanean jarraitu zuen ia etenik gabe. Lan egin bitartean noizean behin gizon harekin afaria zuela pentsatzeak urduri jartzen zuen. Zortzi eta erdietan dutxa bat hartu eta apaindu zuen bere burua. Soineko diskretua jantzi, rimel piska bat eman, ezpainak markatu eta ilea moldatu zuen pixka batean.

Jatetxean sartu zenean Patxi betiko mahaian zen. Gizonak ere ohi baino dotoreago jantzi zuen. Atorra marradun polit bat jantzi zuen eta aulkian jaka utzi zuen. Eseri zirenean biek txakoli eskatu zuten edateko. Ondoren menua eta eskaintza bereziak egin zizkieten. Sarrera bezala, entsalada bereziak eta frijitu batzuk aukeratu zituzten. Denak oso goxoak eta bigarrenerako mero bat partekatu zuten. Hain gustura ari ziren, ezen bigarren botila txakoli eskatu eta bukatu zuten. Postreetarako beteta zeuden eta anana eskatu zuten. Kopa batera gonbidatu zituzten etxekeok eta bi armagnac eskatu zituzten.

Afaria bitartean beren eguneroko bizitzaz hitz egin zuten. Elenak kontatu zizkion lagun berriari Madrileko gaueko arriskuak eta bizitza hutsalaren sentimendua. Gizonekin izandako harreman txarrez eta Pedroren faltsukeriaz hitz egin zion. Kontatu bitartean konturatu zen azkeneko gaia bere jarreragatik desenkusatzeko azaldu ziola. Patxik Bilbo hiriko administrazio lanaz hitz egin zion. Lan eramangarria, baina aspergarria neurri batean. Dibortzioaz ere hitz egin zion. Berak ere ez zuen emakumeekin harremanik nahi, momentuz.

Konturatzeko bezero guztiak desagertu ziren eta kanpora atera zirenean gaueko magia sentitu zuten. Ez zen ilargi beterik, ilbehera aurreratua baizik, hodeien artean zenbaitetan sumatzen zena. Baserrira heltzean atzealdeko banku batean eseri ziren une batez. Elenak pisura igo behar zuela adierazi nahi zuen eta agurtzen hasi zen.

–Afari goxoa eta atsegina izan da. Nekatuta nago eta uste dut loak hartuko nauela berehala. Eskerrik asko gonbidatzeagatik –Altxatu zen. Patxik luzatu nahi zuen afalondoa eta bururatu zitzaion bakarra adierazi zuen.

–Nik eman behar dizkizut eskerrak zure ondoan afaltzen uzteagatik. Oso eder zaude eta gustura egon naiz... –Elenak ez zekien zer egin. Begietara begiratu gabe, desenkusatu zen joan aurretik.

–Barkatu, baina nekatuta nago. Gabon.

Pisuan sartu bitartean bera ere oso gustura egon zela pentsatu zuen. Gizon hura gustatzen zitzaiola onartu behar zuen. Dena den, betiko leloa errepikatu zion bere buruari: orain ez zuen gizonekin harremanik nahi.

Hurrengo egunetan Elenak lan handia egin zuen. Nahiz eta ordu batzuetan bere idazkian zentratu, askotan ondoko pisuko gizona imajinatzen zuen eginkizunetan, atsegina eta erakargarri. Ostegunearan auzoko supermerkatu txikian topatu ziren arratsaldean erosketak batzuk egiten, Elenak fruta eta barazkiak eta Patxik kafe ehotua eta esnea. Hori zela-eta, gizonak kafe on bat hartzera gonbidatu zuen berera. Bere pisuak gela bat zuen hegoaldera, bere egongela, eta beste gela guztiek iparraldera jotzen zuten. Apartamentuan topatu zuen kafetera italiar klasiko batekin kafe goxoa egiten zuen Patxik. Lau tontakeriez hitz egin zuten, baina gustura egon ziren biak sukaldean kafea hartzen. Ostiral goizean elkarrekin egin zuten herri inguruan ibilaldi bat. Ordu eta erdiz ekialdeko mendietatik ibili ziren, bide erdian kostaldeko ikusmira ederraren aurrean egin zuten geldialdia eta itzulia burutu zuten maldan beheara. Gutxi hitz egin zuten, baina arratsaldean zerbeza bat hartzeko geratu ziren jatetxean.

Larunbatera aurreratuta zuen Elenak lehengusinarekin eta lagunarekin afaltzeko eguna. Madrileko lagunak hurrengo asteburuan izango ziren, ostiral gauerako agertu eta igande goizean joango zirenak. Beraz, larunbatean bertan jarraitu zuen idazten, denbora aprobetxatu beharrean.

Gauean Plentziako jatetxe batean geratu ziren lagunak. Hirurak aspaldian egon ez zirenez, jaki goxoak dastatu bitartean hizketan aritu ziren beren egunerokoaz. Marta lehengusina Bilboko bizitzaz mintzatu zitzairen, laborategiko gorabeheraz, familiaz eta lagunaz. Marian arrain-enpresan zuten lan eskasiaz aritu zen. Une batean Marianek gizon ederraz galdetu zion Elenari. Martak ez zuen gizon hura ezagutzen eta galdetu zion.

–Marianek aipatu duen moduagatik, gizon interesgarri bat ezagutu duzu. Ez didazu txintik kontatu. Ea, kontatu ezazu gizon eder horrekin duzun harremana. –Emakumea harrapatuta sentitu zen. Laburki kontatzea erabaki zuen.

–Baserriko ondoko pisuan Bilbokoa Patxi dago alokairuan tesia osatzen eta zenbaitetan elkartu gara azken aldia paseatzeko edo kafe bat hartzeko. Ez berari ezta niri ere ez zaigu harreman konplikaziorik interesatzen eta lagunak baino ez gara –orduan, Marianek adierazi zuen harridura.

–Duela hiru egun ikusteagatik baino ez zenuen ezagutzen eta orain lagunak zarete. Zer gertatu da? – Elenak ulertu zuen lagunei dena kontatu behar ziela, ezer gorde gabe.

–Etorri eta hurrengo egunean hondartzan paseatzen nabilela, kanpotarra nintzela pentsatuta, Patxi agertu zen bere laguntza eskainiz eta nik uxatu nuen, gizonarekin ezer ez nuela nahi esanez. Handik bi egunetara baserrian topatu nuenean kontatu zuen heldu nintzenean ikusi ninduela eta auzokide on bat bezala eskaini zuela bere burua. Gainera, kontatu zidan dibortziatu berria zela eta ez zuela emakumeekin ezer nahi. Hala ere, asteazkenean Marianek eta biok topatu genuenetik zenbaitetan egin dugu topo, kafeak hartu ditugu eta paseoren bat egin dugu. Orain lagunak gara... –Martak jarraitu zuen.

–Ez dakizuna da zein mutil ederra den. Beltzarana, altua, begirada sakona eta interesgarria. Dirudienez, umore handikoa da eta oso atsegina. Benetan jateko modukoa. –Hiru emakumeek egin zuten barre. Marianek bota zuen proposamena.

–Aurkeztu behar diguzu gizon hori.

Afariarekin jarraitu zuten. Bapo geratu ondoren atera ziren eta geldialdiak egin zituzten pare bat pubetan.

Igandean, berandu altxatu zen Elena. Lasai gosaltzen ari zela, konturatu zen ez zegoela lan egiteko moduan. Paseo luzea egitea komeni zitzaion. Goiz bazkaldu eta arratsaldean lanean jarraituko zuen. Paseatzeko Patxiarekin gogoratu zen eta azkar prestatuta, haren atean jo zuen. Ez zuen inork erantzun. Pixka bat beranduago, itzulia egin zuen. Aspaldiko partez bakardadea sentitu zuen. Egun hartan gauzak mekanikoki egin zituen.

Astelehenean oso goiz esnatu zen eta ateratzeko prestatuta zegoenez ondoko pisuko mugimenduen zain geratu zen. Patxi noizbait agertu edo aterako zen. Liburu bat irakurtzen aritu zen. Hamarrak pasa, eskaileretan mugimendua nabaritu zuen. Ez zen Patxi. Beste pisuko orduko bizikideak ziren, Frantziako bikote bat, aurrekoak bi kataluniar oso isilak ia ezagutu gabe joan baitziren. Frantziarrak agurtu eta lanean zerbait egiteko prestatu zenean berriro entzun zuen kanpoko zarata. Orduan espero zuena zen. Agurtutakoan honek kontatu zion Bilbon egon zela. Kafe bat hartu zuten elkarrekin gizonaren pisuan.

Nork zer egin zuen kontatu zion besteari. Patxik dibortzio paperak sinatu zituen azkenik eta ondasun kontuak gaurkotu. Lagunekin egon zen larunbat gauean eta igandean.

Handik aurrera ohitura bihurtu zuten goizeko kafea Patxirenean egitea, gehienetan ibilaldia egin ondoren. Eguneroko energia hartzea bezalakoa zen Elenarentzat. Afariak jatetxean egiten zituzten. Asteazken zehar lan dezente egin zuen Elenak. Bere liburua bideratuta zegoen.

Siriako gerra zela-eta, pertsona erreal batzuen bizitzan oinarrituta eraiki zuen eleberria. Alepo ingurutik basakeriak eta gerraren ondorioak ikusita, ihesean Turkia, Grezia eta Europan zehar ibilitako errefuxiatu batzuen historiak ziren, berak aurreko udazkenean jasotakoak.

Ostiral gauean Elenaren Madrileko lagunak agertu ziren BMW X3 eder batean. Ana, Marisa eta Federico kazetariak eta fakultateko garaitik aspaldiko lagunak ziren, konfiantza osokoak. Elenak azken aldian pixka batean baztertu bazituen ere, beti ondoan izan zituen eta haiek krisi momentu hartan lagundu nahi zioten. Pedro eta beste lagun gautxoriak ziren betiko utzi nahi zituenak, alkohol eta droga giroko gaueko lagunak. Lagun kazetariak egunkari desberdinetan egiten zuten lan eta Elenarekin egon nahi zuten. Asteburu luzeagoa izateko, pare bat egun eskatu zuten lanean, ostiral goizean Madriletik abiatzeko. Urizarrera bazkal orduan heldu zirenez, herriko ostatuan egin zuten otordua.

Ostatuan jende asko zegoen, baina berandu zenez lehenengo bazkaltiarak bukatzen ari ziren eta berehalako eskaintza zuten mahai bat. Orduan ere, aukeratu ahal izan zuten bi barazki mota eta entsalada desberdinen artean. Arrain, haragi eta barazkijaleentzako plater pare bat zeukatenez, Marisak ziazerba edo espinaka-kanalonak eskatu ahal izan zituen eta Elenak seitan albondigak, orojalea izanda ere, ostatu hartakoak gustatzen zitzaizkiolako. Federicok entrekota eskatu zuen eta Anak txitxarro. Txakoli goxo bat dastatu bitartean Madrileko eta lanbideko berriez aritu ziren. Une hartan Patxi agertu zen eta elkar aurkeztu zuten. Bi mahaitan bazkaltzen ari zirenez nahikoa lekua zuten. Muturrean Ana zen eta Elenaren ondoan eserarazi zuten etorri berria. Patxik entsalada eta albondiga goxoak tomatearekin eskatu ondoren Anaren arretera erakarri zuen. Ana Elenaren gertuena eta lotsagabeena zenez, galdezka hasi zitzaion Patxiri.

–Patxi, kazetarion lana oso aspergarria da, zaintza eta lan astunez beterik, itxura eta une berezien gainera. Zuk zer egiten duzu inguru miragarri honetan? –Gizonak jakin bazekien erantzun behar zuela lehen edo beranduago. Elenari komeni ote zitzaion jakin nahi zuten. Duda egin zuen bere bizitzaz hitz egitea gustatzen ez zitzaiolako. Edonola ere, Elenaren lagunak zirenez argi eta zuzen mintzatu zen.

–Abokatua naiz Bilboko udalean, baina sabatikoa eskatu dut soziologian tesia eta doktoretza burutzeko. Gainera, dibortziatu berria naizenez hemen egingo dudana ondo etorriko zait bizitza berritzeko. Dagoeneko hobeki nago eta tesia burutzen ari naiz. Elena ezagutzea,... nola esango nuke... azken aldiko gauzarik politena izan da. Bizitza interesgarria eta ederra dela pentsatzen hasi naiz. Galdeketa bukatzeko zuk edo beste edonork galdera gehiagorik ez baduzue, bazkariak eta lagunarteko giroaz gozatu nahi nuke. –Ana ez zen berehalakoan desenkusatu. Gizona zuzena eta atsegina iruditu zitzaion, itxura ona izateaz gainera eta ia horrela adierazi zuen.

–Elenaren ongizateaz arduratzen gara. Ikusten dut lagun ona aukeratu duela. Lasai, oraindik bukatu dut galdeketa.

Handik aurrera gustura bazkaldu zuten. Bazkalondoan lo-kuluxka egitera joan ziren Elenaren pisura, egun hartan oso goiz altxatu zirelako. Patxi bere pisura sartu zen haiekin larunbat gauean ibiltzeko gelditu ondoren.

Ostiral gauean Elena eta lagunak Bilbon ibili ziren, afaltzen eta gaupasa egiten. Larunbatean ingurua ezagutzen ibili ziren. Patxi, berriz, lanean geratu zen, baina Ramon izeneko lagun bat agertu zitzaion larunbat arratsaldean. Patxi eta Elenaren lagunekin, denak elkarrekin ibili ziren Plentzian pub batzuetan portuaren inguruan. Ordurako, Elena eta Patxi ia bikote bezala aritu ziren, lagun soilak zirela denek bazekiten ere.

Federico, Ana eta Marisa ondo konpondu ziren Ramon eta Patxiarekin. Elena ez zen hain ondo sentitu aspaldiko partez. Ramon, Montxo lagunentzat, irekia eta festazale amorratua zen. Hitz errazekoa izateaz gainera denak dantzatzera animatu zituen. Montxok, Ana eta Marisa dibertitu zituen eta Federico ere bisexuala izaki liluratu egin zuen. Erdi diskoteka zen Pub batean esertzeko lekuak lortu zituzten. Marisa eta Federico Montxoren erritmora ibili ziren dantza egiten. Bestalde, nahiz eta tarteka dantzatu, Anak ez zituen Elena eta Patxi bakean uzten, haiekin zarataren gainetik hitz egin nahi baitzuen. Behin gizona ezagututa, lagunarentzat gizon ideala iruditu zitzaion.

–Zuek biok bikote ederra egiten duzue. Hemengoak zarete biak eta izaeraz ongi konpontzen zarete. Libre zaudete maitasun harremana izateko. –Elenak ezagutzen zuen laguna eta geldiarazi nahi zuen. Saiatuko zen behintzat.

–Elena, isil zaitez. Zelestina ederra egina zaude! Utzi bakean, bakean daudenak. Patxi beldurtuko duzu horrela segituz gero. –Patxik ere zerbait esan nahi zuen.

–Ana, ez Elenak eta ez nik ez dugu inor behar gure arteko harremanetan sartzeko. Nik gustukoa dut Elena eta espero dut berak berdin sentitzea nirekin. Hortik aurrera denborak eta gure sentimenduek egingo dute lana. Mesedez, utzi bakean. –Anak ulertu zuen gehiegi sartu zela eta ziurrenez ez zutela inoren laguntza nahi.

–Ondo da. Utziko zaituztet. Ni ligatzera joango naiz pistara. Dantza geldia jotzen dutenean pega-pega eginda ikusi nahi zaituztet. –Biak bakarrik geratu zirenean Elena desenkusatu zen. Patxik ez kezkatzeko esan zion. Orduantxe musika erromantikoa jarri zutenez, gizonak gonbita luzatu zion emakumeari.

–Goazen dantzatzera. Oso eder zaude eta probatu behar dugu hurbilean ondo konpontzen garen!

Elenak ez zekien zer esan edo egin. Dena arrapaladan zihoala iruditu zitzaion, baina gizonak eskaini zion eskua hartu zuen. Gizonaren begirada erakargarria hurbildik ikaragarriagoa iruditu zitzaion. Pistatik agertzen ari ziren lagunak, dantza eroa egin ondoren eserlekuetara itzultzean, irribarre batekin agurtu zituzten dantza geldian ibilitako bi lagunak. Gustura, kopa bana gehiago hartu zuten, broma artean erlaxatzen ziren bitartean. Berandu zenez, dena itxita zegoen eta herrixkara itzuli ziren. Nekatuta eta logale, ia zaratarik egin gabe, apartamentuetan sartu ziren atsedean hartzera hurrengo egunera arte.

Igande goizean denak jatetxean elkartu ziren agurtzeko eta gosari on bat egiteko. Oso gustura ibili ziren denak aurreko egunean. Beste batean elkartzekotan, Madrildarrek bidaia luzea egin behar zuten eta Montxori lagundu zioten Plentziaraino Bilboko metroa hartzeko.

Elena eta Patxi beren pisuetara itzuli baino lehen paseatzera atera ziren. Hasieran isilik mugitu ziren arin. Gero, itzultzen ari zirela, derrigorrezkoa zen lagunak joan berritan haiei buruz eta beraiei buruz hitz egitea. Patxik hitz egin zuen lehena.

–Zure lagunak oso atseginak dira, baita Ana ere, nahiz eta oso sarkina izan. Montxo oso ondo sentitu zen haiekin eta zurekin bart gauean.

–Gauza bera esan behar dut nik –izan zen Elenaren erantzuna. Hala ere, bien artekoaz hitz egin behar zuten. Elenak ezer aipatuko ez zuela uste zuenez eta eragozpenik jarriko ez zuelakoan, gizona beraien artekoari buruz mintzatzen ausartu zen.

–Elena, atzo sorgindu ninduzun. Lagunak izan ez bagina musukatzera ausartuko nintzen. Zurekin oheratzeko gogoia izan nuen. Aspaldian sentitzen ez nuen gauza. –Elena lotsagorritu zen. Une bat pasa ondoren bere sentimendua adierazi zion gizonari.

–Nik... gauza bera esan behar nizun. Orain ez naiz gauza hitz egiten jarraitzeko, baina bazkaltzeko geratu behar dugu. –Baserrira heldu zirenez beren pisuetara igo ziren. Bazekiten ez zutela lan handirik egingo, baina lotsa arraro bat sentitzen zuten momentu hartan elkarrekin jarraitzeko. Hala ere, Patxik ezin zituen gauzak horrela utzi.

–Elena..., kopatxo bat hartzera gonbidatzen zaitut. Whiski on bat daukat edo nahi baduzu gin-tonic batzuk prestatu egin ahal ditut. –Elenak Patxiri begiratu zion eta konturatu zen ezin zuela hura luzatu.

–Gin-tonic bat nahiago nuke, mesedez.

Patxiren pisura sartzera zihoazenean, beste apartamentutik gizon bat atera zen orduan. Dotorea zen eta Roger Moore itxura zuen. Haien ondotik pasatzean agur iheskorra egin zien, itxuraz bikotekideak ziren haiei.